

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Autonomia
Erkidegoaren Administrazio
Orokorren Kontua**

**Cuenta de la Administración
General de la Comunidad
Autónoma del País Vasco**

2016





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	7
I. SARRERA	9
II. IRITZIA	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Administrazio orokorraren kontuari buruzko iritzia	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK	12
III.1 Aurrekontuak eta kontabilitatea	12
III.2 Langileria gastuak	13
III.3 Diru-laguntzak	13
III.4 Kontratazioa	15
III.4.1 Aurreko ekitaldietan esleitutako espedienteak	15
III.4.2 2016an esleitutako espedienteak	16
III.4.3 Kontratu txikiak	17
III.5 Abalak	17
III.6 Beste alderdi batzuk	18
IV. FINANTZA ANALISIA	19
V. 2016 EKITALDIKO KONTUAK	24
ERANSKINAK	31
A.1 Araudi aplikagarria	31
A.2 Aurrekontuko aldaketak	32
A.3 Langileria gastuak	33
A.4 Funtzionamendu gastuak	35
A.5 Transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoak	36
A.6 Inbertsio errealak	38
A.7 Finantza-aktiboen gehikuntza	40
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak	41
A.9 Transferentzia arruntengatiko sarrerak	42
A.10 Kapital transferentziengatiko sarrerak	43
A.11 Finantza-aktiboen gutxitzea	43
A.12 Kobratzeke eta ordaintzeke dauden hondarrak	44
A.13 Diruzaintza	45
A.14 Aurrekontuz kanpoko eragiketak	46
A.15 Zor publikoa	48



A.16 Emandako abalak	51
A.17 Konpromiso kredituak	52
A.18 Kontratazioa	53
A.19 Diru laguntzen analisia.....	61
A.20 Kontabilitate publikoa.....	63
A.21 Lurraldeka bereizitako gastuak eta sarrerak	65
ALEGAZIOAK	69
ABREVIATURAS	93
I. INTRODUCCIÓN	95
II. OPINIÓN	96
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	96
II.2 Opinión sobre la cuenta de la administración general	97
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	98
III.1 Presupuestos y contabilidad	98
III.2 Gastos de personal	99
III.3 Subvenciones.....	99
III.4 Contratación	101
III.4.1 Expedientes adjudicados en ejercicios anteriores	101
III.4.2 Expedientes adjudicados en 2016	101
III.4.3 Contratos menores	102
III.5 Avaluos.....	103
III.6 Otros aspectos.....	103
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	104
V. CUENTAS DEL EJERCICIO 2016.....	109
ANEXOS	115
A.1 Normativa aplicable	115
A.2 Modificaciones presupuestarias	116
A.3 Gastos de personal	117
A.4 Gastos de funcionamiento.....	119
A.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	120
A.6 Inversiones reales.....	122



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7	Aumento de activos financieros	124
A.8	Tasas y otros ingresos	125
A.9	Ingresos por transferencias corrientes	126
A.10	Ingresos por transferencias de capital	127
A.11	Disminución de activos financieros	127
A.12	Residuos pendientes de cobro y pago	128
A.13	Tesorería.....	129
A.14	Operaciones extrapresupuestarias.....	130
A.15	Deuda pública	132
A.16	Avales concedidos	135
A.17	Créditos de compromiso.....	136
A.18	Contratación	137
A.19	Análisis de subvenciones.....	145
A.20	Contabilidad pública.....	147
A.21	Gastos e ingresos territorializados.....	149
ALEGACIONES		153

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 28a
Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2018





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, 2012ko apirilaren 27koa, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EAATB	1/2011 Legegintzako Dekretua, 2011ko maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen duena.
EABJ	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsia.
EAEONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, 1997ko azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EIB	Europako Inbertsio Bankua
EIBM	Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa.
EKKL	14/1994 Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzkoa.
ETE	Enpresa txiki eta ertainak
ETS	Euskal Trenbide Sarea.
ETSB	Euskadiko trenbide sare berria.
HDEK	Herri Dirubideen Euskal Kontseilua.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JKE	Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia.
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
SPKL	30/2007 Legea, 2007ko urriaren 30ekoa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
VIRESA	Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), berau arautzen duen 1/1988 Legean eta 2007ko ekitaldirako Urteko Lan Programan xedatutakoaren arabera, 2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txosten hau egin du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: ea aurrekontuaren, zorpetzearen, finantza eragiketen, langileriaren, obra, zerbitzu eta hornidura kontratazioaren, laguntza eta diru-laguntzak publikoak ematearen, eta zuzenbide publikoko sarreren arloetan aplikagarri den araudia betetzen den aztertu da.
- Kontularitzakoak: aztertu da ea Kontua ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatzen den.
- EAEko Administrazio Orokorraren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efikaziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

2016 aurrekontu ekitaldiko likidazioaren kontua aurkeztu da, Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren 2012ko abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuari, 2013ko martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuari eta 2013ko abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuari jarraituz. Hala ere, ekitaldiaren amaieran indarrean zen Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren 2016ko azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen), aurrekoak indargabetzen zituen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Azken ziurtagiria, 12. espedientean, 1,5 milioi euroan egin da, eta 6,1 milioi euroan esleitutako kontratuaren antzinako prezioaren %10 gainditu du. Horrenbestez, ez da bete SPKLko 217. artikulua. Azken ziurtagiri horren xede den gastua, dagokion prozedura egin gabe gauzatutako aldakuntza bati dagokiona, 2016-07-27 eguneko JKEaren bidez baliozkotu zen (F4 hutsa) (ikus A.18).

2.- 4 milioi euroan esleitutako 49. espedientea lizitatzeko publikotasunik gabeko prozedura negoziatua erabiltzean, ez da aski justifikatu lehiatik salbuestea, SPKLTBko 173.c eta 170.d artikuluei jarraituz (ikus A.18, B1 hutsa).

3.- Ondasun eta zerbitzuen 126 erosketatan, atzeman dugu ez direla izapidetu dagozkien kontratazio prozedurak, eta horrenbestez ez zirela bete publikotasun eta lehia printzipioak. Erosketa horien zenbatekoa, guztira, 4,1 euro da, eta sail hauei dagozkie: Herri Administrazioa eta Justizia (8), Ogasuna eta Finantzak (29), Segurtasuna (5) eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (84).

4.- Jaurlaritzaren Kontseiluaren lau bilkuratan (2016ko martxoaren 22koa, 2016ko uztailaren 27koa, 2016ko azaroaren 15ekoa eta 2017ko apirilaren 25ekoa), 2016ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa onartu dute. Gastu horien zenbatekoa, HKEE honek berrikusitako espedienteak alde batera utzita, 53,4 milioi euro da, eta gastu horien aurkako txostena eman zuen KEBek. Gastu horiek 51,2 milioi euroren 66 zerbitzu kontraturi, 0,5 milioi euroren 3 hornidura kontraturi eta 1,7 milioi euroren 3 obra kontraturi dagozkie. Ez betetze nagusiak izan dira prestazioak egitea zegokien kontratu espedientea izapidetu gabe eta publikotasun eta lehia printzipioei jarraitu gabe, horiek egin beharrekoak bailirateke SPKLTBan ezarritakoari jarraituz (ikus A.18).

Gure ustez, aurrez azaldutako salbuespenak alde batera utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak 2016. ekitaldian arrazoizko eran bete du bere ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2. ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, eta 2016ko aurrekontuaren likidazioan jasotako 1. oharretik 4.era bitartekoetan adierazitakoa aintzat hartuta, honekin batera doazen EAEko Administrazio orokorraren kontuek alderdi nabarmen guztietan erakusten dute 2016ko ekitaldiko ekonomia jarduera, 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza, bai eta egun horretan bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion bere emaitzena eta eskudiru fluxuena ere, aplikagarri den finantza informazioko arau esparruari jarraituz, eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraikiz.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten hutsuneak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

III.1 AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

3.1.1.- VISESA sozietate publikoari emandako diruzaintzako aurrerakinak, aurrekontuz kanpo erregistratu dira guztira 22,9 milioi euroren zenbatekoan. Horien xedea da sozietatearen egoitza eta saltzeke dauden babes ofizialeko etxebizitzaren izakinak aldi baterako finantzatzea. Aurrerakin horiek 2011ko ekitaldian eman ziren, eta urtez urte berrituz joan dira.

Aurrerakin horiek irauteak agerian jartzen du hor badela epe luzeko finantzaketa bat; beraz, Administrazioak aurrekontuan erregistratu beharko lituzke eragiketa horietatik eratorritako betebeharrak.

3.1.2.- Egoeraren balantzeak ez du ibilgetuaren hainbat kontu sail osatzen duten ondasun guztien xehetasun banakaturik, hala nola: instalazio teknikoak, ekipo informatikoak, makineria, tresnak eta altzariak, aplikazio informatikoak, eta abar. Elementuak erositako urtearen arabera taldekatuta erregistratzen dira. Horrela erregistratutako zenbateko osoa 183,3 milioi euro da.

3.1.3.- EA Eren Sektorre Publikoaren Aurrekontu Orokorren eta Urteko Kontuen likidazioan jasotako informazioak EKKLko 8. artikulua eta EAATBko 124. artikulua eskatzen duten gutxieneko informazioa jasotzen du. Gomendagarria litzateke EA Eren sektore publikoa osatzen duten erakunde multzoaren egoera bateratuak barne hartzea, horien guztien ekonomia, finantza eta ondare egoera, eragiketen emaitza eta aurrekontuen likidazioa erakutsiko dutenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 LANGILERIA GASTUAK

3.2.1.- Indarrean diren lanpostu zerrendetan ez daude sartuta 2016ko ekitaldian aurrekontuko zuzkidura zuten 1.188 lanpostu, ondoko xehetasun hauen arabera:

LANGILE MOTA	PLAZA KOPURUA
Justiziako langileak.....	1.025
Hezkuntza Saileko langileak	97
Nekazaritza ganberetatik eta jabetza ganberetatik datozen lan kontratuko lang...	2
Hainbat sailetako langileak	55
Tokiko osasun langile farmazeutikoak eta Osakidetzatik datozenak.....	9
GUZTIRA	1.188

Justiziako langileen plazak Bilboko eta Donostiako bulego judizialei dagozkie. Langileen lanpostu zerrendak onartzea EAEren Administrazio orokorraren egitekoa da, aldez aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren aldeko txostena jasota, Botere Judizialaren 1985eko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 522 artikuluan xedatuta dagoenez.

3.2.2.- Segurtasuneko sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko aginduaren bidez baimendu zen diruz konpentsatzea Ertzaintzako langileei, 2015 eta 2016 urteetan gozatu ez zituzten 4 eta 5 egunerainoko baimenengatik, hurrenez hurren. Ertzaintzako langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenak mugatzen du gehienez hiru egun izan daitezkeela konpentsatuak. 2015ari eta 2016ari dagokien hiru eguneko mugatik gora egindako gastua 1,5 milioi euro izan zen, eta 2016ko iraileko nominan ordaindu zen.

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

Zuzeneko diru-laguntzak

3.3.1.- Administrazio orokorrak JKEren bitartez diru-laguntzak eman dizkie sei onuraduni; onuradun horiek aurreko bi ekitaldietakoren batean ere helburu bererako diru-laguntzak jaso zituzten, 4 zuzenekoak eta 2 izendunak (ikus A.19).

Baldin diru-laguntza horiei datozen ekitaldietan eusten bazaie, komenigarria litzateke dagozkien aurrekontuetan izenez jasotzea.

3.3.2.- A.19 eranskinean adierazitako diru-laguntzak aztertu ditugu, eta alderdi hauek dira aipatzekoak:

Onuradun bati diru-laguntza bat eman zaio, eta onuradun horrek helburu bererako beste diru-laguntza bat jaso zuen, 2016ko ekitaldian bertan emana.

Diru-laguntza batean, 500.000 euroren zenbatekoa ordaindu zen, ea aurkeztutako justifikazioa aski zen egiaztatu gabe. Aztertzean, zehaztu zen justifikatutako gastuak txikiagoak zirela, eta onuradunak 2017ko ekitaldian jasotako soberakoa itzuli zuen (ikus A.19).

Lehiaketari loturiko diru-laguntzak (ikus A.19)

3.3.3.- Diru-laguntzako hamabi lerro arautzen dituen arautegia aztertzean -A.19an dago xehatua-, honako akats hauek azaleratu dira:

- Aztertu diren diru-laguntzako hamabi lerroetatik bostek ez dute helburu, ekintza eta adierazleak zehaztuta onartutako plan estrategikorik, diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua agintzen duenez (B1 hutsa). Gainera, diru-laguntzako hamar lerroetatik hamabitan, gomendagarria litzateke aurrekontuko oroitidazkian adierazleak jartzea, lagundutako proiektu eta enpresa kopuruaren kuantifikatze hutsa egitera mugatu barik, eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeko bidea eman dezaten (B2 hutsa).
- Ingurumena babesteko inbertsioak egitearren enpresetarako diru-laguntzako lerroa arautzen duen 202/2015 Dekretuko 16. artikuluan araututa dago balioztapen batzordearen osaera, baina ez du galdatzen EHAAAn argitaratzea, nahiz eta EAEONALTBeko 49.2 artikulua hala adierazten duen (B3 hutsa). Dekretu horrek berak ez du arautzen beste laguntza batzuekin batera jasotzeko aukera, ez eta horien bateraezintasuna edo gainfinantzaketa saihesteko mugak ere (B4 hutsa).

3.3.4.- EAEko cluster erakundeetarako laguntzak emateko lerroaren berrikuspenean (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko apirilaren 13ko aginduaren bidez arautua), lerroari oro har eragiten dioten ondorengo huts hauek egiaztatu dira (B5 hutsa):

- Ebaluatze organoaren osaera ez dator bat agindu arautzailean ezarritakoarekin.
- Ebaluatze organoak erabaki du irizpide batzuk aplikatzea, diru-laguntzak erabilgarri dagoen aurrekontuari egokitzeko, 2016an jaso beharreko diru-laguntza 2015ean jasotakoari lotuta. Irizpide guztiak deialdiaren oinarrietan agertu behar dira, eta ezin dira eskaeren unean ezagunak ez diren geroagoko uneetan onartu.
- Emate ebazpenean ez daude zehaztuta laguntza jaso ditzaketan ekintzak, eta ez zaizkio jakinarazten onuradunari.

EAEko cluster erakundeetarako laguntzak emateko sei espediente nagusiak —emandako zenbateko osoaren % 52— aztertzean, huts hauek atzeman ditugu:

- Espediente batean, ez zegoen jasota cluster erakundearen plan estrategikoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Aztertutako espedienteetako batean ere ez dago jasota emandako diru-laguntzaren likidazio ebazpena, ez eta Diru Laguntzen Lege Orokorreko 31.3 artikulua bete izana ere, aholkularitzako eta beste zerbitzu batzuetako gastuen hornitzaileak hautatzea justifikatzeari dagokionez.
- Espedienteetako batean baino ez dira justifikatu langileria gastuak, arautzeko aginduko 13.1 artikuluari jarraituz.
- Bi espedientetan, cluster erakundekoak ez diren langileen gastuak sartu dira.
- Lau espedientetan, kanpo gastuen justifikazio txikiagoa dago, justifikazioa osatzeko langileria gastuen kantitate handiagoa jarrita.
- Lau espedientetan, ebaluatze erakundearen emate proposamenari jarraituz diruz laguntzeko onartuta ez zeuden zenbait ekintzaren justifikazioak onartu dira.

III.4 KONTRATAZIOA

Ekitaldi honetan egikaritu diren eta lehenagoko ekitaldietan esleitu ziren 27 espedienteko lagina eta 2016an esleitutako 24 espedienteko lagina aztertu dugu. Aztertutako espedienteen zerrenda A.18 eranskinean dago zehaztuta.

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Guztira 318,1 milioi euroan esleitu diren bost espedientetan (1, 3, 6, 8 eta 15 zenbakiak) 1 hilabetetik 1,5era bitarteko atzerapenez hartu dira ontzat obrak, SPKLko 205.2 artikuluan eta SPKLTBko 222.2 artikuluan markatutako hilabeteko epearen gainetik (F1 hutsa).
- Guztira 293,3 milioi euroan esleitu diren bost espedientetan (2, 3, 6, 15 eta 16 zenbakiak), gainditu egin da hiru hilabeteko epea, obrak ontzat hartzen direnetik azken egiaztapenaren onarpenerako SPKLko 205.2 artikuluan eta SPKLTBko 222.2 artikuluan finkatua. Atzerapenak 3 eta 14 hilabete bitartekoak izan dira (F2 hutsa).
- 6. espedientea 97,1 milioi euroan esleitu zen, eta 5 milioi euroren aldakuntza bat egin zen. Aldakuntza horretan ez da justifikatu proiektatutako jarduketa guztiak ustekabeko kausei zor zaizkienik, eta ez SPKLko egokitasun irizpideei (202.1 artikulua) (F3 hutsa).
- 14. espedientea 18,4 milioi euroan esleitu zen, eta ontzat hartu zen 2015eko abenduaren 15ean. 2016ko apirilaren 20an, azken ziurtapena egin zen, 2015ean egikaritu zen eta 1 milioi euroren zenbatekoa zuen obra sartuta. Horrek esan nahi du ez zela egin SPKLTBko 232.1 artikuluan ezarritako hileko ziurtapena (F5 hutsa).



III.4.2 2016AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

- Hiru espedientetan (29, 32 eta 51 zenbakiak, 9,2 milioi euroan esleituak), proiektuaren zuinketa proiektua onartu baino lehen; hori ez du onartzen SPKLTBko 126.1 artikulua (A1 hutsa).
- Bost espedientetan (36, 37, 47, 48 eta 51 zenbakiak, 86,8 milioi euroan esleituak), ekonomia eskaintzaren irizpidea balioztatzeko erabilitako formula matematikoak puntuazioa ematen die lizitazio prezioa berdintzen duten eskaintzei (A2 hutsa).
- 45,8 milioi euroan esleitutako espediente batean (34 zenbakia), baldintza agirian irizpide generikoak jaso dira, hala nola eskaintzaren balio teknikoa, kalitatea eta zerbitzua, eta abar. Gainera, ez dago balioztatze metodologiarik (A3 eta A4 hutsak).
- 48 zenbakiko espedientean (12 milioi euroan esleituak), baldintza agiriak xede zehaztugabeko luzapenak aurreikusten dituzte; izan ere, hasierako kontratuko xedea alda daiteke, SPKLTBko 23.2 artikuluarik kontra eginda (A5 hutsa).
- 16 milioi euroan esleitutako 48 eta 49 zenbakiko espedienteetako baldintza agiritan aurreikusitako aldakuntzetan, horiek erabiltzeko baldintzak ez daude modu garbi, zehatz eta agerian adierazita, nahiz eta hala ezarrita dagoen SPKLTBko 106 artikuluan (A6 hutsa).
- Sei espedientetan (28, 29, 30, 31, 32 eta 34 zenbakiak, 68,9 milioi euroan esleituak), proposamenak ireki zirenetik esleipena egiteko epeak 1 eta 10 hilabete bitarteko aldiaz gainditu zuen SPKLTBko 161.2 artikuluan xedatutako 2 hilabeteko epea (C1 hutsa).
- Bi espedientetan (34 eta 35 zenbakiak, 50,4 milioi euroan esleituak), ez da eskatutakoari aldizkari ofizialetan kontratuen formalizazioaren arazuko argitaratzea egin, hala egitea markatzen baitu SPKLTBko 154.2 artikulua (C2 hutsa).
- Bi espedientetan (34, eta 37 zenbakiak, 112,5 milioi euroan esleituak), txosten teknikoek ez dituzte aski arrazoi eman emandako puntuazioetarako (C3 hutsa).
- 3,5 mila euroan esleituriko 38 zenbakiko espedientean, 148.950 euroren 2. loteari dagokion kontratua burutu eta gero, kontratua desegin zen, esleipendunak uko egin ziolako. Ondoren, hurrengo lizitatuazileari esleitu zitzaion, baina beste prozedura bat abiatu behar izango zatekeen, SPKLTBko 223. artikulutik 225.era bitartekoei jarraituz (C4 hutsa). Espediente horretako bertako beste lote batean, baldintza agiritan jaso gabeko aldakuntza bat egin da (D1 hutsa), SPKLTBko 107.3.b artikuluko baldintzak betetzen ez dituenak.
- Bi espedientetan (41 eta 42 zenbakiak, 6 milioi euroan esleituak), ondorengo epe hauek gaindituta: hilabeteko epea, obra egikaritzeko agindua eman zenetik obra hasi zen arte, eta bi hilabeteko epea, kontratistak enkargua onartu zuenetik Gobernu Kontseiluari komunikatu zitzaion arte. Epe horiek SPKLTBko 113.1.e eta 113.1.b artikuluetan ezarrita daude, hurrenez hurren, larrialdiko izapideetarako (D2 eta E1 hutsak).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

- Ondasun eta zerbitzuen 75 erosketatan, atzeman dugu zuzenean egin direla, nahiz eta duten zenbatekoagatik eskaintzak eskatu eta gero egin beharrekoak ziren. Erosketa horien zenbatekoa, guztira, 739.236 euro da, eta sail hauei dagozkie: Segurtasuna (24), Osasuna (10), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (29), Herri Administrazioa eta Justizia (11) eta Ingurumena eta Lurralde Politika (1).
- Guztira, 2,9 milioi euroren gastuak aurkitu ditugu, 57 hirugarreni dagozkienak, eta, nahiz eta ez diren iristen lehia sustatuz kontratatzeko behar den gutxienekora, aleko prezioz edo hornitzaileak homologatzeko prozeduraz lizitatzeko taldekatu litezke. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren obra txikiei dagozkie.

III.5 ABALAK

Aztertu ditugun sei espedientek, Berne Publiko bidez Aparteko Finantzaketa Lerroari dagozkion abalen emakida guztiaren gainean % 75 egin dute. Lerro hori Administrazio Orokorren eta hainbat finantza erakunderen artean 2012ko uztailearen 5eko hitzarmen bidez ezarri zen eta 2016ko ekitaldian indarrean izan da. Espediente horiek aztertzean, ondorengo egoera hauek azaleratu dira, hitzarmenaren baldintzak betetzean eragina dutenak:

- Administrazioak ez du EHAAn onuradunen zerrenda argitaratu, emandako abalen zenbatekoaren, laguntzaren zenbatekoaren eta minimis izaeraren informazioa emateko (2015eko uztailearen 27ko 151/2015 Dekretuko 11.4 artikulua).
- Ez da egiaztatu enpresa gauzatzeke dagoen berreskuratze agindu baten pean dagoenik, laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateragarri ez dela adierazten duen Europako Batzordearen aurretiko erabaki baten eraginez; horrek laguntza mota hori ukatzea ekarriko luke.
- Ea enpresa txiki edota ertain izaera duen zehazteko, onuradunak egindako erantzukizuneko adierazpenean jasotako datuak soilik hartuko dira kontutan. Gomendagarria litzateke administrazioak baldintzatuz ezartzea urteko kontuak aurkez ditzaten.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Administrazio Orokorrak 2016ko ekitaldian egindako ordainketak aztertzean, ikusi da merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epea 29 egunekoa izan dela. Horrenbestez, bete da merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako gehieneko 30 eguneko epea. Hala ere, egindako ordainketen %33k -212 milioi eurorenak- gainditu egin du epe hori.
- Beste alde batetik, 2014ko uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuko (Administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia garatzeko dekretua) 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, 2,1 da ratio orokorra. -Horrek esan nahi du, batez beste, 2016an hornitzaileei ordainketak 27,9 eguneko epean egin zaizkiela, arau horretan ezarritako 30 eguneko gehienekotik 2,1 egun beherago.



IV. FINANTZA ANALISIA

Ondoko taulan jasota dago aurrezki gordinak, emaitza arruntak eta aurrekontuko saldoak azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera:

	2013	2014	2015	2016	Milioi euro	
					2016/2015	
					Aldea	%
Sarrera arruntak (1)	8.172,8	8.631,3	8.759,5	9.059,5	300,0	%3,4
Zeharkako zergak (*)	6,1	5,7	3,9	3,9	0,0	%0,0
Tasak eta beste	195,7	213,4	180,4	181,6	1,2	%0,7
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	7.923,0	8.364,1	8.539,8	8.837,8	298,0	%3,5
Ondare sarrerak	48,0	48,1	35,4	36,2	0,8	%2,3
Gastu arruntak (2)	8.072,1	8.304,1	8.422,1	8.668,9	246,8	%2,9
Langileria gastuak	1.867,8	1.884,6	1.929,5	1.972,1	42,6	%2,2
Funtzionamendu gastuak	3.201,3	3.285,7	3.308,8	3.388,3	79,5	%2,4
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	3.003,0	3.133,8	3.183,8	3.308,5	124,7	%3,9
Aurrezki gordina (3=1-2)	100,7	327,2	337,4	390,6	53,2	%15,8
Finantza gastuak (4)	222,0	251,8	231,1	201,6	(29,5)	(%12,8)
Emaitza arrunta (5=3-4)	(121,3)	75,4	106,3	189,0	82,7	%77,8
Inbertsio garbiak (6)	624,3	680,9	642,2	681,0	38,9	%6,1
Inbertsio errealak	452,7	332,0	206,9	228,9	22,0	%10,6
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	457,7	600,8	542,1	581,6	39,5	%7,3
Finantza-aktiboen gehikuntza	175,1	85,0	73,0	111,3	38,3	%52,5
Inbertsio errealak besterentzea	0,0	(2,0)	(1,5)	(1,0)	0,6	(%40,0)
Jasotako kapitalezko transfer. eta diru lag.	(397,7)	(298,8)	(125,7)	(173,2)	(47,5)	%37,8
Finantza-aktiboen gutxitzea	(63,5)	(36,1)	(52,6)	(66,6)	(14,0)	%26,6
Jaulkitako zor garbia (7)	975,4	659,5	476,7	533,7	57,0	%12,0
Finantza-pasiboen gehikuntza	1.175,3	1.139,3	1.163,0	1.106,0	(57,0)	(%4,9)
Finantza-pasiboen gutxitzea	(199,9)	(479,8)	(686,3)	(572,3)	114,0	(%16,6)
Aurrekontu arrunteko emaitza (8=5-6+7)	229,8	54,0	(59,2)	41,7	100,8	(%170,3)
Ekitaldi itxietako emaitza (9)	25,2	13,3	(21,1)	(80,0)	(58,9)	%279,1
Ekitaldiko aurrekontu saldoa (8+9)	255,0	67,3	(80,3)	(38,4)	41,9	(%52,2)

Sarrera arruntak % 3,4 handitu dira aurreko ekitaldiaren aldean; gastu arruntak, aldiz, % 2,9 gehitu dira. Horri esker, ekitaldian 390,6 milioi euroren aurrezki gordina sortu da, 2015ean lortutakoa baino 53,2 milioi euro handiagoa.

Sarrera arruntek 300 milioi euroren igoera izan dute; nagusiki, foru aldundiek ekarpen handiagoa egin dutelako: aurreko ekitaldian baino 296 milioi euro gehiago.



Gastu arruntak 246,8 milioi euroan handitu izanaren arrazoiak honako hauek dira:

- Langile gastuak 42,6 milioi euroan gehitu izana, batik bat % 1eko soldata igoeragatik, 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta osagarria kendu izanaren ondorioz ordaintzeko dauden zenbatekoen zati bat itzultzeagatik, 2016ko irailean 2016ko lan eskaintza publikoa gaintitu zuten bigarren irakaskuntzako irakasle kidegoko praktiketako 527 funtzionario izendatzeagatik, eta 2016ko abuztuan 25. promozioko praktiketako 250 ertzain izendatzeagatik.
- Funtzionamendu gastuek izandako 79,5 milioi euroren igoera (ikus A.4). Kapitulu honetan izandako gastu gehikuntza nagusia, aurreko ekitaldiaren aldean, Osakidetzako zentroena (ospitaleak eta eskualdeak) izan da, 70,8 milioi euroren gehikuntzarekin.
- Transferentzia eta diru-laguntza arruntetan 124,7 milioi euroren igoera, honen ondorioz:
 - Sektore publikoari egindako transferentziak 52 milioi euroan igo izana. Igoeraren osagai nagusiak izan dira EAeko Administrazio orokorraren parte hartzea Arabako Foru Aldundira bideratutako Doikuntza Funts Orokorrean, 2015eko kontu sailaren aldean 14,9 milioi euroren gehikuntza izan baita; Euskal Herriko Unibertsitateari egindako transferentzia 11,2 milioi euroan handitu izana; Euskal Irrati Telebistaren gastuak ordaintzeko kontu saila 8,5 milioi euroan handitu izana; eta Eusko Trenbideak sozietate anonimoari egindako transferentzia 8,1 milioi euroan handitu izana, Bilboko metroaren 3. linearen kudeaketa bere gain hartu duelako.
 - Sektore pribatuari emandako diru-laguntzak 72,7 milioi euroan igo izana. Igoera nabarmenenak izan dira nekazaritza eta itsasbazter sektoreari emandako laguntzetan, aurreko ekitaldiaren aldean 25 milioi euroan handitu baitira. Hezkuntza itunak finantzatzeko kontu sailak 22,1 milioi euroan handitu dira; bereziki aipagarria da lanbide heziketako zentroekiko hezkuntza itunetara bideratutakoa, 2015eko ekitaldian bideratutakoa baino % 15 handiagoa izan baita.


Inbertsio garbiak 38,9 milioi euroan handitu dira. Hona hemen magnitude hau osatzen duten idazpuruetakoko bakoitzean izandako aldakuntza nagusiak:

- Egiatzko inbertsioek 22 milioi euro egin dute gora, ETSBaren Gipuzkoako bide zatiak egikaritze handiagoa izan duelako gehienbat.
- Emandako kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzak 39,5 milioi euroan gehitu dira, sektore publikorako kontu sailak 38,9 milioi euroan gutxitu direlako, eta sektore publikora bideratuak 78,4 milioi euroan gehitu direlako. Sektore publikorako transferentziak gutxitzearen arrazoi nagusia da ETSri ETSBrako egindako transferentziak gutxitu izana. Sektore pribaturako diru laguntzen gehikuntzaren funtsezko arrazoiak izan da gehitu egin direla irabazi asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako kontu sailak, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elkartek eta Emaitek programengatik, 2015eko eta 2016ko deialdiak jaso baitituzte.

- «Finantza-aktiboen igoera» gastuen kapitulua 38,3 milioi euroan gehitu da. Horren arrazoi nagusiak izan dira inbertsiorako finantza laguntzarako programa berri baterako berme funts bat eratu izana, 30 milioi euroren zenbatekoarekin; Euskal Irrati Telebistari egindako ekarpena, 2010-2015 aldiko langileen atzerapenak eta soldata-osagarriak ordaintzeko, 5,3 milioi euroren zenbatekoarekin; eta San Mamés Barria sozietate mugatuaren kapital zabalkuntza bat, 5 milioi eurorena.
- Jasotako kapitalezko transferentzia eta diru laguntzek 47,5 milioi euroren gehikuntza izan dute, gehienbat Europar Batasunetik 28,9 milioi euro jaso direlako, Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsetik (2015ean ez baitzen hortik diru sarrerarik jaso), eta Estatuko Administrazio Orokorretik datozen transferentziak 15,7 milioi euroan handitu direlako 2015eko ekitaldiaren aldean, ETSBren Gipuzkoako bide zatiko obrak neurri handiagoan egikaritu izanaren ondorioz.
- «Finantza-aktiboen gutxitzea» sarreraren kapitulua 14 milioi euroan gehitu da, batik bat foru aldundiei egindako maileguaren urteko amortizazioarengatik; izan ere, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek alde aurretik amortizatu dute ordaintzeke zegoen kapital osoa.

Hona hemen adierazle nagusien bilakaera, grafikoan jasota:

AURREZKI GORDINA, INBERTSIO GARBIA ETA JAULKITAKO ZOR GARBIA





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azken lau ekitaldietan, diruzaintza geldikinaren eta formalizatutako zorpetzearen bilakaera honako hau izan da:

	Euroak, milioikotan				
	2013	2014	2015	2016	Bariazioa 2016/15
DIRUZAINZA GELDIKINAREN BILAKAERA					
Diruzaintzako geldikina	372,6	439,9	359,6	321,2	(38,4)
Zuzkidurak eta doiketak.....	171,1	211,5	204,9	146,1	(58,8)
Diruzaintzako geldikin erabilgarria	201,5	228,4	154,7	175,1	20,4
ZORPETZEAREN BILAKAERA					
Erabilitako zorra (balio nominala).....	7.091,8	7.752,0	8.230,7	8.768,4	537,7
Erabili gabeko zorra.....	-	-	-	-	-
Formalizatutako zorpetzea	7.091,8	7.752,0	8.230,7	8.768,4	537,7

Diruzaintza geldikina 38,4 milioi euro gutxitu da, baina diruzaintza geldikin erabilgarria 20,4 milioi euroan handitu da, zuzkidura eta doiketak txikiagotu direlako.

Erabilitako zorra 537,7 milioi euroan urritu zen, eta 2016ko ekitaldia ixtean 8.768,4 milioi euro zen (ikus A.15).

Ekitaldiko emaitza arrunta, zorraren gehikuntzarekin batera, aski dira inbertsio garbia finantzatzeko. Hala ere, ekitaldiko emaitza negatiboa da, aurreko ekitaldietako hondarrak deuseztatu direlako.

AURREKONTU EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK BETETZEA

AEFILOk arautzen ditu Administrazio publikoen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko alderdiak. Lege organiko horretako hirugarren azken xedapenean zehaztuta dagoenez, lege horretan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzean, aintzat hartu behar da Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoa.

Bestalde, EAErekiko Kontzertu Ekonomikoa onesten duen 12/2002 Legeko (2002ko maiatzaren 23koa) 48. artikuluan aurreikusita dago Estatuarekiko koordinazioa eta kolaborazioa, aurrekontu egonkortasunaren gain. Lege bereko 62. artikulua, bestetik, EIBMaren egitekoen artean ezarri du aurrekontu egonkortasunaren gaitan kolaborazio eta koordinaziorako konpromisoa hitzartzeko egitekoa.

2015-2018 Egonkortasunari buruzko Programa eguneratzeak aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburuak berrikustea eragin zuen. Hori dela eta, 2016ko urtarrilaren 18an Estatuak eta EAEk egindako hitzarmenean, aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuetan ezarritako mugak hauek izan ziren, hurrenez hurren: -% 0,3 eta % 14, BPGaren gainean.



2016ko abuztuan, Europar Batasuneko Kontseiluak Espainiarako zerga finkapeneko bidea aztertu zuen, gehiegizko defiziteko prozeduraren esparruan. Defizit hori zuzentzeko epea luzatu zuen, eta mailaz mailakoago doikuntza bat adierazi zuen 2016-2018 aldirako. Horregatik, 2016ko abenduaren 20an Estatuaren eta EAEn arteko beste hitzarmen bat izenpetu zen, aurrekoa aldatzen zuena; behin betiko ezarri ziren BPGaren gaineko $-0,7\%$ eta $14,6\%$ mugak, 2016ko ekitaldiko aipatu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuei dagokienez. Hitzarmen hori eta 2014ko abenduaz geroztik egindakoak EIBMaren 2017ko maiatzaren 17ko hitzarmenean berretsi dira.

AEFILOko 17. artikuluan xedatutakoari jarraituz, 2017ko apirilean eta urrian Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak egindako aurrekontu egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu arauko helburuen betetze mailari buruzko txostenek adierazten du EAEk bete dituela 2016ko ekitaldirako ezarritako aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak. Hala ere, txosten biek adierazten dute ez dela bete gastu araua. Hartara, 2017ko urriko txostenean, EAeko Administrazio orokorraren gastu konputagarria $2,8\%$ hazi da, baina 2016ko ekitaldirako muga $1,8\%$ zen.

Gastu araua ez betetzearen ondorioz, AEFILOko 21. artikuluan aipatutako Ekonomia eta Finantza Plana prestatu behar izan du EAEk. Plan horren aldeko txostena eman zuen Zerga Erantzukizuneko Agintaritza Independentek 2017ko uztailaren 6an, eta EIBMak hil beraren 19ko bileran onartu zuen.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. 2016 EKITALDIKO KONTUAK 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

AURREKONTU ARRUNTA							Euroak, milioikotan
SARRERAK KAPITULUA	HASIER. AURREK.	ALDAK.	B. BETIKO AURREK.	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBRATUA	KOBRATU GABEA	
2. Zeharkako zergak	4,4	-	4,4	3,9	2,9	1,0	
3. Tasak eta bestelako sarrerak (A.8)	79,5	74,0	153,5	181,6	145,6	36,0	
4. Transf. eta diru lag. arruntak (A.9)	9.178,2	46,8	9.225,0	8.837,8	8.726,5	111,3	
5. Ondare sarrerak	2,3	0,2	2,5	36,2	36,1	0,1	
6. Inbertsio errealak besterentzea	1,5	-	1,5	1,0	1,0	-	
7. Kapitalezko diru lag. eta transf. (A.10)	382,5	3,7	386,2	173,2	106,5	66,7	
8. Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11)	54,1	78,9	133,0	66,6	63,7	2,9	
9. Finantza-pasiboen gehikuntza (A.15)	1.230,8	-	1.230,8	1.106,0	1.106,0	-	
GUZTIRA	10.933,3	203,6	11.136,9	10.406,3	10.188,3	218,0	

Euroak, milioikotan						
GASTUAK KAPITULUA	HASIER. INICIAL	ALDAK.	B. BETIKO AURREK.	OBLIGAZ. AITORTUAK	ORDAIND. ORDAIND.	ORDAIND. GABEA
1. Langileria gastuak (A.3)	1.995,8	1,7	1.997,5	1.972,1	1.968,7	3,4
2. Funtzionamendu gastuak (A.4)	3.290,7	154,6	3.445,3	3.388,3	3.107,1	281,2
3. Finantza gastuak (A.15)	279,0	(77,2)	201,8	201,6	201,6	-
4. Transf. eta diru lag. arruntak (A.5)	3.279,0	79,9	3.358,9	3.308,5	3.167,7	140,8
6. Inbertsio errealak (A.6)	497,4	(12,4)	485,0	228,9	183,5	45,4
7. Kapitalezko diru lag. eta transf. (A.5)	616,6	23,8	640,4	581,6	401,6	180,0
8. Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7)	82,5	33,2	115,7	111,3	105,9	5,4
9. Finantza-pasiboen gutxitzea (A.15)	892,3	-	892,3	572,3	572,3	-
GUZTIRA	10.933,3	203,6	11.136,9	10.364,6	9.708,4	656,2

AURREKONTU ITXIAK (A.12)					Euroak, milioikotan
	ESKUB./ZOR OBLIG. (2015-12-31)	KOBR./ ORDAINK.	ESKUB./ZOR OBLIG. BALIOGAB.	ESKUB./ZOR OBLIG. (2016-12-31)	
Diru sarrerak	1.152,8	97,0	84,0	971,8	
Gastuak	621,8	596,2	4,0	21,6	

KONPROMISO KREDITUAK (A.17)				Euroak, milioikotan
KAPITULUA	HASIERA URTEA			
	AURREKO URT.	2016	GUZTIRA	
Langileria gastuak	-	6,5	6,5	
Funtzionamendu gastuak	40,0	152,3	192,3	
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	119,5	102,7	222,2	
Inbertsio errealak	158,9	98,2	257,1	
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	265,4	180,3	445,7	
Finantza-aktiboen gehikuntza	297,6	26,4	324,0	
GUZTIRA	881,4	566,4	1.447,8	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- 1. oharra** EAeren Administrazioako diruz lagungarri diren gastuak diru-laguntzak ematen diren unean erregistratzen dira, eta aplikatuko zaien aurrekontu erregimena aurre egin beharreko ordainketei edota diru-laguntza edo laguntzaren baldintzak egiaz betetzeari dagokionez egokien diren kreditu motaren arabera izango da, ordainketazkoa edo konpromisozkoa, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak ezarritako irizpideari jarraikiz. Irizpide horren ondorioz, 2016ko abenduaren 31n badira oraindik eskagarriak ez diren ordainketa obligazioak, 50,5 milioi euroren zenbatekoa egin dutenak.
 - 2. oharra** 2016ko abenduaren 31 arte jasotako funts komunitarioetatik 625,3 milioi euro Europar Batasunak ikuskatu ditzake, eta ezinezkoa da zehaztea finantzatutako proiektuen berrikuspenak diruzaintza geldikinarene gainean izan lezakeen eragina. Nolanahi ere, iragan esperientzia oinarri hartuta, ez dirudi eragin hori adierazgarria izan litekeenik.
 - 3. oharra** Zorpetze publikoari dagozkion sortutako eta iraungi gabeko interesak (81,3 milioi euro) urteko kontuetan erregistratzen dira eta ondarearen emaitza ekonomikoaren zati dira. Aurrekontuaren gauzatzeak ez du zenbateko hori islatzen, izan ere, interesen gastuak kutxa irizpideari jarraikiz erregistratzen baititu.
 - 4. oharra** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantza planean (Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzkoa) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrek 2017-2027 aldian 378,8 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusi da. Ekarpene hori urte horietako EAeko Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko dira, ekitaldi bakoitzean Partzuergoari egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.
-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZORPETZEA	Euroak, milioikotan
Saldoa, 2015-12-31n	8.230,7
Zor jaulkitzea (balio nominala)	810,0
Mailegu berrien erabilera (balio nominala)	300,0
Amortizazioa	(572,3)
Saldoa, 2016-12-31n (balio nominala) (A.15)	8.768,4

2016KO EMAITZA, ETA DIRUZAINZAKO GELDIKINA 2016-12-31N	Euroak, milioikotan
Diruzaintzako geldikina, 2015-12-31n	359,5
2016ko ekitaldiko aurrekontu emaitza.....	(38,3)
Aurrekontu arruntaren emaitza	41,7
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza (A.12)	(80,0)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA (2016-12-31)	321,2

DIRUZAINZAKO GELDIKINAREN GAUZATZEA (2016-12-31)	Euroak, milioikotan
DIRUZAINZAZA (A.13)	616,4
KOBRATZETZEA	1.227,4
Indarrean den ekitalditik kobratzeke dauden eskubideak	218,0
Itxitako ekitaldietatik kobratzeke dauden eskubideak	971,8
Zordunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	37,6
ORDAINTZEKE	(1.522,6)
Indarrean den ekitaldiko ordaintzeke dauden obligazioak.....	(656,2)
Itxitako ekitaldietako ordaintzeke dauden obligazioak	(21,6)
Hartzekodunen aurrekontuz kanpoko saldoak (A.14)	(844,8)
DIRUZAINZAKO GELDIKINA (2016-12-31)	321,2

DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA (2016-12-31)	Euroak, milioikotan
Diruzaintzako geldikina, 2016-12-31n	321,2
Atxikitako geldikina:	
Ikastetxe publikoetarako geldikina.....	(42,1)
Zalantzazko kobrantzako eskubideak	
Bestelako eskubide aitortuak	(44,4)
Diru bilketa, betearazte bidean.....	(17,8)
Exekutututako abalek eragindako erreklamazioak (A.16)	(41,8)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA (2016-12-31)	175,1



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

URTEKO KONTUAK

BALANTZEA	Euroak, milioikotan				
AKTIBOA	2016	2015	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA (A.20)	4.471,1	4.495,9	ONDARE GARBIA	(4.089,1)	(3.549,3)
Ibilgetu ukiezina.....	54,1	63,4	Sortutako ondarea.....	(4.299,6)	(3.767,0)
Ibilgetu materiala.....	2.750,1	2.772,8	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(3.767,0)	(3.183,0)
Epe luz. finantza inb., taldeko erakundeetan	1.406,8	1.361,5	Ekitaldiko emaitzak.....	(532,6)	(584,0)
Epe luz. finantza inbertsioak.....	227,9	265,8	Bst. ondare igoerak, emaitz. egozteke	210,5	217,7
Zord. eta kobratz. bst. kntu batzuk epe luz.	32,2	32,4	ZIRKULATZAILEA EZ DEN PASIBOA	8.765,7	8.257,0
AKTIBO KORRONTEA	2.457,7	2.732,0	Epe luz. zuzkidur	42,3	71,3
Izakinak.....	717,9	1.136,6	Epe luz. zorrak (A.15).....	8.716,8	8.178,7
Zordunak eta kobratzeko bst. kontu batzuk	1.091,1	1.003,9	Hartzekod. eta ordain. bst. knt batz epe luz.	6,6	7,0
Epe lab. finantza inb., taldeko erakundeetan	22,9	27,1	PASIBO ARRUNTA	2.252,2	2.520,2
Epe lab. finantza inbertsioak.....	9,4	1,0	Epe laburreko zorrak.....	155,5	144,6
Eskudirua eta aktibo likido baliokid. (A.13)	616,4	563,4	Taldeko erakundeekiko zorrak, epe lab. ...	495,4	471,2
			Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk.....	1.601,3	1.904,4
AKTIBOA, GUZTIRA	6.928,8	7.227,9	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	6.928,8	7.227,9

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak, milioikotan	
	2016	2015
Zerga sarrerak.....	20,4	19,7
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	8.876,9	8.548,9
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea.....	522,6	288,1
Amaitutako eta abian diren produktuen izakinen bariazioa eta balioaren narriadura.....	(369,9)	(148,6)
Kudeaketa arrunteko beste sarrerak.....	119,9	114,9
Hornidura gehiegizkoak.....	29,7	19,3
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA	9.199,6	8.842,3
Langileria gastuak (A.3).....	(1.972,1)	(1.929,5)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(3.935,0)	(3.740,4)
Zuzkidurak.....	(137,0)	(122,6)
Kudeaketa arrunteko beste gastuak.....	(3.369,4)	(3.298,8)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(109,9)	(115,9)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA	(9.523,4)	(9.207,2)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKI EZA)	(323,8)	(364,9)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa eta salgai diren Arruntak ez diren beste kontu sailak.....	11,4	14,7
aktiboak besterenganatzearen emaitzak.....	(9,9)	1,6
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(322,3)	(348,6)
Finantza sarrerak.....	43,3	43,5
Finantza gastuak.....	(191,1)	(220,4)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza.....	-	(2,9)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....	(62,5)	(55,6)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(210,3)	(235,4)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKI EZA)	(532,6)	(584,0)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

1.- ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA, GUZTIRA

Euroak, milioikotan

	SORTUTAKO ONDAREA	BESTE ONDARE	
		IGOERA BATZUK	GUZTIRA
ONDARE GARBIA, 2015EKO EKITALDIAREN BUKAERAN	(3.767,0)	217,7	(3.549,3)
2016KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZAK	(532,6)	(7,1)	(539,7)
Ekitaldian aitortutako sarrera eta gastuak	(532,6)	(7,1)	(539,7)
ONDARE GARBIA, 2016KO EKITALDIAREN BUKAERAN	(4.299,6)	210,6	(4.089,1)


2.- AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA

Euroak, milioikotan

	2016	2015
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKI EZA)	(532,6)	(584,0)
Ondare garbian jasotako aitortutako sarrera eta gastuak		
Bestelako ondare gehikuntzak	3,1	9,6
Ondare emaitza ekonomikoaren kontura edo kontu sailaren hasierako baliora transferentziak		
Bestelako ondare gehikuntzak	(10,2)	(5,9)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK, GUZTIRA	(539,7)	(580,3)



ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA	Euroak, milioikotan	
	2016	2015
KUDEAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Kobrantzak	9.113,9	9.002,2
Zerga sarrerak	21,6	20,0
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	8.911,1	8.782,5
Salmenta garbiak eta zerbitzu egiteak	15,3	33,2
Interes eta dibidendu kobratuak	34,0	32,8
Bestelako kobrantzak	131,9	133,7
Ordainketak	9.527,1	9.304,3
Langileria gastuak	1.967,1	1.915,7
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	3.832,0	3.758,1
Zuzkidurak	129,0	145,3
Bestelako kudeaketa gastuak	3.383,3	3.241,1
Ordaindutako interesak	199,5	229,7
Beste ordainketa batzuk	16,2	14,4
Aurrekontukoak ez diren beste kobrantza eta ordainketa batzuk	26,4	61,5
Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(386,8)	(240,6)
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Kobrantzak	99,2	56,5
Inbertsio errealeen salmenta	2,1	1,5
Finantza-aktiboen salmenta	68,3	48,4
Inbertsio jardueretako beste kobrantza batzuk	28,8	6,6
Ordainketak	217,2	158,4
Inbertsio errealeen erosketa	97,2	80,9
Finantza-aktiboen erosketa	108,0	73,9
Inbertsio jardueretako beste ordainketa batzuk	12,0	3,6
Inbertsio jardueretako eskudiru fluxu garbiak	(118,0)	(101,9)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRU FLUXUAK		
Finantza-pasiboak jaulkitzeagatiko kobrantzak	2.959,3	4.043,8
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	806,0	423,0
Jasotako maileguak	2.153,3	3.620,8
Finantza-pasiboak itzultzeagatiko ordainketak	2.422,3	3.491,3
Obligazioak eta beste balio negoziagarri batzuk	458,5	560,0
Jasotako maileguak	1.963,8	2.931,3
Finantzaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak	537,0	552,5
Erakunde autonomoekiko zorren aldakuntza	20,8	(4,6)
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA		
ESKUDIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	53,0	205,4
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit. hasieran	563,4	358,0
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekit amaieran	616,4	563,4



ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Jarraian jasota daude 2016an EAEren Administrazio orokorraren aurrekontuen ekonomia kudeaketari eta likidazioari eragiten dieten arau nagusiak:

- 6/1989 Legea, 1989ko uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 14/1994 Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzkoa (EKKL).
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, 1997ko azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duena (EAEONALTB).
- 38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, 2011ko maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen duena (EAATB).
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena (SPKLTB).
- 2012ko ekainaren 25eko agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 9/2015 Legea, 2015eko abenduaren 23koa, EAEren 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 14/2016 Legea, 2016ko abenduaren 22koa, 2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak onesteko legea aldatzen duena.

Aurkeztutako kontuetan sartuta daude kontu ematearen prozesua arautzen duen EAATB legegintzako dekretuko 124. artikuluan zehaztutako informazioa eta egoerak:

- Ekitaldiko emaitzak: aurrekontu arruntaren eta aurreko ekitaldietako eragiketengatiko superabita edo defizita.
- Ekitaldiko diruzaintzako kontua.
- Ekitaldiko likidazioko kontua.
- Programatutako aurrekontu helburuen betetze mailaren oroitidazkia.

Gainera, Jaurlaritzak 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkezten ditu. Hor sartuta daude balantzea, ondare emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiko aldaketen egoera, eskudiru fluxuen egoera, eta oroitidazkia, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko aginduz onetsitako EAEKPP planean ezarritakoari jarraituz.

A.2 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian egindako aurrekontu kredituen aldaketak:

GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK					Euroak, milioikotan	
KAPITULUAK	TXERTA- KETAK	GAI- KUNTZAK	TRANSFERENTZIAK NORAKOA JATORRIA	ALDAK. GUZTIRA		
1. Langileria gastuak.....	-	0,9	37,5	(36,7)	1,7	
2. Funtzionamendu gastuak	-	81,7	493,9	(421,0)	154,6	
3. Finantza gastuak	-	-	0,5	(77,7)	(77,2)	
4. Transferentzia eta diru-laguntza arruntak ..	2,2	38,4	115,7	(76,4)	79,9	
6. Inbertsio errealak.....	-	2,7	52,3	(67,4)	(12,4)	
7. Kapitalezko transfer. eta diru-laguntzak.....	41,7	1,0	75,1	(94,0)	23,8	
8. Finantza-aktiboen gehikuntza.....	5,0	30,0	25,8	(27,6)	33,2	
9. Finantza-pasiboen gutxitzea	-	-	-	-	-	
GUZTIRA	48,9	154,7	800,8	(800,8)	203,6	
%, hasierako aurrekontuaren gainean	%0,5	%1,4	%7,3	(%7,3)	%1,9	

Txertaketa nagusiak Elkartek 2015 eta Emaitek Plus 2015 programetako kredituei dagozkie, ordainketa kredituko 41,7 milioi euroren eta konpromiso kredituetako 3,5 milioi euroren zenbatekoarekin. Programa horiek, nahiz eta 2015ekoak ziren, 2016an ebatzi ziren.

TXERTAKETAK	Euroak, milioikotan
Elkartek 2015 programa	6,6
Emaitek Plus 2015 programa	35,1
San Mames Barria, Slren kapital zabalkuntza.....	5,0
Bestelakoak	2,2
GUZTIRA	48,9

Kredituen txertaketa, diruzaintzako geldikin erabilgarriaren kargura finantzatu da.

Ekitaldian izandako kreditu gaikuntzak ondorengo sarrera hauei dagozkie:

GAIKUNTZAK	Euroak, milioikotan
Finantza autonomia duten ikastetxeak.....	82,6
Europar Batasuneko sarrerak	39,4
EVEko partaidetzen sarrerak	30,0
Bestelakoak	2,7
GUZTIRA	154,7



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 LANGILERIA GASTUAK

Hauek dira 2015. eta 2016. urteetako langileak eta gastuak:

	LANGILERIA ETA AITORTUTAKO GASTUAK					Euroak, milioikotan
	AURREKONTU LANGILERIA		OBLIGAZIO AITORTUAK		%	
	1.1.16	1.1.15	2016	2015		ALDAKUNTZA
Goi karguak.....	147	147	10,9	10,9	-	
Behin-behineko langileak	72	72	3,6	3,8	(5,3)	
Funtzionarioak (*).....	26.013	25.966	1.052,2	1.022,9	2,9	
Ertzaintza.....	8.000	8.000	314,0	309,5	1,5	
Langile lan kontratudun finkoak.....	2.848	2.893	87,3	86,8	0,6	
Ordezkoak eta aldi baterako langileak.....			103,3	110,7	(6,7)	
LANGILEAK ETA ORDAINKETAK, GUZTIRA	37.080	37.078	1.571,3	1.544,6	1,7	
Kotizazio sozialak.....			386,5	371,1	4,1	
Klase pasiboan prestazio sozialak.....			4,6	4,6	-	
Bestelako gizarte gastuak.....			9,7	9,2	5,4	
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA			1.972,1	1.929,5	2,2	

(*) Sartuta daude Hezkuntza Saileko 20.770 funtzionario 2016an; eta 20.728, 2015ean.

Ordainsariak

2016rako EAEko Aurrekontu Orokorraren Legeko 19. artikuluan ezarrita dago EAEko Administrazio orokorraren zerbitzura diharduten langileen urteko ordainsari osoak % 1 handituko direla, 2015ekoen aldean. Ildo berean, aipatu artikuluan ezarrita dago Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren, lehendakariordearen, sailburuen, goi karguen eta parekatuen 2016rako ordainsariek gehikuntza berdina izango dutela, 2015eko ekitaldian ezarritako ordainsarien aldean.

2016ko martxoaren 15eko JKEa aplikatuz, EAERen Administrazio orokorreko langileei 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zati bat ordaindu zaie; aparteko ordainsari hori kendu baitzitzaien, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 2012ko uztailaren 13ko Errege Lege Dekretua aplikatuz. Kontzeptu horrengatik ordaindutako zenbatekoa 23,4 milioi euro da, eta 2016ko ekitaldia ixtean ordaintzeke dauden zenbatekoak 46,6 milioi euro dira.

2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko Oroitidazkian jakinarazi da ezen, 2017ko maiatzaren 16ko JKEz, aparteko ordainsari hori berreskuratzeke beste ordainketa bat onartu dela, 25,1 milioi euroren zenbatekoarekin. Gainera, 2017ko azaroaren 14ko JKEz, onartu zen 2012ko abenduko aparteko ordainsaritik ordaintzeke zegoen zatia pagatzea; 2017ko azaroko nominan ordaindu zen, eta 20,4 milioi euro izan ziren ordaindutako zenbatekoa.



2016ko lan eskaintza publikoa

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urtarrilaren 27ko aginduz, 2016rako EAEko Hezkuntza Administrazioako lan eskaintza publikoa onartu zen; bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko 577 plaza eskaini ziren. Hautaprobetarako deialdia Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko aginduz onartu zen. Langile berriak (527 plaza) 2016ko irailean hasi ziren lanean, hautatze prozesua bukatu eta praktiketako funtzionario izendatuak izan eta gero.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren 2016ko uztailaren 21eko ebazpenez, XXV. promozioiko Ertzaintzako oinarriko eskalako agenteei zegokien praktikaldiaren hasiera erabaki zen, eta ezarri zen beren lehenengo destinoetan lanean hasiko zirela 2016ko abuztuaren 15ean. Akademian sartzeko hautatze probetarako deialdia zuzendariaren 2015eko martxoaren 6ko ebazpenez egin zen; Estatuko Abokatutzak ebazpen horren aurkako errekurtsoa jarri zuen. 2017ko irailean, errekurtsio horretatik atzera egin zela jakinarazi zen.

Justizia Ministerioaren 2015eko hainbat aginduren bidez, Justizia Administrazioako laguntza judizialeko, izapidetze prozesal eta administratiboko eta kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoetan sartzeko hautatze prozesuetarako deialdiak egin ziren, 2015eko martxoaren 22ko 196/2015 Errege Dekretuaz onetsitako Estatuko lan eskaintza publikoarekin bat etorrita. Deialdi horietan jasotako plazen lurralde banaketan, 152 plaza esleitu zitzaizkion EAERI.

2016ko ekitaldian, Lan eta Justiziako sailburuaren hainbat aginduren bidez, EAEko lurralde eremuan hautatze probetan onartutako hautagaiei zegozkien plazen zerrendak argitaratu ziren. 2017ko otsailean eta martxoan eman zituen destinoak EAERen Administrazioak, eta funtzionario izendatu zituen Justizia Ministerioak.

Txanda kontratuarekin batera hartutako erretiro partzialak

2016an, 60 urtez gorako erretiro partziala hartu dute 61 langilek, eta beste horrenbeste txanda kontratu izenpetu dira. Egin diren erretiro partzial guztietan, langile erretiratuen arduraldia % 25ekoa da, eta aldea txandako langile berriekin estali da.

Kargutik kentzeagatiko kalte ordainak

2016an, 27.370 mila euroren zenbatekoa ordaindu zaie bost pertsonari, Jaurlaritzako kideak, goi karguak eta Administrazio orokorreko konfiantzako langileak kargutik kentzeagatik. Onuradun bakoitzari ordaindutako kalte ordaina ordainsariaren hileko baten baliokide da, Goi Karguen Ordainsariei buruzko 1988ko urriaren 28ko 14/1988 Legeko 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.



A.4 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Hona hemen banakatzea, kontzeptuka:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	__ OBLIGAZIO AITORTUAK __	
	2016	2015
Errentamenduak eta kanonak	15,2	15,2
Konponketak eta artapena	43,2	43,3
Profesional independenteen zerbitzuak.....	2,2	2,7
Garraioak	1,2	1,2
Aseguru primak, banku zerbitzuak eta antzekoak.....	2,3	3,0
Erakunde komunikazioa, publizitatea eta harreman publikoak	6,3	7,4
Hornidurak	46,1	49,0
Bestelako kanpo zerbitzuak	370,2	368,6
- Bulegoko materiala, prentsa eta argitalpenak	13,8	13,7
- Garbiketa eta garbitasuna	36,6	37,0
- Segurtasuna	13,7	14,5
- Lokomozioa eta egonaldi gastuak	8,3	9,3
- Komunikazioak	19,3	20,3
- Mantentzea eta ustiapena	10,5	10,5
- EAEko sektore publikoko erakundeek egindako zerbitzuak.....	89,1	83,7
- Eskola jantokietarako zerbitzuak egitea	82,8	88,3
- Eskola garraioa eta laguntaileak	23,8	23,4
- Bestelakoak.....	72,3	67,9
Osasun zerbitzuak	2.873,2	2.802,3
Zergak.....	4,1	5,0
Askotariko gastuak	24,3	11,0
GUZTIRA	3.388,3	3.308,7

Askotariko gastuak» kontzeptuan izandako aldaketa, funtsean, abalak gauzatzeagatiko gastuen gehikuntzari zor zaio, 9,5 milioi euroan hazi baitira, eta aurreko ekitaldietan bildutako sarrerak itzultzeari, Europako Gizarte Funtzaren sarreretako partaidetzagatiko 2015eko likidazioaren eraginez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNT ETA KAPITALEZKOAK

Hartzaileak eta kontzeptuak aintzat hartuta, honela banakatzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan			
	BETEBEHAR AITORTUAK		KONPROMISO KRED.	
	ARRUNTA	KAPITALA	ARRUNTA	KAPITALA
EAEren Administrazio orokorrari	0,3	-	0,1	-
Administrazio erakunde autonomoei.....	915,3	-	-	-
Zuzenbide pribatuko erakunde publikoei	167,6	139,7	0,3	-
Sozietate publikoei.....	109,7	66,1	-	7,3
Fundazioei	25,6	1,7	0,4	-
Partzuergoei	42,2	-	-	-
EAEko Administrazio publikotzat sailkatutako erakundeei	356,4	61,9	7,3	23,4
Foru aldundiei.....	81,1	1,8	-	4,6
Euskadiko toki erakundeei	60,0	34,6	9,1	30,6
Espainiako eta kanpoko sektore publikoko beste erakundeei	2,4	0,7	0,2	-
SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA	1.760,6	306,5	17,4	65,9
Kanpo sektore pribatuari.....	0,4	-	-	-
EAEko sektore publikoaren partaidetza duten enpresei	2,6	4,5	2,0	1,8
Beste enpresa batzuei	89,2	109,8	24,1	58,4
Familiei	169,0	20,2	7,4	15,1
Fundazioei	31,0	67,5	23,9	-
Irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei	90,3	73,1	18,0	39,1
Hezkuntza itunak eta bestelako prestazio sozialak	652,5	-	9,9	-
Protesiak eta elbarrientzako ibilgailuak.....	6,9	-	-	-
Kalte ordainak eta arauzko entrega bakarrak	0,7	-	-	-
Farmazia (mediku errezetak)	505,3	-	-	-
SEKTORE PRIBATUA, GUZTIRA	1.547,9	275,1	85,3	114,4
GUZTIRA	3.308,5	581,6	102,7	180,3



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen JKE bidez EAEONALTBeko 47. artikulua babesean emandako zuzeneko idiru-laguntza nagusien xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	2016KO D FASEA	KONPROMISO	
	ARRUNTA	KAPITALA	KREDITUA
Donostiako Udala: Anoetako estadioa eraberritzea	-	0,1	9,9
Azpiegitura, SAU: Gernika-Lumoko elkartea.....	-	0,4	4,6
Azti fundazioa: 2014-2015ko datu bilketako proiektu hautagarriak	2,5	-	-
VIA, Gasteizko aireportua sustatzeko elkartea: bidaiari operatibak, 2017-2020	0,1	-	1,9
Ikerbasque fundazioa: Ikerbasque Research Associate programa	2,0	-	-
Barakaldoko Udala: Lasasarre-Urban Galindoko oinezkoen pasabidea	-	0,5	1,3
Ikerbasque fundazioa: bikaintasuneko nazioarteko ikertzaileen programa	1,1	-	-
Ikastetxe itunduak. Liberatu sindikalen kostua finantzatzea, 2015/2016 ikasturtea.....	0,9	-	-
Eibarko Udala: hiri espazio publikoen hobekuntza eta Errebal eraikina	-	0,9	-
CONFEBASK eta haren kide diren erakundeak: 2014-2016 Industrializazio Plana	0,7	-	-
VIA, Gasteizko aireportua sustatzeko elkartea: bidaiari operatibak, 2014-2016	0,5	-	-
Donostia International Physics Center Fundazioa: kalkuluguneko areto berria	-	0,5	-
Oinarri, S.G.R.: hornidura teknikoetako haren funtsa indartzea	-	0,5	-
Bizkaiko Garraio Partzuergoa: Bat-Barik-Mugi txartelen elkarreragingarritasuna	-	0,3	0,1
Oinarri SGR: abalak ematea sustatzeko hornidura teknikoaren funtsa	-	0,3	-
Azti fundazioa: elikadura sektoreko proiektu estrategikoak	0,3	-	-
EHU: irakasleen formakuntzako unibertsitate masterra.....	0,1	-	0,2
Deustuko Unibertsitatea: irakasleen formakuntzako unibertsitate masterra	0,1	-	0,2
Ondarroako Udala: Kamiñaldeko hegala behera etortzeak eragindakoak	0,2	-	-
Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA: Eremuak Programaren garapena.....	-	-	-
Donostiako Tranbia Konpainia, SAU: Bat-Barik-Mugi txartelen elkarreragingarritasuna.....	-	0,1	0,1
Mondragon Unibertsitatea: biktimei tasa eta eskubideak finantzatzea.....	0,2	-	-
Deustuko Unibertsitatea: biktimei tasa eta eskubideak finantzatzea	0,2	-	-
Euskampus fundazioa: Euskampus agregazio eremua sustatzea	0,1	-	0,1
AGA, S. Coop.: ustiapenetan zuzeneko kostuak murrizteko ekintzak	0,1	-	-
Iparraldeko Herri Urrats elkartea: aisialdiko jardueretan euskara erabiltzea	0,1	-	-
Basque Center on Cognition, Brain and Language: erres. magnetikoko sistema	-	0,1	-
Euskadi etorbideko (Pasaia) 5 eta 7 zenbakietako jabeen erkidegoa:- 2014ko urtarrileko sutea-	0,1	0,1	-
Ikastetxe itunduak. unitate itunduak gutxitzea	0,1	-	-
Laneki elkartea: euskarazko material didaktikoa, lanbide heziketako ikastetxeetan.....	0,1	-	-
0,1 baino txikiago diren beste batzuk.....	0,9	0,1	-
GUZTIRA	10,3	3,9	18,5



A.6 INBERTSIO ERREALAK

2016ko ekitaldian kapitulu honen kargura izandako inbertsioak hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	OBLIGAZIO AITORTUAK		KONPROMISO KREDITUAK
	2016	2015	
Erabilera orokorrerako inbertsioak	6,6	4,2	3,3
Lursailak eta ondare naturalak	11,8	8,4	-
Eraikuntzak.....	37,0	39,3	27,4
Instalazio teknikoak, makineria eta lanabesak	13,6	8,7	5,0
Altzariak	4,7	3,8	-
Informazio prozesuetarako ekipoak	6,7	7,9	0,9
Garraio elementuak	1,0	0,5	-
Bestelako ibilgetu materiala	0,4	0,3	-
Industria jabetza, eskualdatze eskubideak	0,2	0,2	-
Aplikazio informatikoak	9,9	10,7	10,0
INBERTSIO PROPIOAK	91,9	84,0	46,6
Beste erakunde publiko batzuetarako kudeatutako inbertsioak (*)	137,0	122,9	51,6
GUZTIRA	228,9	206,9	98,2

(*) Sartuta dago ETSBaren Gipuzkoako bide zatia egikaritzea.

Euskadiko trenbide sare berria

Estatuaren Administrazio orokorrak, EAEren Administrazio orokorrak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (ADIF) 2006ko apirilaren 24an lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten, ETSBa (*Euskal Y-a*) eraikitzeko. Hitzarmenaren ondorioz, Eusko Jaurlaritza arduratu zen Gipuzkoako Bergara-Irun adarraren obretako proiektuak idazteaz eta egikaritzea kontratatzeaz, bai eta Donostiako hirian txertatzeko bide zatiaz ere. Hasieran, obraren kostu aurreikusia 1.642 milioi euro zen, 2006-2010 aldirako; hor sartuta zeuden obrak egikaritzeko behar ziren ondasun eta eskubideak desjabetzea finantzatzeko 43 milioi euro.

Eusko Jaurlaritzak, 2006ko ekainaren 27ko JKEz, ETSren esku utzi zituen *Euskal Y*-ari dagozkion eraikuntza proiektuak idazteko, obra zuzentzeko, beharrezko laguntza teknikoetako eta desjabetze espedienteen administrazio kudeaketan laguntzeko jarduerak, 2006-2010 aldiran, guztira 114,1 milioi euroren zenbatekoagatik.

Eusko Jaurlaritzak, 2016ko urtarrilaren 12ko JKEz, berriro ETSren esku utzi zuen ETSBaren proiektu eta obrak kudeatzea, 2011-2018 aldiran; aldi horretako lan aurreikuspena, zenbait aldaketaren ondoren, 125,3 milioi euroan balioztatu zen.

Euskal Y-aren kostu aurreikusia, 2011-2018 aldiran, 2.041,6 milioi euro da. Kostu aurreikuspen horiei 2010eko abenduaren 31 arte egiaz egikaritutakoa batu beharko litzaieke (223,7 milioi euro); hartara, 2018 arte aurreikusitako kostua, guztira, 2.265,3 milioi euro da.

Obra horiek finantzatzen dira EAEren Administrazio orokorrak Estatuari ordaintzen dion kupoari dagozkion gutxitzeak eginez, lehenago obra ziurtapen egokiak aurkeztuta (ikus A.10). Eraikuntza proiektuak gauzatzearen kostua EAEren Administrazio orokorrak hartzen du bere gain.

Ondorengo taulan xehatuta dago bide zatietako bakoitzean 2016ko abenduaren 31 arte egindako kostua:

KONTZEPTUA	URTEA	ESLEIPENA		EGIKARITZEA		
		ZENBAT. (*)	GORAB. (**)	2016	AURREKO URT.	GUZTIRA
Ordizia-Itsasondo zatia (2012an bukatua)	2007	51,0	12,9	-	63,9	63,9
Tolosako zatia	2009	81,7	19,6	-	101,1	101,1
Legorretako zatia (2014an bukatua).....	2009	70,2	16,7	3,4	86,9	90,3
Beasain Ekialdea zatia (2012an bukatua).....	2009	45,2	9,3	-	54,5	54,5
Beasain Mendebaldea zatia (2015ean bukatua)	2009	44,2	10,0	2,2	54,2	56,4
Bergara-Antzuola zatia.....	2010	109,5	23,0	4,5	132,6	137,1
Andoain-Urnieta zatia	2010	77,1	14,2	8,5	81,3	89,8
Tolosa-Hernialde zatia (2014an bukatua)	2010	106,4	21,3	2,4	122,5	124,9
Urnieta-Hernani zatia	2010	139,3	8,7	8,3	122,3	130,6
Ezkio Itsaso – Beasain zatia (2015ean bukatua).....	2010	57,9	13,8	1,5	70,0	71,5
Antzuola – Ezkio Itsaso Mendebaldea zatia	2010	122,0	29,9	13,7	97,8	111,5
Bergara-Bergara zatia.....	2011	97,1	10,2	3,9	101,4	105,3
Antzuola – Ezkio Itsaso Ekialdea zatia.....	2011	128,5	15,7	14,8	123,6	138,4
Ezkio Itsaso – Ezkio Itsaso zatia	2011	57,2	2,1	1,1	60,4	61,5
Hernani-Astigarraga zatia.....	2011	73,3	6,8	9,1	13,5	22,6
Zizurkil-Andoain zatia	2012	184,4	-	29,7	77,3	107,0
Hernialde-Zizurkil zatia.....	2012	162,1	-	26,9	96,7	123,6
Beste gastuak (Euskaltel, Iberdrola, Naturgas, etab.)...	-	-	-	-	4,9	4,9
OBRAK ETA BESTELAKO GASTUAK, GUZTIRA		1.607,1	214,2	130,0	1.464,9	1.594,9
ETSri kudeaketaren ardura ematea				6,2	169,4	175,6
EUSKAL Y, GUZTIRA (2016-12-31)				136,2	1.634,3	1.770,5

* Esleitze zenbatekoa, 2010eko eta 2012ko ekitaldietan BEZaren zerga tasaren aldaketek izandako gorabeherarekin eguneratua.

** Kontratuetan izandako gorabeheren guztizkoa jasotzen du: aldaketak, prezioen berrikusteak, azken ziurtapena, larrialdia, gastu baliozkotua, segurtasunagatik 2016an ordaindutako gastuak, eta abar.

2016ko ekitaldian, Jaurlaritzak 13,7 milioi euro erregistratu eta abonatu ditu. ETSBaren Gipuzkoako bide zatiaren esleipendun izan diren enpresek 2011-2013 ekitaldietan zaintza eta segurtasun arloan egindako gastuei dagozkie. Gastu horiek, eta kontabilizatzeko dauden beste 5,6 milioi euro, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskariz EABJk emandako aldeko irizpen banaren ondorioz sortu dira. Irizpen horietan, haren kontsiderazioaren pean jarri zen EAEn Administrazio orokorraren ondare erantzukizuna, aipatu gastuetarako; izan ere, enpresa esleipendunek kontratatu zituzten. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 139.1 eta 141.3 artikuluei jarraikiz.



A.7 FINANTZA-AKTIBOEN GEHIKUNTZA

Hauek dira xehetasunak, gastu kontzeptuak aintzat hartuta:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	OBLIGAZIO AITORTUAK	KONPROMISO KREDITUAK
Mailegu eta aurrerakinak toki erak., enpresa pribatuei eta familiei, epe luz.	12,4	26,4
Gauzatu programa	12,4	26,4
Mailegu eta aurrerakinak, EAEko sektore publikoen partaidetza duten enpresei	1,5	
Partaidetzazko mailegua, Bilbao-Ría 2000ri	1,5	
Mailegu eta aurrerakinak, langileei	5,4	
Ekarpenak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei	36,9	
Finantzen Euskal Institutua	30,6	
Euskal Irrati Telebista	6,3	
Sozietate publikoen akzioak erostea	31,7	
Alokabide, SA	9,0	
Sociedad para la Transformación Competitiva- Eraldaketa Lehiakorrenako Sozietatea, SA (SPRI)	22,7	
Partaidetzazko enpresen akzioak erostea	23,4	
Bilbao Exhibition Centre, SA	17,5	
Aparkabisa	0,1	
Centro de Transporte de Vitoria, SA	0,8	
San Mames Barria, SL	5,0	
GUZTIRA	111,3	26,4

2016ko uztailaren 27an, Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki bat onartu zuen, Finantzen Euskal Institutuarekin eta hainbat finantza erakunde eta elkarrekiko bermeko sozietaterekin lankidetzazko hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko. Hitzarmen horren bidez, ikerketa, garapen eta berrikuntzari, energia eraginkortasuneko neurrietan inbertitzeari eta zientzia nahiz teknologia inbertsioei finantza laguntza emateko programa bat bideratzen zen. Lankidetzazko hitzarmena izenpetu eta gero, arrisku estaldura partzialean parte hartzeko asmoz, EAEren Administrazioak 30 milioi euroren gastu bat onartu zuen.

2016ko urriaren 25ean, Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki bat onartu zuen, Finantzen Euskal Institutuarekin eta finantza erakundeekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko. Hitzarmen horren bidez, abeltzaintza sektorean finantza laguntza emateko programa (SENDOTU ABERE programa) egituratu zen, 640.000 euroren berme funts bat eratzea onartuta.

2016ko maiatzaren 17ko 77/2016 Dekretuaz, EAEren Administrazioari baimena eman zitzaion partaidetza har zezan Bilbao Exhibition Centre sozietate anonimoaren kapital zabalkuntzan, 17,5 milioi euroren zenbatekoarekin. Zabalkuntza horren ondoren, EAEren zuzeneko partaidetza, sozietate horretan, % 49,91raino igo da.

2016ko uztailaren 27ko 118/2016 Dekretuaz eta 2015eko abenduaren 29ko 247/2015 Dekretuaz, EAEren Administrazioari baimena eman zitzaion partaidetza har zezan San Mames Barria sozietate mugatuaren kapital zabalkuntza banatan, 2,8 eta 2,2 milioi eurorenak hurrenez hurren.

2016ko uztailaren 7ko 86/2016 Dekretuaz eta 2016ko abenduaren 27ko 245/2016 Dekretuaz, EAEn Administrazioari baimena eman zitzaion partaidetza har zezan Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea sozietate anonimoaren kapital zabalkuntza banatan, 15,7 eta 7 milioi eurorenak hurrenez hurren.

2016ko abenduaren 26an, Alokabide, SAren Administrazio Kontseiluak EAEn Administrazioari eskatu zion ordain zitzala ordaintzeke zeuzkan dibidendu pasiboak, 9 milioi eurorenak: 5 milioi, diruzko ekarpenez; eta gainerako 4 milioi euroak, diruz besteko ekarpenez, hau da, Ogasun eta Finantza Sailak 2016ko ekainaren 7an eman zion zenbateko bereko aurrerakin itzulgarria konpentsatuz.

A.8 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hauek dira 3. kapituluan aitortutako sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBRA- TZEKE
Obra publikoen zuzendaritza eta ikuskatzea.....	5,0	0,1
Bestelako tasak (portuak, tituluak, hezkuntza, industria eta beste)	11,5	0,7
Etxebizitzan, garajeen, eranskinen eta lokalen salmenta.....	4,5	0,2
Hezkuntza, hautapen eta ostalaritza zerbitzuak.....	4,1	-
Telelaguntza	1,6	0,2
Higiezinen errentamendua.....	7,1	1,9
Beste prezio publiko batzuk	2,9	-
Itzulketak	11,4	1,6
Trafiko isunak eta zehapenak.....	29,6	10,6
Bestelako isun eta zehapenak	6,0	3,1
Premiamendu errekarua.....	5,3	4,8
Berandutza korrituak	1,4	0,3
Eskola jantokien sarrerak.....	60,9	-
Exekutututako abalengatiko sarrerak.....	10,1	8,6
Kanonak, emakidak eta askotariko zerbitzuak.....	15,6	2,2
Ikuskatze eta segurtasun nuklearra	0,3	-
Bestelako sarrerak.....	4,3	1,7
GUZTIRA	181,6	36,0

Betearazteko bidean dauden trafiko isunengatik 2016ko abenduaren 31n kobratzeke dagoen zenbatekoa 8,2 milioi euro da; eta premiamendu errekaruagatik, 4,8 milioi euro. Nekez kobratu ahalko direnez, zenbateko horren % 50 kendu da erabilgarri dagoen diruzaintzako geldikina kalkulatzeko.

Exekutututako abalengatiko sarrerengatik kobratzeke dagoena osorik zuzkituta dago. Saldo horretako gehiena da SAPA Placencia sozietate mugatuaren eta Grupo Productos Plásticos Anticorrosivos taldearen kobratzeke dagoen dirua: 5,9 eta 2 milioi euro, hurrenez hurren.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK

Hauek dira sarrera aitortuak eta haien kobrantzak, 2016ko ekitaldian:

TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK	Euroak, milioikotan		
	2016		2015
KONTZEPTUA	EZAGUTUA	KOBRATUA	EZAGUTUA
Foru aldundietatik	8.734,5	8.633,9	8.439,6
Estatuaren Administrazioetik	26,7	16,0	28,5
Finantza autonomia duten zentroetatik	9,7	9,7	12,7
Europar Batasunetik	66,2	66,2	58,2
Beste transferentzia batzuk	0,7	0,7	0,8
GUZTIRA	8.837,8	8.726,5	8.539,8

FORU ALDUNDIEN EKARPENAK

2016ko ekitaldiari zegozkion ekarpinak HDEK-en 2017ko otsailaren 13ko bilkuran onartu ziren behin betiko. Likidazio horretan, ekitaldian bildutako zerga sarrerak hartzen dira aintzat.

2016ko EKARPENAK	Euroak, milioikotan
EKARPEN OROKORRA	8.224,9
Araba (% 16,38)	1.347,2
Gipuzkoa (% 32,98)	2.712,6
<u>Bizkaia (% 50,64)</u>	<u>4.165,1</u>
EKARPEN BEREZIAK	509,6
Araba (% 16,38)	83,5
Gipuzkoa (% 32,98)	168,0
<u>Bizkaia (% 50,64)</u>	<u>258,1</u>
2016KO EKARPENAK, GUZTIRA	8.734,5

Azken likidazioa 2017ko otsailaren 13an onartu zuen HDEKek, eta 103,4 milioi euroren funts bat eratu zuen, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatua (59,5 eta 43,9 milioi euro, hurrenez hurren). Izan ere, banatzekoa den diru bilketa osoan duten parte hartze erlatiboa txikiagoa izan da beren koefiziente horizontalaren % 99 baino. Administrazio orokorrak funtsera egindako ekarpentzat erregistratu du 72,4 milioi euroren zenbatekoa.

EAEn Administrazio orokorrak 2016ko abenduaren 31n desadostasunak zituen 2007-2012 bosturtekorako Euskadiren kupoa zehazteko metodologia onetsi zuen 2007ko urriaren 25eko 13/2007 Legean jasotako xedapen batzuen aplikazioaz, eta lan politika aktiboen gain EAEn eskualdatzeko aurrekontu araubidearen aplikazioari buruz. Desadostasun horiei konponbidea eman zaie Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa 2017ko maiatzaren 17ko bilan.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK

Hauek dira kapital transferentziengatiko sarreraren xehetasunak:

KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK		Euroak, milioikotan	
KONTZEPTUA	AURREKONTUA 2016	AITORTUA 2016	AITORTUA 2015
Euskadiko sektore publikoko toki erakundeetatik	2,7	2,7	0,6
Estatuaren Administrazioetik	350,5	130,8	115,0
Kanpo sektore publikotik (EB).....	33,0	39,7	10,1
GUZTIRA	386,2	173,2	125,7

Estatuaren Administrazioetiko transferentzietan, zenbateko erregistratua 130,8 milioi euroren sarrerei dagokie. Zenbateko hori kupoaren konpentsazioaren bidez jasotzen da, ETSBaren obrak finantzatzeko.

Hauek dira Europar Batasunetiko sarreraren xehetasunak, funts motaren arabera sailkatuta:

EUROPAR BATASUNETIKO SARRERAK		Euroak, milioikotan	
		AITORTUA 2016	AITORTUA 2015
EGEF		28,9	-
LGENF		3,4	3,9
Europako Arrantza Funtsa		1,8	-
FEAGA		3,4	2,8
Kohesio funtsak (Europa barneko sareak)		2,0	2,8
Beste funts eta ekimen batzuk.....		0,2	0,6
GUZTIRA		39,7	10,1

1994-2016aldian jasotako Europar Batasuneko funtsek 2.512,9 milioi euroren sarrerak sortu dituzte. Horietatik 625,3 milioi euro Europar Batasunak ikuska ditzake.

A.11 FINANTZA-AKTIBOEN GUTXITZEA

Hauek dira finantza-aktiboen aldakuntzagatiko sarreraren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan		
	2016		2015
	AITORTUA	KOBRATUA	AITORTUA
EAEren Administrazio orokorrari ondarea itzultzea (Egailan).....	3,0	2,9	-
Kotizazio ofizialik gabeko akzioen salmenta / Ekarpinak itzultzea	0,6	0,6	1,1
Beste mailegu batzuk itzultzea	7,0	6,8	8,1
Industria aurrien maileguak itzultzea.....	2,3	2,2	0,9
Bideratu eta Gauzatu itzulketak	22,7	20,2	25,9
Foru aldundien mailegua amortizatzea.....	25,2	25,2	10,8
Langileei epe laburrera emandako kredituak	5,8	5,8	5,8
GUZTIRA	66,6	63,7	52,6



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekitaldian, 22,7 milioi euroren eskubide aitortuak erregistratu ziren, Gauzatu eta Bideratu programetako maileguen kuota mugaeguneratuengatik; horietatik 12,4 milioi euro Sociedad de Capital Desarrollo de Euskadi SOCADE sozietate anonimoak egindako itzulketei dagozkie. Ekitaldia ixtean kobratzeke dagoen zenbatekoa 2,5 milioi euro da, eta kaudimengabezien zuzkiduraren zenbatekoa 9,7 milioi euro da.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko ekainaren 26an onartu zuen Egailan, SA merkataritza konpainia desegitea, eta Administrazio Kontseilua kargutik kentzea eta likidatzaile mankomunatuak izendatzea. Desegite hori 2016ko uztailaren 14an eskrituratu zen.

A.12 KOB RATZEKE ETA ORD AINTZEKE DAUDEN HONDARRAK

Aurreko ekitaldietako eragiketengatiko ekitaldiko emaitza hau da:

AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN DEFIZITA	Euroak, milioikotan
Ordaintzeke dauden gastu hondarren deuseztatzeak.....	4,0
Kobratzeke dauden sarrera hondarren deuseztatzeak	(84,0)
GUZTIRA	(80,0)

Ordaintzeke dauden gastu hondarren deuseztatzeak, 4 milioi eurorenak, diru laguntzei dagozkie, eta sorburu hauek dituzte: galdatutako baldintzen ez-betetzeak; diruz lagundutako jarduketa ez egitea; aurreikusitakoak baino inbertsio txikiagoak egitea; onuradunek uko egitea emandako diru-laguntzari; eta abar.

Kobratzeke dauden sarrera hondarren deuseztatzeak hauek dira:

DEUSEZTATZEAK	Euroak, milioikotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Likidazio deuseztatzea eta akatsak.....	2,4
Kaudimengabeziak	72,6
Preskribitzea	5,9
Geroratzeak eta jenerotako kobrantzak	3,1
GUZTIRA	84,0

Kaudimengabeziengatiko deuseztatzeak lehiaketa prozeduren eta sozietate likidazioen ondorioz gertatu dira, bai eta egikaritutako abalengatik ere. Kobratzeke zeuden saldoak kobraezintzat deklaratu dira.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 DIRUZAINNTZA

2016ko abenduaren 31n, Jaurlearitzak kontuen xehetasun hauek ditu:

DIRUZAINNTZA	Euroak, milioikotan	
	KOPURUA	SALDOA (2016-12-31)
Kontu operatiboak	36	560,5
Fidantza kontuak	2	3,8
Gordailu kontuak	1	1,9
KONTU ZENTRALAK, GUZTIRA		566,2
Gastu kontu baimenduak	58	47,8
Sarrera kontu baimenduak	18	1,3
Fidantza kontu baimenduak	8	0,9
Atzerriko diruko kontuak	6	0,2
KONTU BAIMENDUAK, GUZTIRA		50,2
GUZTIRA		616,4

Gainera, badira 982 kontu baimendu, finantza autonomiaren araubideko ikastetxeei dagozkienak, eta hezkuntza zerbitzu periferikoen 36 kontu.

2016ko ekitaldian aplikatutako interes tasak % 0 izan dira ekitaldi osoan. Interes tasa horiek 3 hilabeterako Euriborrari erreferentziatuta daude, ken oinarritzko 10 puntu.

Eusko Jaurlearitzaren kontu zentralen batez besteko saldoa 418,4 milioi euro izan da, eta 2015eko ekitaldian zegoena baino 84,9 milioi euro gehiago da.

2016an diruzaintzak sortutako finantza sarrerak 5.057 euro izan dira, eta funtsean gordailu baten epe finkoko interesei dagozkie. 2015ean lortutakoetatik urritu egin dira, 2015ean 7.839 euro izan baitziren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 AURREKONTUAZ KANPOKO ERAGIKETAK

Aurrekontuz kanpoko eragiketetan sartuta daude Administrazioak hirugarrenen kontura egiten dituen kobrantza eta ordainketak, aldi batez aurrekontu-egoztearen zain daudenak, funtsen gordailuko kontsignatzeak eta egiaz ordaindu aurretiko nomina atxikipenak.

KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan			
	SALDOA 16-01-01	KOBRAN.ORDAINKETAK 2016	SALDOA 2016	SALDOA 16-12-31
Foru aldundiak, BEZaren aitortpenengatik	-	1,0	1,0	-
Gizarte Segurantza, zordun.....	0,2	0,1	0,1	0,2
Langileria (bidaia gastuetarako aurrerakinak, nomina eta beste).....	0,7	149,5	151,1	2,3
Hainbat zordun.....	16,1	21,0	7,8	2,9
Epe laburreko ezarpenak.....	1,0	0,7	1,4	1,7
Sozietate publikoei.....	27,1	31,1	26,9	22,9
Fidantzak eta gordailuak	-	-	7,6	7,6
GUZTIRA	45,1	203,4	195,9	37,6

Sozietate publikoei» kontu zordunean jasota daude VISESA eta ALOKABIDE sozietate anonimoei emandako aurrerakinen zenbatekoak. VISESAri, 8,2 milioi eurorengatik bere sozietate egoitza erostea aldi batez finantzatzeko, eta 14,7 milioi euroren beste bat, saltzeke dauden babes ofizialeko etxebizitzak aldi batez finantzatzeko. Zenbateko horiek gehienez 12 hilabeterako eman ziren, eta interes tasa 12 hilabeterako Euriborra gehi % 0,38 izanik. ALOKABIDE sozietate anonimoari, 4 milioi eurorengatik bere parkeko etxebizitza alokatzeko jardueratik eta BIZIGUNE programa kudeatsetik eratorritako diruzaintzako beharren zati bat finantzatzeko, gehienez 12 hilabeterako eman ziren, eta interes tasa 12 hilabeterako Euriborra gehi %0,60 izanik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HARTZEKODUNAK

Euroak, milioikotan

KONTZEPTUA	SALDOA	KOBAN. ORDAINKETAK		SALDOA
	2016-01-01	2016	2016	2016-12-31
Estatuaren Administrazioa, elkarrekiko apustuengatik eta besterengatik	1,3	1.479,7	1.479,8	1,2
ADMINISTRATIO PUBLIKOA: ATXIKIPENAK	134,7	1.242,3	1.240,4	136,6
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun	1,5	0,2	1,6	0,1
Foru aldundiak, zerga atxikipenak	21,3	317,3	316,4	22,2
Gizarte Segurantzako erakundeak, nominako kontzeptuengatik	110,2	913,1	910,5	112,8
Mutualitateak eta beste, nomina atxikipenagatik	1,7	11,3	11,5	1,5
Elkarkidetza eta Itzarri	-	0,4	0,4	-
ORGANISMO AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK	471,2	3.789,2	3.765,0	495,4
HABE	6,6	36,8	38,5	4,9
IVAP	7,7	18,7	17,8	8,6
EUSTAT	2,4	11,1	11,5	2,0
EMAKUNDE	3,4	5,2	6,0	2,6
AVPE	4,2	12,6	13,4	3,4
OSALAN	10,7	12,0	11,7	11,0
KONTSUMOBIDE	3,1	6,6	6,4	3,3
LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	148,0	202,0	179,1	170,9
LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA	0,6	1,3	1,1	0,8
GOGORA, MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA	0,2	1,6	1,4	0,4
FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA	192,5	89,7	97,2	185,0
OSAKIDETZA	91,8	3.391,6	3.380,9	102,5
Europar Batasuna: FSE, FEAGA, EGEF eta Kohesio Funtsa	2,6	104,4	12,2	94,8
Beste hartzekodunak	121,4	10.497,6	10.576,4	42,6
Kreditu erakundeekiko epe laburreko maileguak	-	1.850,0	1.850,0	-
Jasotako fidantzak eta gordailuak	48,6	32,4	6,8	74,2
GUZTIRA	779,8	18.995,6	18.930,6	844,8

Diruzaintzako beharrak estaltzeko, Jaurlaritzak ekitaldian 4 kreditu lerro izan ditu, zenbateko erabilgarria gehienez 800 milioi euro izanik, indarraldia 12 hilabete izanik, eta interes tasak ekitaldian zehar interes tasak aldatuz joanda. 2016ko abenduaren 31n, kreditu kontuek ez zuten saldorik erabilita.

2016an erabilitako batez besteko saldoa 493,5 milioi euro izan dira, eta finantza gastuak 1,6 milioi euro izan ziren.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.15 ZOR PUBLIKOA

2016ko ekitaldian, zirkulazioko jaulkipenen eta maileguen baldintza nagusiak hauek dira:

JAULKITAKO ZORRA		Euroak, milioikotan					
JAULKIPEN/HARPIDETZA	BALIOA (2016-12-31)				INT. TASA (%)		AMORTIZ.
DATA	JAULKIPENA	AMORT.	NOMINALA	AMORT. KOST.	NOMINALA	EFEKTIBOA (a)	DATA
2009-10-28	-	-	700,0	698,6	% 4,15	% 4,22	2019-10-28
2009-12-11	-	-	186,0	185,4	% 4,60	% 4,64	2025-01-07
2010-06-15	-	-	400,0	399,9	Euriborra+% 1,98	% 1,73	2018-06-15
2010-07-05	-	-	105,0	104,9	% 4,75	% 4,83	2017-07-05
2010-10-28	-	173,0	-	-	% 3,99	% 4,03	2016-01-28
2010-10-28 (zabalk.: 2009-12-11)	-	-	77,0	73,4	% 4,60	% 5,34	2025-01-07
2010-10-28 (zabalk.: 28.10.10) ..	-	40,0	-	-	% 3,99	% 4,03	2016-01-28
2010-12-21 (c).....	-	50,0	-	-	Euriborra +% 2,54	% 2,33	2016-12-21
2011-04-20	-	-	82,0	81,0	% 6,38	% 6,71	2021-04-20
2011-10-27 (zabalk.: 2010-10-28)	-	95,5	-	-	% 3,99	% 5,31	2016-01-28
2011-10-27 (zabalk.: 2011-04-20)	-	-	57,5	57,3	% 6,38	% 6,47	2021-04-20
2011-11-02 (zabalk.: 2010-10-28)	-	20,0	-	-	% 3,99	% 5,78	2016-01-28
2012-02-09 (zabalk.: 2010-10-28)	-	80,0	-	-	% 3,99	% 4,07	2016-01-28
2012-02-09 (zabalk.: 2010-07-05)	-	-	31,0	31,0	% 4,75	% 4,76	2017-07-05
2012-02-09 (zabalk.: 2011-04-20)	-	-	55,0	56,1	% 6,38	% 5,83	2021-04-20
2012-03-14 (zabalk.: 2009-12-11)	-	-	8,6	7,5	% 4,60	% 6,73	2025-01-07
2012-04-17 (zabalk.: 2010-07-05)	-	-	103,5	103,0	% 4,75	% 5,66	2017-07-05
2012-10-30 (zabalk.: 2011-04-20)	-	-	69,0	67,7	% 6,38	% 6,87	2021-04-20
2012-12-30 (zabalk.: 2009-12-11)	-	-	60,5	50,2	% 4,60	% 7,52	2025-01-07
2013-01-25 (zabalk.: 2011-04-20)	-	-	50,0	50,6	% 6,38	% 6,03	2021-04-20
2013-01-25 (zabalk.: 2009-12-11)	-	-	170,7	149,3	% 4,60	% 6,67	2025-01-07
2013-03-26	-	-	200,0	199,5	% 4,90	% 4,98	2020-03-26
2014-03-18	-	-	350,0	349,5	% 2,00	% 2,09	2018-07-23
2015-04-13	-	-	225,0	224,3	% 1,25	% 1,30	2023-04-13
2015-11-03 (zabalk.: 2015-04-13)	-	-	100,0	98,7	% 1,25	% 1,47	2023-04-13
2015-11-24 (zabalk.: 2015-04-13)	-	-	100,0	98,5	% 1,25	% 1,50	2023-04-13
2016-03-16 (b)	495,9	-	500,0	495,1	% 1,75	% 1,87	2026-03-16
2016-11-16 (b)	120,1	-	120,0	120,0	% 0,00	% 0,03	2018-11-16
2016-12-30	190,0	-	190,0	190,0	% 1,47	% 1,47	2026-12-30
ZOR JAULKIPENAK	806,0	458,5	3.940,8	3.891,5			

a) Soilik kalkulatu da interes tasa efektiboa nominalaz besteko jaulkipen prezioa duten maileguetarako eta zor jaulkipenetarako, edota kokatze edo irekiera komisioak ordaindu direnean. Gainerako kasuetan, interes tasa efektiboa aplikatzeak ez du alderik eragiten interes tasa nominala ezartzearekiko.

b) Jaulkipen balioan, jaulkitze prima kendu da: 4 milioi euro.

c) Jaulkipen horretan interesa aldatu da swap baten bidez, eta finko nominala izatera igaro da, % 5,02an.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

MAILEGUAK

Euroak, milioikotan

DATA	ERABILIA	AMORT.	BALIOA (2016-12-31)		INT. TASA (%)		AMORTIZ. DATA
			NOMINALA	AMORT. KOST.	NOMINALA	EFEKTIBOA (a)	
2004-12-29	-	45,8	-	-	Euriborra + % 0,10		2016-12-29
2008-12-01	-	7,5	97,5	97,5	Euriborra + % 0,511		2029-04-30
2008-12-01	-	2,5	32,5	32,5	Euriborra + % 0,511		2029-05-11
2009-04-20	-	2,5	32,5	32,5	Euriborra + % 0,279		2029-07-31
2009-10-07	-	-	125,0	124,5	% 4,646	% 4,707	2024-10-07
2009-11-24	-	11,7	151,7	151,7	% 0,471		2029-02-02
2009-12-21	-	-	45,0	44,9	% 4,300	% 4,361	2022-07-07
2009-12-21	-	-	30,0	29,9	% 4,600	% 4,629	2025-01-07
2009-12-22	-	-	100,0	100,0	Euriborra + % 0,62		2018-01-07
2010-06-22	-	-	110,0	108,9	% 4,800	% 5,095	2020-06-22
2010-06-21	-	-	100,0	100,0	Euriborra + % 1,75		2022-10-24
2010-10-22	-	-	60,0	60,0	Euriborra + % 1,16		2025-10-22
2010-12-23	-	-	150,0	150,0	Euriborra + % 1,10		2021-12-31
2011-09-30	-	37,5	262,5	262,5	% 0,299		2023-10-18
2011-10-26	-	-	50,0	50,0	% 5,883		2017-10-26
2011-11-17	-	-	25,0	25,0	Euriborra + % 1,01		2024-12-04
2011-12-14	-	-	27,2	27,2	Euriborra + % 1,47		2022-05-31
2011-09-30 (EIB, 2. zatia)	-	-	100,0	100,0	% 2,341		2024-02-15
2012-04-11	-	-	55,0	55,0	Euriborra + % 3,63		2017-04-11
2012-04-16	-	6,0	12,0	12,0	% 4,99		2018-04-16
2012-04-23	-	-	140,1	139,6	Euriborra + % 1,82	% 1,751	2022-10-23
2012-05-11	-	-	50,0	50,0	Euriborra + % 1,47		2022-05-31
2012-07-27 (EIB, 1. zatia)	-	-	260,0	260,0	% 1,409		2024-08-17
2012-07-27 (EIB, 2. zatia)	-	-	200,0	200,0	% 1,07		2024-09-18
2013-03-19	-	-	65,9	65,9	Euriborra + % 1,47		2022-05-30
2013-11-07	-	-	100,0	100,0	Euriborra + % 0,439		2033-11-28
2013-11-11	-	-	100,0	100,0	% 1,30		2020-01-31
2013-11-18	-	-	50,0	50,0	Euriborra + % 1,04		2020-12-31
2014-02-25	-	-	250,0	250,0	Euriborra + % 1,90		2024-02-25
2014-02-28	-	-	300,0	300,0	Euriborra + % 0,45		2017-12-18
2014-12-04	-	-	150,0	150,0	Euriborra + % 1,22		2023-12-04
2014-12-04	-	-	231,3	231,3	% 1,30		2019-11-25
2014-12-04	-	-	231,3	231,3	% 1,30		2020-01-29
2014-12-22	-	-	15,0	15,0	Euriborra + % 0,98		2022-12-31
2014-12-22	-	-	50,0	50,0	Euriborra + % 0,85		2021-12-22
2014-12-30	-	-	25,0	25,0	Euriborra + % 0,92		2019-09-30
2015-02-23	-	-	115,0	115,0	Euriborra + % 0,94		2024-02-28
2015-02-24	-	-	200,0	200,0	% 1,537		2024-02-24
2015-02-25	-	-	100,0	100,0	Euriborra + % 0,49		2020-02-25
2015-05-18	-	-	200,0	200,0	Euriborra + % 0,99		2024-06-30
2015-12-16	-	-	75,0	75,0	Euriborra + % 0,72		2022-12-31
2015-12-18	-	-	50,0	50,0	% 1,307		2021-12-18
2016-04-22	100,0	-	100,0	100,0	Euriborra + % 0,74		2024-04-30
2016-04-22	50,0	-	50,0	50,0	% 0,478		2021-04-22
2016-04-25	100,0	-	100,0	100,0	% 1,449		2025-04-25
2016-12-29	50,0	-	50,0	50,0	Euriborra + % 0,60		2024-12-29
MAILEGUAK	300,0	113,5	4.824,5	4.822,2			
ZORPETZEA	806,0	458,5	3.940,8	3.891,5			
31-12-10 (Euskampus)	-	0,3	3,1	3,1	% 1,414		31-12-25
ZORPETZEA, GUZTIRA	1.106,0	572,3	8.768,4	8.716,8			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- (a) Soilik kalkulatu da interes tasa efektiboa nominalaz besteko jaulkipen prezioa duten mailegetarako eta zor jaulkipenentarako, edota kokatze edo irekiera komisioak ordaindu direnean. Gainerako kasuetan, interes tasa efektiboa aplikatzeak ez du alderik eragiten interes tasa nominala ezartzearekiko.

Amortizatutako kostua» zutabeak ekitaldia ixtean zorrak eta maileguez zuten balioa jasotzen du, EAEKPPren finantza-pasiboei buruzko 9. balioztatze arauari jarraituz.

ZORPETZEAREN BILAKAERA, 2016	Euroak, milioikotan
Egindako mailegu amortizazioak	(113,5)
Euskampus maileguaren amortizazioa	(0,3)
Zor publikoaren amortizazioa	(458,5)
AMORTIZAZIOAK, GUZTIRA	(572,3)
Zor publikoaren jaulkipenak	810,0
Maileguak formalizatzea eta erabiltzea	300,0
ZORPETZE BERRIA, GUZTIRA	1.110,0
EKITALDIKO ZORPETZE HANDITZEA	537,7

Ekitaldian, beste zorpetze eragiketa batzuk egin dira, 1.110 milioi eurorenak; alabaina, gehienez 1.230,8 milioi euro baimentzen ditu 2015eko abenduaren 29ko 246/2015 Dekretuak (zor publikoaren jaulkipenak egitea erabakitzen duena eta mailegu eragiketak ituntzea baimentzen duena).

Zorpetzearen gehikuntza 537,7 milioi euroan zenbatetsi da; alabaina, 9/2015 Legeko (2016ko abenduaren 22ko 14/2016 Legeak aldatua) 10.1 artikuluan, 662,9 milioi euro baimendu dira.

Administrazioak sarreraren aurrekontuko 9. kapituluko eskubide aitortutzat erregistratu du zor publikoaren jaulkipenaren prezioari dagokion zenbatekoa, KEBen 3/2003 Zirkularrean ezarritakoari jarraituz. Zirkulazioan jarritako zor publikoa jaulkitzearen primaren zenbateko garbia 4 milioi euro izan da. Horrenbestez, zorpetzeagatik sarreraren balio efektiboa 806 milioi euro da.

2016ko ekitaldiko finantza gastua 201,6 milioi euro izan da, honela banakatuta:

FINANTZA GASTUA	Euroak, milioikotan
Zorraren interes mugaeguneratuak	130,3
Maileguen interes mugaeguneratuak	66,2
2010-12-21eko zor jaulkipenaren swap gastuak	1,4
Kokatze komisioak	1,2
ZOR PUBLIKOAREN FINANTZA GASTUA	199,1
Bestelako finantza gastuak	2,5
FINANTZA-GASTUAK	201,6

Ekitaldia ixtean, aurrekontuaren likidazioari jarritako oharretan adierazita dagoenez, sortu diren eta mugaeguneratu ez diren interesak 81,3 milioi euro dira, eta sartuta daude 2016ko abenduaren 31ko egoera balantzeko «Epe laburreko zorrak» idazpuruan. Interes horiek interes tasa efektiboa aplikatuz kalkulatu dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.16 EMANDAKO ABALAK

Abalen saldoa, 2016ko abenduaren 31n, eta ekitaldian izandako mugimendua, honako hauek izan dira:

FORMALIZATUTAKO BERMEAK

Euroak, milioikotan

	SALDOA		HARPIDETZA UZTEAK		SALDOA
	2016-01-01	HARPIDETZAK	LIBRATUAK	EXEKUT.	
ABALAK					
Enpresen linea	96,6	2,6	37,5	11,4	50,4
Erakunde publikoak	182,7	-	11,2	-	171,5
Luzaro, Sari emandako maileguen bermeak	117,5	-	37,5	-	79,9
BIRFIDANTZAMENDUAK					
Birfidantzamenduak, Luzaro SAri dagokionez.....	36,9	6,5	8,8	1,2	33,4
Elkargi SGR.....	193,0	24,0	43,3	5,7	168,0
Oinarri SGR.....	36,8	4,7	6,4	0,6	34,5
Audiovisual Aval SGR.....	0,5	-	0,4	-	-
GUZTIRA	664,0	37,8	145,1	18,9	537,7

2016an emandakoak guztira 37,8 milioi euro izan ziren, eta ia osorik dagozkie Eusko Jaurlaritzak Elkargi eta Oinarri elkarrekiko bermeko sozietateen bidez egindako birfidantzamenduei (hurrenez hurren 24 eta 4,7 milioi euroren zenbatekoarekin), bai eta ETEei emandako maileguengatik Luzaro sozietate anonimoaren bidez egindako birfidantzamenduei ere (6,5 milioi euroren zenbatekoarekin). Urtean emandako bermeen guztizkoak betetzen ditu 2016ko EAEko aurrekontu orokorreari buruzko 2015eko abenduaren 23ko 9/2015 Legeko 9.1 artikuluan ezarritako legezko mugak.

Eman diren eta mugaeguneratu ez diren abalengatikiko arrisku zenbatetsia 39,9 milioi euro da, eta 2016ko abenduaren 31ko egoera balantzeko pasiboaren «Arrisku eta gastuetarako hornidurak» idazpuruan jasota dago.

2016ko abenduaren 31n, EAEn Administrazio orokorrak abal egikarituengatik kobratzeke duen saldoa 41,8 milioi euro da: 8,6 milioi euro, 2016ko ekitaldiari dagozkio; eta 33,2 milioi euro, aurreko ekitaldiei. Saldo hori altxortegiko soberakinetik deskontatuta dago. Milioi bat eurotik gorako zorrak dituzten hamar hirugarreni dagokie saldo osoaren % 90.



A.17 KONPROMISO KREDITUAK

Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitutako kredituak, kapituluka sailkatuta, hauek dira:

KONPROMISO KREDITUAK (2016-12-31)					Euroak, milioikotan
KAPITULUA	KONPROMETITUTAKO EKITALDIAK				GUZTIRA
	2017	2018	2019	2020 eta hurr.	
1. Langileria gastuak	6,5	-	-	-	6,5
2. Funtzionamendu gastuak	128,6	49,0	12,0	2,7	192,3
4. Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	115,3	50,4	46,7	9,8	222,2
6. Inbertsio errealak	223,4	30,9	2,2	0,6	257,1
7. Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak ...	191,4	105,1	55,0	94,2	445,7
8. Finantza-aktiboan aldakuntza	30,2	26,9	23,5	243,4	324,0
GUZTIRA	695,4	262,3	139,4	350,7	1.447,8

Zenbateko nabarmenenak ETSBa eraikitzeari lotutako inbertsioei dagokie (193,3 milioi euro), Bilbao Exhibition Centre sozietate anonimoan partaidetza hartzeari (187,2 milioi euro), babes ofizialeko etxebizitzak erostearren banketxeekin izenpetutako finantza hitzarmenetan jasotako interes puntuak diruz laguntzeari (79,4 milioi euro), Gauzatu programari (125,7 milioi euro), eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin egindako 2015-2018 aldirako kontratu-programari (67,7 milioi euro).

KONPROMISO KREDITUAK, JATORRIKO URTEAREN ARABERA					Euroak, milioikotan
	KONPROMETITUTAKO EKITALDIAK				GUZTIRA
	2017	2018	2019	2020 eta hurr.	
2006. urtea eta aurrekoak.....	22,1	21,6	21,1	149,1	213,9
2007. urtea.....	1,5	1,4	1,2	6,6	10,7
2008. urtea.....	0,9	0,4	0,4	2,0	3,7
2009. urtea.....	2,3	1,9	1,3	7,5	13,0
2010. urtea.....	56,6	12,5	9,4	47,5	126,0
2011. urtea.....	13,3	12,0	0,7	14,6	40,6
2012. urtea.....	69,6	2,6	1,3	20,0	93,5
2013. urtea.....	6,7	8,2	2,4	15,2	32,5
2014. urtea.....	26,2	7,9	2,5	21,5	58,1
2015. urtea.....	128,2	71,2	59,2	30,8	289,4
2016. urtea.....	368,0	122,6	39,9	35,9	566,4
	695,4	262,3	139,4	350,7	1.447,8

Ekitaldian, aurreko ekitaldietan konprometitutako kredituen deuseztatzeak 19,2 milioi euro izan dira. Deuseztatze garrantzitsuenak hauek izan dira:

- European Spallation Source partzuergoaren (ESS-Bilbao) finantzaketarako 2017ko ekitaldiari dagokion urteko ordainketa deuseztatzea. Ordainketa hori 7,5 milioi eurorena da, Estatuaren Administrazio orokorrarekin 2010eko abenduaren 31n izenpetutako hitzarmenari jarraikiz. Nahiz eta hitzarmen hori aldatu ez den, deuseztatzea justifikatzeko oroitidazkiak adierazten du partzuergoari ez zaiola ekarpenik egin 2013ko ekitaldiaz geroztik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Gauzatu programako 1,8 milioi euroren konpromisoak deuseztatzea, aurreko ekitaldietako deialdiak ixtean azaldutako soberako kredituak erregularizatzearen ondorioz.

A.18 KONTRATAZIOA

2016ko ekitaldian 357 kontratu formalizatu dira, 486,9 milioi euroren zenbatekoarekin. Esleitutako zenbatekoak kontratu osoari dagozkio, 2016ko urtealdirako aurreikusitako gastua gorabehera.

Formalizatutako kontratuen xehetasunak hauek dira, sailen arabera:

SAILA	Euroak, milioikotan		
	KONTRATU KOPURUA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	% ESLEIPEN GUZT. GAIN.
Lehendakaritza	12	1,5	% 0,3
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	51	91,6	% 18,8
Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak	27	14,3	% 2,9
Enplegua eta Gizarte Politikak	19	3,1	% 0,7
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza...	33	12,8	% 2,6
Ogasuna eta Ekonomia	5	9,0	% 1,9
Hezkuntza	69	255,0	% 52,4
Osasuna	42	53,6	% 11,0
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	-	-	-
Kultura eta Hizkuntza Politika	16	1,9	% 0,4
Segurtasuna	62	39,1	% 8,0
Lana eta Justizia	21	5,0	% 1,0
GUZTIRA	357	486,9	% 100,0

Kontratu guztietatik, 7 larrialdiz izapidetu dira, 8,4 milioi euroren zenbatekoarekin. Gainerakoetarako, honako prozedura hauek erabili dira:

PROZEDURA	Euroak, milioikotan		
	KONTRATU KOPURUA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	% ESLEIPEN GUZT. GAIN.
Irekia	172	214,8	% 44,9
Negoziatua	173	85,1	% 17,8
Mugatua	5	178,6	% 37,3
GUZTIRA	350	478,5	% 100,0

Prozedura negoziatuz izapidetutako espedienteetatik, lau Kontratazio Batzorde Nagusiak izapidetu ditu, 9,4 milioi euroren zenbatekoarekin; eta gainerakoak, sailen kontratazio mahaiek. Espedienteen % 66 lau sailek izapidetu dituzte: Osasun Sailak 25 espediente izapidetu ditu, 42,6 milioi euroren zenbatekoarekin; Hezkuntza Sailak 40 espediente, 3,1 milioi euroren zenbatekoarekin; Segurtasun Sailak 32 espediente, 10,1 milioi euroren zenbatekoarekin; eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 17 espediente, 1,3 milioi euroren zenbatekoarekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Espedientea izapidetzea

Izapidetze arruntaz gainera, SPKLTBk premiazko eta larrialdiko izapidetzea jasotzen ditu. Hartara, premiaz izapidetzekotzat deklaratu daiteke kontratu espedientea, baldin haren beharra atzeraezina bada edo baldin esleipena azeleratu behar bada interes publikoko arrazoiengatik. Deklarazio horren eragina da kontratazio espedientea osatzen duten izapideetan epeak laburtzea.

Beste alde batetik, larrialdiz izapidetzekotzat deklaratu ahalko dira baldin Administrazioak berehala jardun behar badu, hondamendizko gertakarien, arrisku larria dakarten egoeren edo defentsa nazionalari eragiten dioten beharren ondorioz.

Sailen arabera banaketa, espedienteen izapidetze mota aintzat hartuta, honako hau da:

SAILA	Euroak, milioikotan					
	IZAPID. ARRUNTA		PREMIAZKO IZAPID.		LARRIALD. IZAPID.	
	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%
Lehendakaritza	1,5	% 0,3	-	-	-	-
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	91,6	% 19,6	-	-	-	-
Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak	6,2	% 1,3	-	-	-	-
Enplegua eta Gizarte Politikak	3,1	% 0,7	-	-	-	-
Ingurumena, Lurralde Plang. eta Etxebizitza	12,5	% 2,7	-	-	-	-
Ogasuna eta Ekonomia	7,0	% 1,5	1,9	% 51,4	-	-
Hezkuntza	253,6	% 54,4	1,5	% 40,5	-	-
Osasuna.....	45,2	% 9,7	-	-	8,4	% 100,0
Kultura eta Hizkuntza Politika	1,9	% 0,4	-	-	-	-
Segurtasuna.....	38,8	% 8,3	0,3	% 8,1	-	-
Lana eta Justizia.....	5,0	% 1,1	-	-	-	-
GUZTIRA	466,4	% 100,00	3,7	% 100,0	8,4	% 100,0

Kontratuen esleipenetan izandako bajak

357 espedienteetatik -larrialdiz izapidetutako zazpiak barne hartu gabe-, izandako bajak zehazteko aintzat hartu dira 350 kontratu, 414,1 milioi euroren zenbatekoarekin, BEZa sartu gabe.

Hau da esleipeneko baja, kontratu motaren arabera:

KONTRATU MOTA	Euroak, milioikotan		
	ESLEIP. ZENB. BEZ-A GABE	BAJA ZENBATEKOA	BAJA % LIZITAZIOAN
Obrak.....	35,8	14,6	% 29,0
Zerbitzuak	293,7	62,7	% 17,6
Hornidurak	46,6	3,3	% 6,6
Zerbitzu publikoaren kudeaketa.....	38,0	7,3	% 16,1
GUZTIRA	414,1	87,9	% 17,5

Hauek dira % 25etik gorako batez besteko baja duten sailak:

SAILA	Euroak, milioikotan		
	ESLEIPEN ZENBAT.	BAJA ZENBAT.	BAJA % LIZITAZIOAN
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua.....	75,7	38,2	% 33,5
Enplegua eta Gizarte Politikak	2,6	1,2	% 31,6
Ogasuna eta Ekonomia	8,9	3,2	% 26,4

Baliozkotutako espedienteak

Jaurlaritzaren Kontseiluak bere gain hartu du KEBaren txosten negatiboa zuten 72 kontratazio espedienteren aldeko fiskalizazio juridiko eta ekonomikoa. Hauek dira espediente horien sailak eta zenbatekoak:

SAILA	Euroak, milioikotan	
	ZENBATEKOA	%, GUZT. GAIN.
Administrazio Publikoa eta Justizia.....	0,9	% 1,6
Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak	-	-
Hezkuntza	0,8	% 1,5
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	15,5	% 28,2
Enplegua eta Gizarte Politikak.....	1,5	% 2,7
Ogasuna eta Ekonomia.....	0,2	% 0,4
Ogasuna eta Finantzak	1,6	% 2,9
Ingurumena eta Lurralde Politika.....	0,4	% 0,7
Osasuna	27,7	% 50,5
Segurtasuna	5,3	% 9,7
Lana eta Justizia.....	1,0	% 1,8
GUZTIRA	54,9	% 100,0
HKEEK aztertutako espedienteak	1,5	% 2,7

KEBaren aurkako txostenaren arrazoia da, 72 espedienteetan, prestazioak egin zirela zegokien kontratu espedientea izapidetu gabe eta publikotasun eta lehia printzipioei jarraitu gabe, horiek egin beharrekoak bailirateke SPKLTBan ezarritakoari jarraituz.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Jaurlaritzaren Kontseiluak baliozkotutako 72 espedienteetatik, zenbateko handieneko 18ak -guztiak 1 milioi eurotik gorakoak- baliozkotutako kopuru osoaren % 70 dira, eta sail eta kontzeptu hauei dagozkie:

KONTZEPTUA/SAILA	Hezk.,Hizk.			Enplegua eta	
	Politika eta Kultura	Osasuna	Segurtasuna	Gizarte Politikak	Guztira
Sistemen mantentzea	-	-	1,1	-	1,1
Telefonia eta telekomunikazioak.....	1,8	-	-	-	1,8
Anbulantzia.....	-	17,7	-	-	17,7
Arnas terapia.....	-	7,5	-	-	7,5
Jantokiak.....	1,7	-	-	-	1,7
Garbiketa	5,9	-	-	-	5,9
Bestelakoak	1,5	-	-	1,5	3,0
GUZTIRA	10,9	25,2	1,1	1,5	38,7

Aztertutako espedienteak

51 espediente aztertu dira: 24 hautatu dira 2016ko ekitaldian esleitutakoen artetik, eta 27, aurreko ekitaldietan esleitu diren eta 2016an egikaritzea edo eragina izan dutenen artetik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurreko ekitaldietan esleitu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:

		Euroak, milioikotan				
ESP.			ESLEIP.	EGIK.	EGIK.	
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	ZENBAT.	2016	2016-12-31n	HUTSAK
1.	Euskal Y. Tolosako zatia	O	81,7	-	101,1	F1
	Prezioak berrikustea		11,6			
	Aldatua		8,0			
2.	Euskal Y. Bergara-Antzuola zatia	O	109,5	4,5	132,1	F2
	Prezioak berrikustea		12,0			
	Aldatua		11,0			
3.	Euskal Y. Andoain-Urnieta zatia.....	O	77,1	7,4	88,7	F1,2
	Prezioak berrikustea		5,6			
	Aldatua		7,5			
	Segurtasuna		1,1			
4.	Euskal Y. Urnieta-Hernani zatia.....	O	139,3	7,5	129,8	
	Prezioak berrikustea		7,9			
	Segurtasuna		0,7			
5.	Euskal Y. Antzuola – Ezkio Itsaso Mendebaldea zatia.....	O	122,0	13,1	110,9	
	Prezioak berrikustea		5,6			
	Aldatua		23,8			
	Segurtasuna		0,6			
6.	Euskal Y. Bergara-Bergara zatia	O	97,1	3,0	104,4	F1,2,3
	Prezioak berrikustea		4,3			
	Aldatua		5,0			
	Segurtasuna		0,9			
7.	Euskal Y. Antzuola – Ezkio Itsaso Ekialdea zatia	O	128,5	14,3	136,0	
	Prezioak berrikustea		2,8			
	Aldatua		12,5			
	Segurtasuna		0,5			
8.	Euskal Y. Ezkio Itsaso – Ezkio Itsaso zatia	O	57,7	0,7	57,5	F1
	Aldatua		1,7			
	Segurtasuna		0,4			
9.	Euskal Y. Hernani-Astigarraga zatia	O	73,3	9,1	22,6	
	Aldatua		6,8			
10.	Euskal Y. Zizurkil-Andoain zatia	O	184,4	29,7	107,1	
11.	Euskal Y. Hernialde-Zizurkil zatia	O	162,1	26,9	120,4	
12.	Zuzkidurako 86 bititoki eraikitzea. Bilboko El Morro meategia.	O	6,1	1,9	8,8	F4
	Aldatua		1,2			
	Azken ziurtapena		1,5			
13.	Eraikitzea 38 gizarte etxeb. eta eranskinak, 734 banaketa eremua, Bilboko Gardeazabal eta Iturrigorri auzoak.....	O	3,6	1,1	3,9	
	Prezioak berrikustea		(0,1)			
	Azken ziurtapena		0,4			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak, milioikotan

ESP.			ESLEIP.	EGIK.	EGIK.	
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	ZENBAT.	2016	2016-12-31	HUTSAK
14.	Zentro berria eraikitzea, Donostian, Musikene musika kontserbatoriorako.....	O	18,4	1,0	20,8	F5
	Aldatua		2,4			
	Azken ziurtapena		-			
15.	Eraikin berria, DBHko 16 unitatekoa, Azkoitiko Xabier Munibe BHI ikastetxean.....	O	4,5	0,8	4,5	F1,2
	Aldatua		(0,1)			
16.	Ikastetxe berria, haur eta lehen hezkuntzako 3 lineakoa, Mariturrriko LHirako	O	5,1	0,3	5,2	F2
	Azken ziurtapena		0,2			
17.	Bilboko Uretamendi-Peñascalen (AR 740, EU 740.01) 45 etxebizitza sozial eta eranskinak eraikitzea.....	O	3,6	1,2	1,7	
18.	Hernani BHIIn eraikin berria.....	O	3,4	2,8	2,8	
19.	Beasaingo Txindoki-Alkartasuna BHIIn eraikin zaharra handitzea eta pista estalia eraikitzea	O	2,3	2,2	2,3	
20.	Begarako Miguel Altuna GLHBIIn lanbide heziketako eraikin berria eraikitzea.	O	7,3	1,2	1,2	
	Aldatua		0,3			
21.	Bermeoko Portu Zaharra kaia konpontzeko obrak eta, behar izanez gero, zerbitzuak.....	O	0,7	0,5	0,6	
22.	Euskal Y. Legorretako zatia (2014an bukatua)	O	70,2	3,4	90,3	
	Prezioak berrikustea		10,7			
	Aldatua		6,0			
	Segurtasuna		3,4			
23.	Euskal Y. Beasain Mendebaldea zatia (2015ean bukatua)	O	44,2	2,2	56,4	
	Prezioak berrikustea		5,7			
	Aldatua		4,3			
	Segurtasuna		2,2			
24.	Euskal Y. Tolosa-Hernalde zatia (2014an bukatua)	O	106,4	2,4	124,9	
	Prezioak berrikustea		9,7			
	Aldatua		9,3			
	Segurtasuna		2,4			
25.	Euskal Y. Ezkio Itsaso – Beasain zatia (2015ean bukatua).....	O	57,9	1,5	71,5	
	Prezioak berrikustea		4,8			
	Aldatua		5,6			
	Azken ziurtapena		1,9			
	Segurtasuna		1,5			
26.	Euskal Y. Ordizia-Itsasondo zatia (2012an bukatua).....	O	51,0	-	63,9	
	Prezioak berrikustea		2,8			
	Aldatua		5,1			
	Azken ziurtapena		5,0			
27.	Euskal Y. Beasain Ekialdea zatia (2012an bukatua)	O	45,2	-	54,5	
	Prezioak berrikustea		4,9			
	Azken ziurtapena		4,3			
GUZTIRA			1.888,3	138,7	1.623,9	

2016ko ekitaldian esleitu diren aztertutako espedienteen zerrenda honako hau da:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak, milioikotan

ESP.	ZENBATEKOA	EGIK.			
ZK. DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ESLEIP.	2016	HUTSAK
28. Santurtziko San Juan de Rompeolasko EU 2 ekipamendu lursailean 58 zuzkidura bizitoki eraikitzea.	O	Irekia	3,7	0,4	C1
29. Ugao-Miraballesen BHI eraikin berria eraikitzea.	O	Irekia	4,4	1,8	A1 C1
30. Vitoria-Gasteizen Zabalzana BHIko eraikin berria eraikitzea.	O	Irekia	8,1	1,2	C1
31. Gueñesko Gueñes BHI eraikin berria eraikitzea.	O	Irekia	3,5	0,9	C1
32. Bilboko Pagasarribide BHI 8 unitateko DBHko ikastetxe berria eraikitzea.	O	Irekia	3,4	-	A1 C1
33. Janari prestatuak egitea, lehengaiak entregatzea eta garraioa, Hezkuntza Sailaren zentro publikoetara.	Zerb.	Mugat.	181,0	82,8	
34. Hezkuntza Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan, zentro publik. eta zentro lagungarrietan garbitasuna mantentzea.	Zerb.	Irekia	45,8	-	A3,4 C1,2,3
35. Segurtasun Sailaren mendeko zentroetan segurtasun sistemak mantentzea.	Zerb.	NPG	4,6	1,2	C2
36. Osasuneko erantzukizun zibiletik/ondare-erantzukizunetik eratorritako arriskuak aseguratzea.	Prib.	Irekia	5,2	1,7	A2
37. EA Eren Administrazioaren hainbat eraikinetarako telekomunikazio zerbitzuak.	Zerb.	Irekia	66,7	1,5	A2 C3
38. Jaurlaritzak Gasteizen dituen eraikinak eraginkorki garbitzeko zerbitzu teknikoak, administrazioak eta kudeaketak.	Zerb.	Irekia	3,5	1,1	C4 D1
39. EA Eren Administrazioaren hainbat eraikin argindarrez hornitzea 2016ko lehen hiruhilekoan. Esparru hitzarmenetik eratorritako lehen kontratua.	H	EH	3,6	-	
40. EA Eren Administrazioaren hainbat eraikin argindarrez hornitzea, 2016-04-01etik 2016-12-31ra. Esparru hitzarmenetik eratorritako laugarren kontratua.	H	EH	10,5	-	
41. Zumaiaiko portuko kanpo ditxoa indartu eta konpontzea.	O	Larriald.	2,0	0,3	D2 E1
42. Bermeoko portuko babes ditxoko kokotea konpontzeko obrak ..	O	Larriald.	4,0	2,5	D2 E1
43. Egonaldi ertain eta luzeko mediku laguntzako eta ospitale birgaitzeko zerbitzua, Gipuzkoako Osasun Arloko pazienteentzat.	ZP	NPG	11,3	11,3	
44. Egonaldi luzeko psikiatria laguntzako zerbitzua egitea, Euskadiko osasun sistemako pazienteentzat.	ZP	NPG	6,4	4,7	
45. Egonaldi ertain eta luzeko psikiatria laguntzako zerbitzua, buruko nahasmendu larria duten paziente judizializatuak eta hartutako garuneko kaltea duten pazienteei, ospitaleratzearen araubidean.	ZP	NPG	8,2	5,5	
46. EA Eren Administrazioaren Osasun Garraio Sarearen osasun larrialdietarako garraio eta laguntza zerbitzua.	Zerb.	Larriald.	25,6	17,3	E3
47. IP-TDM teknologia hibridoko irrati loturen sare baten instalazioa hornitzea eta abian jartzea.	H	Irekia	1,5	0,5	A2
48. Bereizgarri gabeko ibilgailuen errentamendua, Jaurlaritzaren Segurtasun Sailerako.	H	Irekia	12,0	1,5	A2,5,6
49. Irrati mugikorreko sare digitaleko deien banaguneak eta kontsolak eguneratzea.	H	NPG	4,0	0,8	A6 B1
50. Ibilgailuetarako piezak eta ordezko piezak hornitzea.	S	Irekia	2,3	0,1	
51. Biomazako zentralaren obra, Ertzaintzak Berrozin (Bernedo, Araba) duen basean.	O	Irekia	1,4	1,4	A1,2
GUZTIRA			422,7	138,5	

Kontratu motaren laburtzapenak: O: Obrak H: Hornidurak Zerb.: Zerbitzuak ZP: Zerbitzu publikoaren kudeaketa
EH: Esparru hitzarmena Prib.: Pribatua



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak, milioikotan	
		ESLEIP.	
HUTSAK		KOP.	ZENBATEKOA
ESPEDIENTEA			
A1	Aurretiatzko zuinketa, proiektua onartu aurrekoa (SPKLTBko 126.1 art.)	3	9,2
A2	Prezio irizpidea baloratzeko formulak puntuak ematea lizitazio prezioa berdintzen duten eskaintzei.	5	86,8
A3	Irizpide generikoak	1	45,8
A4	Pleguan ez da balioztatze metodologiarik	1	45,8
A5	Luzapenaren xedea zehaztugabea da (SPKLTBko 23.2 art.)	1	12,0
A6	Ez dira garbi eta agerian zehaztu aldaketen baldintzak (SPKLTBko 106. art.)	2	16,0
LIZITAZIOA			
B1	Ez dago behar bezainbat egiaztatuta prozeduraren hautaketa	1	4,0
ESLEIPENA			
C1	Ez da bete esleipena egiteko epea (SPKLTBko 161.2 art.)	6	68,9
C2	Formalizazioaren publikotasuna falta da (SPKLTBko 154.2 art.)	2	50,4
C3	Txosten teknikoak ez du nahikoa arrazoitzen emandako puntuazioa	3	114,0
C4	Esleitzean prozedura okerra izan da	1	3,5
EGIKARITZEA			
D1	Aldaketen kontzeptuetako bat ez da baldintzen agirian jaso.	1	3,5
D2	Ez da bete obra hasteko epea (SPKLTBko 113.1.e art.)	2	6,0
BESTELAKOAK			
E1	Ez da bete Jaurlaritzaren Kontseiluari jakinarazteko epea (SPKLTBko 113.1b art.)	2	6,0
AURREKO URTEETAN ESLEITUAK			
F1	Atzerapena izan da obrak jasotzean (SPKLko 205.2 art. eta SPKLTBko 222.2 art.)	5	318,1
F2	Azken ziurtapena epez kanpo onartu da (SPKLko 218.1 art. eta SPKLTBko 235.1 art.)	5	293,3
F3	Aldaketa ez da nahikoa justifikatu.	1	97,1
F4	Azken ziurtapenak % 10a gainditu du (baliozkotzera eraman da).	1	6,1
F5	Azken ziurtapenak obra egikaritua barne hartzen du.	1	18,4



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.19 DIRU LAGUNTZEN ANALISIA

Diru laguntzen analisisian, huts hauek aurkitu ditugu:

ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		HUTSA
	2016	KREDITUA	HUTSA	
Donostiako Udala: Anoetako estadioaren eraberritzea	0,1	9,9		
Ikerbasque fundazioa: Ikerbasque Research Associate programa	2,0	-		
VIA, Gasteizko aireportua sustatzeko elkarte: bidaiari operatibak, 2014-2016	0,5	-		A1
VIA, Gasteizko aireportua sustatzeko elkarte: bidaiari operatibak, 2017-2020	0,1	1,9		A2
Azpiegitura, SAU: Gernika-Lumoko elkartea.....	0,4	4,6		
Barakaldoko Udala: Lasasarre-Urban Galindoko oinezkoen pasabidea	0,5	1,3		A3
Eibarko Udala: hiri espazio publikoen hobekuntza eta Errebal eraikina	0,9	-		A3
Azti fundazioa: 2014-2015ko datu bilketako proiektu hautagarriak	2,5	-		
GUZTIRA	7,0	17,7		

ZUZENENKO BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK

KONTZEPTUA	D FASEA	
	2016	2016
Oinarri: Zuzkidura teknikoaren eta abalen funtsa		0,3
Zuzkidura teknikoaren funtsa.....		0,5
Arraunketako Euskal Federakundea: Legutioko estropada eremua birgaitzea		0,1
Ikerbasque fundazioa: nazioarteko ikertzaileak erakartzeko programa		1,1
Confebask: 2014-2016 Industrializazio Plana		0,7

Diru-laguntza horien onuradunek zuzeneko diru-laguntzak jaso zituzten aurreko bi ekitaldietakoren batean, kontzeptu berengatik.

DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK

DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		HUTSA
	2016	KREDITUA	HUTSA	
Ermuko Udala. Ezaguerak partekatzeko guneak erostea	0,8	-		
Euskal Kirol Federazioen Batasuna. Jarduerak.....	0,4	-		
Euskadiko Filmmategia Fundazioa. Urteko programa	0,9	-		
Donostia Fundazioa. Europako Kulturaren Hiriburutzaren Proiektua	5,0	-		
Portugaleteko Udala. Alonso Allende eta Rivas auzoetan zaborra pneumatikoki biltzea..	2,3	-		
GUZTIRA	9,4	-		

DEIALDI PUBLIKOA EGINEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

DEIALDI PUBLIKOA EGINEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK		Euroak, milioikotan		
KONTZEPTUA	D FASEA	KONPROMISO		HUTSA
	2016	KREDITUA	HUTSA	
EAEko cluster erakundeei laguntzeko programa.....	1,2	1,2	B5	
RIS3 Euskadi espezializazio adimentsuko strategiako biozientziak-osasuna lehetasunari lotutako ikerketa eta garapen proiektuetarako laguntza.....	1,4	-		
GUZTIRA	1,6	1,2		



KONTZEPTUA	Euroak, milioikotan	
	ZENBATEKOA	
	DEIALDIA	HUTSA
EKONOMIA GARAPENA ETA LEHIAKORTASUNA		
- Lankidetzako ikerketarako laguntzak, arlo estrategikoetan: Elkartek programa.....	25,0	B1,2
- EAeko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak.	1,4	B1,2
- EAeko cluster erakundeei laguntzeko programa.....	2,4	B1,2
- Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa.	10,7	B1,2
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA		
- Arlo estrategikoetako jardun ildoetako diru-laguntzak, LHaren Euskadiko IV. Plana hedatzean, lanbide heziketako heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunduei zuzenduak.	1,8	
- Euskadiko kultura ondarea babestearen arloari aplikatutako ikerketa lanak egiteko diru-laguntzak.	0,2	B2
- Euskadiko Antzoki Sarearen dantza zirkuituan parte hartzen duten dantza konpainientzako diru-laguntzak.....	0,1	B2
- Sortze jardunbideak sostengatzeko kulturagune independenteentzako diru-laguntzak (Sorgune deialdia).....	0,8	B2
- Kultura eta gizarte bitartekaritza eta berrikuntzako proiektuetarako diru-laguntzak (Bitartez deialdia).....	0,4	B2
- Kultura eta Sormen Industrien Berrikuntza Funtzaren diru-laguntzak.....	0,3	B1,2
OSASUN SAILA		
- RIS3 Euskadi espezializazio adimentsuko strategiako biozientziak-osasuna lehenasunari lotutako ikerketa eta garapen proiektuetarako laguntza.....	1,4	
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA		
- Enpresentzako diru-laguntzak, ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko	1,9	B2,3,4

HUTSAK	Euroak, milioikotan	
	EMANDAKO ZENBATEKOA	
A1. Justifikazioa egiaztatu gabe egindako ordainketak		0,5
A2. Onuradunak beste diru-laguntza bat jaso du, helburu berarekin, 2016an emana.....		2,0
A3. Onuradunak 2015ean diru-laguntza izendunak jaso zituzten kontzeptu berengatik.....		2,7
B1. Lerroak ez du onartutako plan estrategiko bat, ekintzekin eta adierazleekin		39,8
B2. Oroitidazkiek ez daukate beren eraginkortasuna ebaluatzeko bidea emango duten adierazleak.....		43,2
B3. Arautzeko dekretuak ez du galdatzen balioztapen batzordearen osaera argitaratzea.....		1,9
B4. Arautzeko dekretuak ez du ezartzen lehia aukera, ez eta beste laguntzekiko bateraezintasunak ere.....		1,9
B5. Lerroaren huts espezifikoak, 3.3.4 atalean jasoak		2,4

A.20 KONTABILITATE PUBLIKOA

AKTIBO EZ-ARRUNTA

Honako hauek dira aktibo ez-arruntaren xehetasunak, 2016ko abenduaren 31n erregistratuak:

	Euroak, milioikotan
Ibilgetu ukiezina	54,1
Administrazio emakidak	2,2
Aplikazio informatikoak	35,2
Jabetza intelektuala	1,6
Erabilera eskubideak	14,8
Ibilgetze immaterialetarako aurrerakinak	0,3
Ibilgetu materiala	2.750,1
Lursailak eta ondare naturalak	668,0
Eraikuntzak	1.735,7
Azpiegiturak	136,4
Ondare historikoko ondasunak	4,3
Bestelako ibilgetu materiala	107,5
Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	98,2
Epe luz. finantza inb., taldeko erakundeetan, talde aniztunetan eta elkartuetan	1.406,8
Epe luz. finantza inbertsioak, ondareko tresnetan	1.346,2
Taldeko erakundeetarako, talde aniztunetarako eta elkartuetarako kredituak	26,8
Bestelako inbertsioak	33,8
Epe luz. finantza inbertsioak	227,9
Salmentarako erabilgarri dauden finantza-aktiboak	48,7
Epe luz. kredituak	164,4
Epe luz. eratutako gordailuak	14,8
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	32,2
Zordunak epe luz.	32,2
GUZTIRA	4.471,1

Hauek izan dira aktibo ez-arrunteko kontuen mugimenduak:

ELEMENTUA	Euroak, milioikotan				
	SALDOA 01.01.16	SARRERAK/ (ZUZKIDURA)	HARPIDETZA UZTEAK	INTSULDAKET. SALDOA 31.12.16	
Ibilgetu ukiezina.....	159,8	10,3	(25,2)	-	144,9
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	(96,4)	(18,5)	24,1	-	(90,8)
Ondasun ibilgetu materialak	3.840,0	84,1	(46,6)	-	3.877,5
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(1.067,2)	(91,5)	31,3	-	1.127,4)
Epe luz. finantza inb., taldeko erakundeetan.....	1.468,7	92,0	(25,8)	-	1.534,9
Epe luz. finantza inber. akt. narriadura, taldeko erakundeetan	(107,2)	(35,4)	14,5	-	(128,1)
Epe luz. finantza inbertsioak	273,4	29,8	(69,4)	1,1	234,9
Beste finantza inbertsio batzuk	14,8	-	-	-	14,8
Epe luz. finantza inbertsioen narriadura metatua	(22,4)	(11,3)	11,9	-	(21,8)
Zord. eta kobratz. bst. kontu batzuk epe luz.	32,4	5,4	(5,6)	-	32,2
Epe luz. akt. zord. eta kobratz. bst. kontu batzuen narriadura.	-	-	-	-	-
GUZTIRA	4.495,9	64,9	(90,8)	1,1	4.471,1



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE EMAITZA EKONOMIKOAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Bi emaitzen arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak, milioikotan
2016KO EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	(532,6)
ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK	
Ken: Aurrekontu gastuak eta ordaintzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	873,1
Inbertsio erreal propioak (A.6)	91,9
Finantza-aktiboen gehikuntza (A.7)	111,3
Zuzkiduretan sartutako aurrekontu gastuak (2015-12-31)	0,2
Zor publikoaren eta maileguen gutxitzeak (A.15)	572,3
Zor publikoa kokatzeko batzordea (A.15)	1,2
Maileguen eta zorraren interesak, 2015ean sortuak eta 2016an ordainduak	96,0
Bestelako kontzeptuak	0,2
Gehi: Aurrekontu sarrerak eta kobratzeke zeuden hondarren deuseztatzeak	1.306,9
Ibilgetu materialaren eragiketengatik	1,1
Finantza-aktiboen gutxitzea (A.11)	66,6
Eskubideen deuseztatzeak eta beste erregularizazio batzuk	(2,3)
Estatuaren kapitalezko diru-laguntzak: <i>Euskal Y-a</i> (A.10)	130,8
Jasotako beste kapitalezko diru-laguntza batzuk	4,7
Obligazioen eta maileguen jaulkipenak (A.15)	1.106,0
AURREKONTU EMAITZAREN PARTE EZ DIREN ERAGIKETAK	
Gehi: Sartu gabeko gastuak	260,4
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	49,0
Kudeaketa arrunteko beste gastuak	1,2
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus V. atala)	109,9
Ibilgetu ez finantzariotik datozen galerak	12,5
Arruntak ez diren beste kontu sailak	0,8
Maileguen eta zorraren interesak, 2016an sortuak eta ordaintzeke daudenak (A.15)	81,3
Sortutako beste finantza gastu batzuk	5,7
Ken: Sartu gabeko diru sarrerak	199,9
Ibilgetu ez finantzariorako diru laguntzen egozpena	5,6
Beste erakunde batzuentzat eraiki edo erositako aktiboak (A.6)	137,0
Kudeaketa arrunteko beste sarrerak	3,1
Hornidura gehiegizkoak (ikus V. atala)	29,7
Ibilgetua besterentzeagatiko emaitzak	1,9
Finantza sarrerak	2,2
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	20,4
2016KO EKITALDIKO AURREKONTU DEFIZITA	(38,3)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.21 LURRALDEKA BEREIZITAKO GASTUAK ETA SARRERAK

Administrazioak bere aurrekontuak apailatzen ditu, eta haien egikaritzea kontabilizatzen du gastuak eta sarrerak lurraldeka sailkatuta, baina ez ditu onartzen, ez eta ekitaldia likidatzeko bere kontuan haien egikaritzeari buruzko informaziorik aurkezten ere.

Jarraian aztertzen da 2016ko ekitaldiko gastuen eta sarreraren zertarakoa, eta 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldiekin konparatzen da.

Aurrekontuen banaketa

2013, 2014, 2015 eta 2016rako onartutako aurrekontuaren banaketa, bai eta lurralde bakoitzak EAERI itundutako zergengatik duen koefiziente horizontala ere, 2016ko ekitaldian, honako hau da:

AURREKONTUKO GASTUEN ETA SARREREN BANAKETA, LURRALDEKA

	KOEFIZIENTE HORIZONTALA	GASTUEN %				SARREREN %			
		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Araba	% 16,38	23,7	22,7	22,7	25,3	15,1	13,1	13,7	13,7
Bizkaia	% 50,64	43,0	39,9	39,4	36,6	40,7	42,0	42,0	42,7
Gipuzkoa	% 32,98	26,0	25,3	24,6	23,1	26,6	27,2	27,5	27,8
Lurraldeka bereizi gabe	-	7,3	12,1	13,3	15,0	17,6	17,7	16,8	15,8

Gastuak

Hauek dira gastuen xehetasunak eta aurreko hirurtekoarekiko konparazioa:

GASTUAK, LURRALDEKA BEREIZITA

Euroak, milioikotan

	2016			AITORTUTAKO BETEBEHARRAK			BATEZBESTEKOA 2013-2016	%
	AZKEN AURREK	AITORT. BETEB.	GASTU % GUZTIRA	2013	2014	2015		
Araba	2.948,8	2.518,3	% 24,3	2.319,6	2.356,3	2.410,6	2.401,2	% 24,0
Bizkaia	4.102,8	4.325,0	% 41,7	4.037,0	4.122,3	4.191,0	4.168,8	% 41,5
Gipuzkoa	2.595,7	2.522,9	% 24,4	2.547,2	2.545,7	2.441,9	2.514,4	% 25,0
Lurr. bereizi gabe	1.489,6	998,5	% 9,6	675,7	1.029,3	1.118,0	955,4	% 9,5
Guztira	11.136,9	10.364,7	% 100,0	9.579,5	10.053,6	10.161,5	10.039,8	% 100,0



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hauek dira gastuaren xehetasunak, kapituluak aintzat hartuta:

GASTUAK, KAPITULUEN ARABERA	Euroak, milioikotan			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	LURR. GABE
Langileria gastuak	439,6	928,8	595,4	8,3
Funtzionamendu gastuak	709,0	1.657,0	961,1	61,2
Finantza gastuak	0,2	0,1	0,1	201,2
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	1.202,9	1.372,7	621,0	111,9
Inbertsio errealak	15,4	47,9	162,9	2,7
Kapitalezko transferentziak eta diru-laguntzak	95,6	273,0	173,2	39,8
Finantza-aktiboen gehikuntza	55,6	45,3	9,3	1,1
Finantza-pasiboen gutxitzea	-	-	-	572,3
GUZTIRA	2.518,3	4.324,8	2.523,0	998,5

Gastuak kontabilitatean egozteko irizpideak

Aurreko datuak egoki irakurtzeko, aintzat hartu behar dira gastua kontabilitatean lurraldearen arabera sailkatzeko ondorengo irizpide hauek, Eusko Jaurlaritzak erabiliak:

KAPITULUA	GASTUA EGOZTEKO IRIZPIDEA
Langileria	Langileak atxikita duen zentroaren helbidea
Funtzionamendu gastuak	Gastua egiten den zentroaren kokalekua
Finantza gastuak	Ez da lurraldearen arabera sailkatzen zor publikoko gastua
Eragiketa arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak	Oro har, onuradunaren helbidean Ez da lurraldearen arabera sailkatzen, baldin erakundeak ez badu EAEn operatzen
Inbertsio errealak	Inbertsioaren kokalekuan; ez dira lurraldearen arabera sailkatzen inbertsio immaterialak
Kapitalezko transf. eta diru-laguntzak, finantza-aktiboen aldakuntza	Inbertsioa egiten den tokian
Finantza-pasiboen aldakuntza	Ez da lurraldearen arabera sailkatzen zor publikoa

Inbertsioa, lurraldeka

2013, 2014, 2015 eta 2016an egindako inbertsioak (6. eta 7. kapituluak) ehunekotan duen banaketa honako hau da:

	INBERTSIOA, EHUNEKOTAN			
	2013	2014	2015	2016
Araba	11,8	14,5	14,5	13,7
Bizkaia	54,5	34,7	40,7	39,6
Gipuzkoa	26,5	46,3	39,8	41,5
Lurraldeka bereizi gabe	7,2	4,5	5	5,2



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Jarraian, inbertsio nagusiak azaltzen dira, lurralde historikoka:

Araba: Inbertsio nagusiak osasungintza (Osakidetza) finantzatu eta kontratatzeke egin dira, lurraldean egindako inbertsio osoaren % 42,3 baitira. Hurrena, teknologia programak diruz lagundutako enpresa proiektuetan egindako inbertsioak, % 13,2 baitira. Eta hurrena, nekazaritza proiektuetarako diru-laguntzak, % 9,7.

Bizkaia: Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketara bideratutako inbertsioak % 27 dira (gehienbat ETSri eginiko transferentziak eta Bilbao Hiri Trenbidearen obrak finantzatzea); teknologia garapena sostengatzekoak % 15 dira; berrikuntza funtsak diruz lagundutakoak, % 11,8; eta etxebizitzarakoak, % 10,9.

Gipuzkoa: ETSBan egindako inbertsioa % 38,9 da; teknologia garapena sostengatzekoak, % 22,2; eta trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketako inbertsioak, % 8,6.

Ondorengo taulan daude jasota inbertsio handieneko programak:

EGITARAUUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		LURR. GABE		TOTAL	
		%		%		%		%		%
Teknologia.....	14,6	% 10,6	48,3	% 35,2	74,5	% 54,2	-	-	137,4	% 100,0
Euskadiko trenbide sare berria.	-	-	-	-	130,8	% 100,0	-	-	130,8	% 100,0
Trenb. garraioar. azpieg. eta kudeak.	1,8	% 1,5	86,8	% 74,0	28,8	% 24,5	-	-	117,4	% 100,0
Etxebizitza	7,5	% 12,3	35,0	% 57,6	14,5	% 23,8	3,8	% 6,3	60,8	% 100,0
Berrikuntza funtsa.....	-	-	38,0	% 71,4	14,6	% 27,5	0,6	% 1,1	53,2	% 100,0
Osasun finantz. eta kontratazioa.....	47,0	% 96,7	1,6	% 3,3	-	-	-	-	48,6	% 100,0
Garapenerako lankidetzak	-	-	-	-	-	-	32,4	% 100,0	32,4	% 100,0
Bigarren hezkuntza eta LH	2,6	% 9,7	10,2	% 37,9	14,1	% 52,4	-	-	26,9	% 100,0
Plangintza eta admin. hidraulikoa	2,6	% 11,0	12,3	% 51,9	7,6	% 32,1	1,2	% 5,0	23,7	% 100,0
Unibertsitate irakaskuntza.....	-	-	15,2	% 83,1	3,1	% 16,9	-	-	18,3	% 100,0
Haur hezkuntza eta hezkuntza.....	2,7	% 15,6	8,0	% 46,2	6,6	% 38,2	-	-	17,3	% 100,0
Indust. garapena eta ekintz. Laguntza	-	-	13,4	% 78,8	3,6	% 21,2	-	-	17,0	% 100,0
Nekaz. eta landa eta kosta garap.	10,7	% 64,1	2,4	% 14,4	3,6	% 21,5	-	-	16,7	% 100,0
Zerbitzuko Ertzaintza	1,5	% 11,7	10,3	% 80,5	1,0	% 7,8	-	-	12,8	% 100,0
Erakunde harremanak.....	0,9	% 7,2	3,5	% 28,0	8,1	% 64,8	-	-	12,5	% 100,0

Lurraldearen arabera sailkatu gabeko gastuak, gehienbat, interes puntuak diruz lagunduz partikularrei emandako laguntzak dira.

«Trenbideko garraioaren azpiegitura eta kudeaketa» programan erregistratu dira Bizkaiko Garraio Partzuergoari emandako kapitalezko diru-laguntza, Bilbao Hiri Trenbidea finantzatzeko, 38,6 milioi euroekin; ETSrako diru-laguntzak, guztira 35 milioi euroa (6 milioi, lurraldearen arabera Gipuzkoan sailkatuak; eta 29 milioi, lurraldearen arabera Bizkaian sailkatuak, horietatik 23 milioi euro Bilbao Hiri Trenbidea finantzatzeko); eta Eusko Trenbideak sozietate anonimoarentzako diru-laguntzak, guztira 36,8 milioi euro, hiru lurraldeetan inbertsioak finantzatzeko (1,1 milioi Arabarako, 16,6 milioi Gipuzkoarako eta 19,1 milioi Bizkairako).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

«Garapenerako lankidetzeta» programan kontabilizatutako inbertsio osoa, 32,4 milioi euro, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari emandako kapitalezko diru-laguntzari dagokio.

Uraren Euskal Agentziarentzako kapital eragiketetarako diru-laguntza «Plangintza eta administrazio hidraulikoa» programan erregistratu da, 22,5 milioi euroekin.

Diru sarrerak

Hauak dira sarreraren xehetasunak eta aurreko hiru urtekoarekiko konparazioa:

SARRERAK, LURRALDEKA BEREIZITA								Euroak, milioikotan	
	2016			AITORTUTAKO ESKUBIDEAK			BATEZBESTEKOA 2013-2016	%	
	AZKEN AURREK.	AITORT. ESKUB.	ESKUB.% GUZTIRA	2013	2014	2015			
Araba	1.546,0	1.476,3	% 14,2	1.310,7	1.358,6	1.417,4	1.390,7	% 13,8	
Bizkaia	4.706,0	4.585,9	% 44,1	4.134,4	4.334,8	4.420,0	4.368,8	% 43,2	
Gipuzkoa	3.069,7	2.949,5	% 28,3	2.663,7	2.806,9	2.858,6	2.819,7	% 27,9	
Lurraldeka bereiz g	1.815,2	1.394,6	% 13,4	1.700,5	1.607,2	1.406,4	1.527,2	% 15,1	
Guztira	11.136,9	10.406,3	% 100,0	9.809,3	10.107,5	10.102,4	10.106,4	% 100,0	

Lurraldearen arabera sailkatu gabeko sarrerak, funtsean, zor publikoari dagozkio.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2016EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren fiskalizazioaren 2016ko ekitaldiko emaitzei erantzute aldera, aipatutako gaiari buruz kudeaketa-organo bakoitzak egoki iritzi dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu dituen alegazioak eta justifikazioak bildu dira txosten honetan, otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikulua betez.

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.2 PUBLIKO EGIN BEHARRIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA

“Publiko egin beharrik gabeko prozedura negoziatuaren erabilerari dagokionez, 4 milioi euroren truke esleitutako 49. espedientearen lizitaziorako, lehiaren salbuespena ez da behar bezain beste arrazoitu, SPKLTBko 173.c) eta 170.d) artikuluen arabera”.

ALEGAZIOA

Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Alorraren 2015eko urriaren 29ko memorian, aipatutako espedientearen baitan, hau adierazten zen: «Hardware eta software ekipamenduaren hornidura eta instalazioa kontratatzea da espediente honen xedea, EBTS modeloko 97 oinarri-estazio MTS modeloko baliokideekin ordezkatzeko eta 64 MCC7500 bulego-kontsola berri instalatzeko, bi kasuetan erredundantzia geografikoaren funtzionalitatea aktibatuta».

Era berean, txostenak hau adierazten zuen:

- “Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak, gaur egun, Motorola enpresaren DIPS 8.1 sistema erabiltzen du irrati-sarea inplementatzeko azpiegitura eta ekipamendu gisa.
- Eskatutako osagarri berri guztiek (hardware eta software) egungo azpiegiturarekin eta Motorolaren DIPS 8.1 motako konmutazio-zentroarekin guztiz bateragarriak izan eta bat etorri behar dira. Era berean, eskatutako hornigai gehienak sistema honetarako bereziak dira eta jatorrizko fabrikatzaileak soilik hornitu ditzake.
- Sistema honen konplexutasun eta espezializazioaren ondorioz, fabrikatzaileak soilik eguneratu eta aldatu dezake sistema”.

Alderdi horiek askitzat jo ditugu aztertutako prozeduran erabakiak hartzeko. Hala ere, arrazoiketaren formari dagokionez, egon daitezkeen aurkako iritziak errespetatuko ditugu.



II.1.3 KONTRATAZIO-PROZEDURA

“Ondasunen eta zerbitzuen 126 erosketa berrikusi dira, guztira 4,1 milioi euro balio zutenak, eta sail hauei zegozkienak: Administrazio Publikoa eta Justizia (8), Ogasuna eta Finantzak (29), Segurtasuna (5) eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura (84). Hala, dagozkion kontratazio-prozedurak izapidetu ez direla hauteman dugu, eta, beraz, publikitate- eta lehia-printzipioak bete ez direla”.

ALEGAZIOA

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Telekomunikazio zerbitzuen lizitazio- eta esleipen-prozesuaren ondoriozko kontratuak beranduago jarri ziren indarrean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari hainbat eraikinen kasuan; izan ere, hainbat errekurso berezi jarri ziren EAeko Kontratuen Inguruko Errekursoen Administrazio Organoaren aurrean.

Kontratuaren xedeko prestazioak eskaintzen jarraitu behar ziren, funtsezko zerbitzu publikoei lotuta zeudenez, eta ezin ziren eten zerbitzu horien funtzionamendua biziki aldatu gabe. Ondorioz, ordura arte prestazioak ematen jardundako zituzten enpresen kargu utzi behar izan zen zerbitzuen prestazioa. Horrenbestez, kontratuak indarrean sartu arte zerbitzuak eman zituzten enpresei ordaindu zitzaizkien fakturak.

Bestalde, operadore-aldaketa bat balego, Preskripzio Teknikoen Orriak zerbitzuen migrazioarako epea jasotzen zuela hartu behar da kontuan. Hala, zerbitzuen migrazio-epean zehar, lehenago zerbitzuak ematen zituen enpresaren fakturekin batera, esleitzailer berriaren fakturak ere egon ziren. Hori dela-eta, aurreko esleitzailer egindako fakturak ordaindu behar izan ziren, zerbitzuen migrazio erabatekoa lortu arte.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARTARAZPENAK.

III.2 LANGILE-GASTUAK

3.2.2 HARTU GABEKO BAIMENEN KONPENTSAZIOA

“Segurtasun Sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko Aginduaren bidez, Ertzaintzako langileak ekonomikoki konpentsatzeko baimena eman zen, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 4 eta 5 egunera arteko hartu gabeko baimenengatik. Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordio arauemaileak 3 egunera mugatzen du, gehienez ere, konpentsatu daitekeen egun kopurua. Hiru eguneko muga gainditzen duen gastua, 2015ean eta 2016an, 1,5 milioi eurokoa izan zen eta 2016ko iraileko nominan ordaindu zen”.

ALEGAZIOA

Horri dagokionez, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duen urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuaren 52. artikuluko 12. apartatuaren babesean eman zen Segurtasun sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko Agindua, arrazoi hauengatik:

- Dekretuaren 52. artikulua, gai partikularrengatiko baimena arautzen duenak, Segurtasun Sailari aukera ematen dio, zerbitzuaren beharren arabera, Ertzaintzako funtzionarioei gai partikularrengatiko baimen-egunetako batzuk benetan hartu ordez konpentsazio ekonomikoa jasotzeko aukera ematea erabakitzeko.
- 2012. urterako, egun horietako hiru (22 ordu eta 30 minutu, guztira) konpentsatzeko aukera ezarri zuen, eta funtzionarioen kategoriaren arabera zehaztu zuen ordeko konpentsazioaren zenbatekoa.
- Segurtasun Sailburuaren Aginduz, 2013ko martxoaren 25ean, indarrik gabe utzi zen aipatutako konpentsazio ekonomikoa jasotzeko aukera. Erabaki hori, Sailak igorritako dokumentuen arabera, polizia-zerbitzu publikoaren prestazio eraginkorra eta gastu publikoa aurrezteko politika bateratzeko beharrean oinarritzen zen, baita gai partikularrengatiko baimenaren egunak erdiraino mugatu zituzten lege-erreformetan ere, langileek baimen osoa har zezaten antolakuntza-arazorik eragin gabe.
- Segurtasun Sailburuaren Aginduz, 2015eko martxoaren 2an, 4/2012 Dekretuko 52. artikulua 12. apartatua xedatutakoa aplikatuz, aipatutako ekitaldian konpentsazio-aukera ematea erabaki zen, gai partikularrengatiko baimeneko 3 egun benetan hartzearen ordez.
- Segurtasuna Sailburuaren 2016ko ekainaren 1eko Aginduaren bitartez, 4/2012 Dekretuko 52. artikulua 12. apartatua xedatutakoan oinarrituz, Ertzaintzako langileek 2016. urtean gai partikularrengatiko baimen-egun gehiago benetan hartzearen ordez konpentsazio ekonomikoa aukeratu ahal izatea ezarri zen, aurreko urtean erabaki bera hartzea eragin zuten baldintzak bere horretan zirelako; are gehiago, egun kopurua handitu egin zen, gai partikularrengatik 6 eguneko baimen-aldia berrezarri egin zelako, Ertzaintzako langileei berriz ere aukera eman zitzaielako antzinatasunagatik zegozkien gai partikularretarako hartu gabeko baimen-egunak hartzeko, baimen-egun horiek hartu ahal izatearen gaineko erabaki judizial asko eman zirelako 2013 eta 2014 urteetan eta polizia-zerbitzu publikoaren beharrak egoki betetzea arazotsua zelako.

Aplikatutako ordeko konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoei dagokienez, indarrean dagoen Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko akordio 52. artikuluko 4. apartatua kategoriaren arabera ezartzen dituen zenbatekoek jarraitu zuten (artikuluko 12. apartatuko 2. zenbakiak zehazten duenaren arabera).



III.3 DIRU-LAGUNTZAK

3.3.1 ZUZENKO DIRU-LAGUNTZAK

Ikerbasque Fundazioa

2016ko Berrikuntza Funttsaren banaketaren ondoren eman da zuzeneko diru-laguntza, eta, beraz, ezin izan da izenez esleitu Aurrekontu Orokorretan.

Arraunketako Euskal Fundazioa

2016an emandako zuzeneko diru-laguntzaren xedea eta 2014an emandakoaren xedea desberdinak dira.

3.3.2 VIA - GASTEIZKO AIREPORTUAREN SUSTAPENERAKO SOZIETATEARI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA

“Diru-laguntza bat eman zaio 2016ko ekitaldian xede bererako eman zen beste diru-laguntza bat jaso zuen onuradunari”.

ALEGAZIOA

2012ko uztailaren 17an, VIAko administrazio-kontseiluak –Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko, Gasteizko Udaleko eta Arabako Merkataritza Ganberako ordezkariak osatzen dute– sustapenerako hainbat jarduketak egitea adostu zuen bidaiari-eskaria sortu edo areagotzeko, instituzio bakoitzak zegokion ekarpena onartuz.

Sozietateak hitzarmen bana sinatu zuen Udalarekin eta Aldundiarekin 2014an, aipatutako jarduketak egiteko behar ziren zenbatekoen hornidura egikaritzeko, zenbatekook unean-unean eguneratuta. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzak, 2016ko apirilaren 5eko Erabakiaren bidez, lehenago hornitu ez zituen zenbatekoak hornitu zituen, erabakiaren lehen apartatuari jarraikiz: «VIAri diru-laguntza zuzena ematea Gasteizko aireportuan pasaia-eragiketarako sustatzeko jarduketak ordaintzeko,, 2014, 2015 eta 2016 urteetan zehar».

Bere aldetik, ekainaren 14ko gobernu-erabakia eta diru-laguntza ez dira garaikideak; izan ere, erabaki horren oinarri arautzaileen arabera, diru-laguntzaren zenbatekoa hainbat urtetan zehar banatuko da:

- 2016: 10.000 euro (pasaia-eragiketen kontratazioa prestatzeko jarduerak, 2017-2020 aldirako jarduera sustatzeko)
- 2017: 490.000 euro
- 2018: 500.000 euro
- 2019: 500.000 euro
- 2020: 500.000 euro



Banakapen horretatik ondorioztatzen denez, 2016ko ekainaren 14ko gobernu-kontseiluak onetsitako kantitatea aireportu-sustapenerako VIA sozietateak 2017-2020 aldian egin beharreko jarduketetara bideratuko da, eta, hala, 2016ko apirilaren 5eko Erabakiaren jarduketak osatuko ditu, hots, 2014-2016 aldiari dagozkionak.

3.3.3 ARAUDIA

EAEko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programak

“B1 gabezia”

Eusko Jaurlaritzak, 2016ko martxoaren 22ko gobernu-kontseiluko bileran, EUSKADIKO 2020KO AGENDA DIGITALA (Informazioaren Sozietatearen garapenerako Plan Estrategikoa - AD@2020) jakitera ematea eta Eusko Legebiltzarrerara igortzea erabaki zen.

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/plana_programa_proiektua/46-euskadiko-2020ko-agenda-digitala/

Plan hau 4 ardatzetan antolatu da: 1. Enpresak merkatu globalizatuan, 2. Gizarte jantzi eta aktiboa, 3. Administrazioa ingurune digitalean eta 4. Lurralde adimendun eta kohesionatua. 11 erronka estrategikori eta 63 trakzio egitasiori erantzuten die planak, planteatutako helburu horiek lortu ahal izateko.

Ekimen horiek Eusko Jaurlaritzaren ekintzaren lehentasunei erantzuten diete, eta jarduketa berezi deituetan sartzen dira. Gobernu-kontseiluaren aipatutako akordioan jasotzen den bezala, hau da lau horietako bat:

“Euskadiko lurralde osoan belaunaldi berriko banda zabaleko azpiegiturak jartzea, konektibitate maila handia edukitzea giltzarri izan dadin lurraldearen antolamendu eta kohesiorako, bai Agenda Digital honetan jasotzen diren egitasmo guztiak lantzeko bai Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuk ere lantzeko”.

Zentzu horretan, AD@2020k hurrengo jarduketa jasotzen du, modu espezifikoan:

“53. TRAKZIO EGITASMOA-BZ ultraazkarreko zerbitzuak jarduera ekonomiko industrialeko guneetan hedatzea. Gutxienez 100 Mbps-ko zerbitzua hedatzea NGA banda zabaleko zerbitzuekiko gune zuritzat katalogatutako jarduera industrialeko guneetan. Jarduera horrekin batera derrigorrezkoa izango da beste operadore batzuei handizkako zerbitzuak eskaintzea, gune horietan zerbitzuak eskaintzeko interesa erakusten badute”.

“B2 gabezia”

Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak (NGA) hedatzeko laguntza-programaren helburua da gero eta gutxiago izatea NGA zerbitzurik ez duten enpresa-guneak, «NGA gune zuriak». Gune horietan ez dago belaunaldi berriko banda zabaleko sarerik, eta ziurrenik ez da garatuko etorkizun hurbilean, alegia, hurrengo 3 urteetan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euskadin 1.000 eremu geografiko inguru identifikatu dira enpresa-jarduerarekin (industrialdeak). Horietako 480 inguru gune zuritzat jotzen dira, jarduera honen xederako. PEBA 2016 laguntza-programan, FTTH sareen hedapena sustatzea lortu da 219 enpresa-eremutan (egikaritzen ari diren proiektuak edo jada egikaritu direnak). PEBA 2017 laguntza-programan, beste 146 eremutan lortu da hedapenak sustatzea. Gaur egun, deialdi berri bat lantzen ari da hedapenak beste 115 eremutan sustatzeko. Hala, laguntzen eta gauzatzuz doazen telekomunikazio-azpiegituren efikaziaren eta efizientiaren jarraipena egiten da.

Elkartek Programa, alor estrategikoetan lankidetzaz-ikerkuntza laguntzeko programa

“B1 gabezia”

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2016-2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan sartzen da Elkartek programa, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planean ere.

B2 gabezia

I+G proiektuak babestea da laguntza-programaren helburua, bai funtsezko ikerketan bai industria-ikerketan.

Programaren efizientiari dagokionez, I+G eremuan, Estatu laguntzen inguruko Europako araudiak estatu-mailako esku-hartzearen beharra aitortzen duela adierazi behar da, merkatu-hutsegite bat dago-eta. Merkatuak, bere kabuz, emaitza efizienteak lortzen ez dituenean gertatzen da hori. Laguntza, beraz, efizientzia gabetasun hori zuzentzen saiatzen da.

Batasunaren I+G+B Esparrua 2014-2020 aldirako:

Estatu-mailako esku-hartzearen beharra

..., Estatuaren laguntzak beharrezkoak izan daitezke Batasunean I+G+B areagotzeko, merkatuak, bere kabuz, emaitza eraginkorrak lortzen ez dituenean. Estatuaren laguntza interes komuneko helburua lortzeko eraginkorra den ebaluatzeko, konpondu beharreko arazoa identifikatu behar da lehenik. Hobekuntza garrantzitsua izan dezaketen egoeretara bideratu behar da Estatuaren laguntza, merkatuak, bere kabuz, lortu ezin duenean. Laguntza-neurriak merkatuko gabezia hori benetan nola arindu dezakeen azaldu behar dute estatu kideek. Gabezia horrek, halaber, interes komuneko helburua lortzearekin –laguntzarik gabe– izan beharko du lotura.

I+G+B arloa hainbat ekintzatan oinarritzen da. Oro har, produktu-merkatuena baino lehenagoko fase ekonomiko batean gauzatzen dira ekintzok, eta produktu, zerbitzu eta prozesu berriak edo hobetuak garatzeko eskuragarri dauden gaitasunak aprobetxatzen dituzte, aipatutako produktu-merkatuetan edo merkatu erabat berrietan. Horrenbestez, ekonomiaren hazkundera bultzatzen da, eta, hala, lurralde- eta gizarte-kohesioari laguntzen zaio edo kontsumitzailearen interes orokorra sustatzen da. Hala ere, eta eskuragarri dauden



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I+G+B gaitasunen ondorioz, merkatuko gabeziak oztopo izan daitezke ekoizpen-maila optimoa lortzeko, eta efizienteak ez diren emaitzak ekar ditzakete arrazoi hauek direla-eta:

Informazio inperfektu eta asimetrikoa: I+G+B ekintzak ziurgabetasun-maila handia izateagatik ezaugarritzen dira. Egoera jakin batzuetan, informazioa inperfektua eta asimetrikoa denean, inbertsiogile pribatuek proiektu interesgarriak finantzatzeari uko egin diezaioke, eta baliteke goi-trebakuntza duten langileak enpresa berritzaileetan dauden enplegu-aukeren berririk ez izatea. Hartara, merkatu horietan, giza baliabideen eta finantza-baliabideen banaketa desegokia egon daiteke, eta gizarterako edo ekonomiarako baliagarriak izan daitezkeen proiektuak gauzatu gabe geratu...

Kanpo-efektu positiboak/ezagutzaren gainezkatzeko-efektuak: I+G+B arloak, maiz, onurak eragiten dizkio gizarterari gainezkatzeko-efektuen bidez, adibidez, ezagutzak gainezka egiten duenean edo aukera gehiago daudenean, beste agente ekonomiko batzuek produktu eta zerbitzu osagarriak gara ditzaten. Hala ere, proiektu jakin batzuk merkatuaren esku utziz gero, erakargarria ez den errendimendu-tasa izan dezakete ikuspuntu pribatuaren ikuspegitik, gizarterari onurak eragin arren. Izan ere, irabazi-asmoko entitateek ezin dituzte beren jarduketan onurak nahikoa bereganatu egin nahi dituzten I+G+B ekintzen kantitatea erabakitzeke orduan...

Koordinazio- eta sare-akatsak: enpresek beren artean koordinatzeko edo erlazionatzeko duten gaitasuna, I+G+B sortzeko helburuarekin, hainbat arrazoik oztopatu dezakete, besteak beste, elkarlanean aritzen diren kide ugariak koordinatzeko zailtasunak (horietako batzuek interes desberdinak dituztenean), kontratuak egiteko arazoak eta elkarlana koordinatzeko orduan hirugarrenekin dauden arazoak, adibidez, informazio korapilatsua partekatzen delako....

Eraginkortasun-adierazleei dagokienez, funtsezko ikerketa eta industria-ikerketako proiektuak babesten ditu Elkartekek, eta, beraz, oraindik ere merkatutik eta egiaz aplikagarri izatetik urrun daudenak.

Elkartek 2016 deialdiak 2016 eta 2017 urteetan garatu beharreko proiektuak babesten ditu, hau da, laguntza-faseei dagokienez, duela 5 hilabete amaitu diren proiektuak. I+G proiektua egiten denetik (2 urte) –zeregin eta kostu babestuen sintesi gisa ulertua– emaitzak agertzen diren arte –argitalpenak, patenteak edo produktu amaituak–, denbora igarotzen da (urtebete inguru). Azkenean, emaitza horiek ematen badira, beste denbora-tarte bat igarotzen da enpresen lehiakortasunari eragiten dioten arte, fakturazio edo sortutako enplegu moduan (bi urte inguru). Horrenbestez, ezin dira memoriatan sartu oraindik neurtu ezin izan diren adierazleak –laguntza jaso eta 5 urtera emaitzak izango dituztenak–.

Hala ere, programaren emaitzei eta inpaktuari buruzko informazio hori guztia aztertu eta ebaluatu egiten da, aipatutako ezaugarriei erreparatuta, Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzak SPRIren bidez txertatu duen Monitorizazio eta Ebaluazio Sistemari (MES). Horrek I+G programa bakoitzaren ziklo osoa neurtzen du.



2017ko MESan, beraz, Elkartek 2017n egindako inbertsioaren adierazleak lortuko dira, baita Elkartek 2015eko emaitza-adierazleak ere. Programa 2015ean sortu zenez, oraindik ezin du informaziorik eskaini inpaktu-adierazleen inguruan.

Elkartek 2016ren emaitza-adierazleak 2018ko MESan lortuko dira, eta inpaktu-adierazleak, aldiz, 2020ko MESan.

Ingurumena babesteko inbertsioetarako diru-laguntza programa

“B3 gabezia”

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 5ekoa. Horren bidez, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan araututako Balorazio Epaimahaiko kideak izendatzen dira.

“B4 gabezia”

Urriaren 27ko 202/2015 Dekretuko 11.4 artikulua, ingurumen-babeseko inbertsioak egiten dituzten enpresak diruz laguntzeko baldintzak arautzen dituenak, aldi berean beste edozein diru-laguntza edo laguntza analogo jasotzeko aukera jasotzen du, jarraian adierazten den bezala:

11.4. art.- Hauek egiaztatuko dituen erantzukizunpeko adierazpen bidez:

a) Edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen diru-laguntzaren, laguntzaren, diru-sarreraren edo beste bitartekoren bat eskatu, eta, hala egokituz gero, lortu bada helburu berarekin.

Beraz, aurreko artikuluan adierazten den bezala, espresuki jasotzen da beste laguntza batzuekin bateragarria edo bateraezina izateko aukera.

3.3.4 KLUSTERRA LAGUNTZEKO 2016KO PROGRAMA

“Ebaluazio-organoaren osaera ez dator bat agindu arautzailean xedatzen denarekin”.

ALEGAZIOA

Araudiak zera dio:

11. artikulua.– Eskariak balioestea.

1.– Eskariak balioesteko, eta diru-laguntzen proposamenak horiek esleitzeko eskumena duen organoari helarazteko, ebaluazio-organo bat eratuko da eta burua klusterren alorrean eskumena duen zuzendaritzako sektore-programen arduraduna izango da. Zuzendaritza horretako langile teknikoko bi kide izango dira bokalak (batek idazkari lanak egingo ditu), baita Sociedad para la Transformacion Competitiva / Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SAKo (SPRI) kluster-alorrean eskumena duten bi ordezkari ere. Organoko burutzak kluster-gaietan adituak diren beste pertsona batzuk gonbida ditzake, eta horiek ozenki parte hartuko dute baina ez dute boto-eskubiderik izango. Ebaluazio-organoaren eraketa baliozkoa



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

izango da bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko, baldin eta presidentea eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta, gutxienez, gainerako bokaletakoren bat bertaratzen baldin bada. Atal honetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Ebaluazio-organoaren osakeran, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, Berdintasunerako Legearen 3.7. artikuluari jarraikiz.

2016ko uztailaren 14ko Batzordearen Aktak hala adierazten du:

«Bildu dira:

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren aldetik:

- Nazioartekotze-zuzendaria
- Elkartzen Programaren arduraduna
- Nazioartekotze-teknikaria

SPRIren aldetik:

- Zuzendari nagusia
- Teknologia eta Berrikuntza zuzendaria
- Enpresa Sustapenaren Arloko zuzendaria
- Azterlanen eta Kluster-koordinazioaren arduraduna
- Azterlanak eta Kluster-koordinazioa»

Eta Batzordeko presidentek (Elkartzen Programaren arduraduna) eta idazkariak (nazioartekotze-teknikaria) sinatzen dute akta.

Kontuan hartu behar da presidentearen eta idazkariaren rola aktan zehazten dela eta, bistan denez, gainerakoak bokalak direla. Horrenbestez, gure iritziz, argi geratzen da gutxieneko eskakizunak betetzen eta gainditzen direla, ebaluazio-organoa osatzeko araudiak zehazten duenaren arabera. Izan ere, presidentez eta idazkariaz gain, Nazioartekotze Zuzendaritzako bokal bat eta SPRIko bi bokal daude gutxienez. Gainera, SPRIko 3 «aditu» gonbidatu dira.

“Esleipenari buruzko ebazpenak ez du zehaztasunik ematen laguntza jaso dezaketen ekintzen inguruan; halaber, ez zaizkio onuradunari jakinarazten”.

ALEGAZIOA

Araudiak hau adierazten du:

11. artikulua. – Eskakizunak balioestea.

... / ...

a) Ekintza-plana. 4.1. artikuluan ezarritako arloetako jarduketetan kokatzen direla egiaztatuko da. Honako puntu hauek balioetsiko dira: proposatutako ekintzak klusterraren plan estrategikoaren lehentasunekin eta logikarekin lerrokatuta egotea (PE, gehienez, 5 puntu), baliabide-bolumenari egokitzea (proposatutako arduraldia eta finantzaketa) (FIN, gehienez, 10 puntu), enpresen parte-hartzearen maila eta kalitatea (PART, gehienez, 5 puntu) eta lehentasun-maila (LEHEN, gehienez, 10 puntu), jarraian adierazten den bezala:

Jarduera mota	Gehieneko puntuak
Erakunde kideentzako zerbitzuak.....	5
Estrategia, teknologia-zaintza eta lehiakortasun-inteligentzia.....	7
Kooperazioa dinamizatzea.....	10
Proiektuetan parte hartzea.....	5

Jarduerei sendotasunaren arabera ematen zaie lehentasuna, handienetik txikienera (SEN), honako eragiketa hau eginez lortutako balioaren arabera; $SEN = LEHEN \times (PE + FIN + PART)$

Araudiaren arabera aurkeztu, balioetsi eta lehenetsitako ekintzak ebaluazio-organoaren lan-dokumentuan zehazten dira, eta ekintzen guztizko kopurua 400 inguru da. (Ikusi adibidea 2. eranskinean).

Esleipenari buruzko ebazpenaren ondoren, informazio xehea eman zitzaien onuradunei, SPRIren zerbitzuen bitartez. Jakina, onuradun bakoitzarekin bilera bat egin zen ebazpena azaltzeko eta laguntzen eta gauzatu beharreko Ekintza Planaren edukia ulertzen zutela bermatzeko.

Ebaluazio-organoak nahiz onuradunek laguntza jasotzen duten ekintzei buruzko informazio xehea eta azalpenak jaso dituztela uste dugu. Itemen kopuru altua dela-eta, ez dugu pentsatu praktikoa denik xehetasun horiek ebazpenaren jakinarazpenean jasotzea. Hala ere, egokitze jotzen dugu ekintzen xehetasunak aktan biltzea.

“Espediente batean ez zen jasotzen kluster erakundearen plan estrategikoa”.

ALEGAZIOA

UNIPORT eta MLC ITSren plan estrategikoak jada egin dira eta eskuragarri daude. Bi erakunde horiek BCLM osatu dute, bien ekimenak koordinatzeko eta enpresen arteko kooperazioa batera sustatzeko, «Euskadiko garraio, mugikortasun eta logistika klusterraren» barnean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“Aztertutako espediente bakar batean ere ez da aipatzen esleitutako diru-laguntzaren likidazioari buruzko ebazpena, ezta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua betearazpena ere, aholkularitzari eta beste zerbitzu batzuei loturiko gastuen hornitzaileen hautaketari buruzko arrazoiketari dagokionez, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera”.

ALEGAZIOA

Laburpen-taula eta zuzendaritza eskudunak baimendutako ordainketa-aginduak egin dira eta eskuragarri daude.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluari dagokionez, programaren kudeaketaren arduradunek irizpidearen aplikagarritasunaren inguruan zuten ezjakintasuna izan da arrazoia. Neurriak hartu dira hori berriz gerta ez dadin. 2018an, onuradun guztiei azaldu zaie kontratatzeko betekizunaren izaera duela eta ekintza-planaren exekuzioa/deskargua arrazoitzeko unean derrigorrezkoa dela.

“Espediente bakarrean arrazoitu dira langileen gastuak, agindu arautzailearen 13.1 artikulua arabera”.

ALEGAZIOA

Erakundeek, eskuarki, ziurtagiri bat entregatu dute, erakundeko arduradunak sinatua, partaide bakoitzak inbertitutako ordu kopurua eta orduen kostua zehazteko, langileen nominak atxiki gabe. Hala, adierazitako arrazoiketari dagokionez, eskakizunak bete direla irizten da.

“Bi espedientetan kluster erakundeak ez diren langileen gastuak jasotzen dira”.

ALEGAZIOA

BCLM - Basque Country Logistics and Mobility Federation entitate bat da eta enpresen lankidetzaren dinamizazioa du helburu, jardura ekonomikoaren (lurrekoa, airekoa eta multimodala) eremu garrantzitsu horretan. Bi erakunderen elkarganatzetik eta lankidetzatik sortu da: UNIPORT (Bilboko Portu Komunitatea) eta MLC ITS (Mugikortasun Klusterraren Erakundea). Erakunde horietako bakoitzak ibilbide berezia du Lehentasunezko Klusterretako eta Aurreklusterretako partaide gisa. Klusterrei babesa emateko 2016ko programa da horien ondorengoa. Bi entitateak bateratzea estrategikotzat jotzen da lan-eremuak eta ekimenak osatu eta berrantolatu ahal izateko, eraginkortasuna irabazteko eta ahalegin pribatu eta publikoen zatiketa saihesteko enpresen arteko elkarlanaren eremu den honetan, horixe baita klusterrei babesa emateko programaren xedea. Eusko Jaurlaritzak eskatuta bateratu dira entitateak, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren eta



Ingurumen eta Lurralde Politikaren (Garraio Plangintzaren Zuzendaritza) sailek sustatu dute aldi berean.

AFM eta INVEMA entitateak beste «Fabrikazio Aurreratuko Kluster» baten talde dinamizatzailea dira. Horien arteko lotura estua estatutuetan jasotzen da, AFMren unitate teknologiko gisa sortu zenez INVEMA. AFMk enpresentzako proiektuak garatzen ditu, bai banakakoak bai elkarlanean egitekoak. Klusterrei laguntza emateko programak berrikuntzaren eta teknologiaren eremu estrategikoa lantzeko eskatzen die entitate dinamizatzaileei, enpresen arteko elkarlana sustatu dezaten berrikuntza eta teknologia garatzeko eta txertatzeko proiektuetan. INVEMAREN estatutuaren arabera, zuzendari nagusi berbera eta zuzendari nagusi laguntzaile berbera dute bi erakundeek. AFMko Zuzendaritza Kontseiluari dagokio INVEMAKo patronatuko kideak izendatzea.

Programaren funtsa enpresen arteko elkarlana eta elkarketa sustatzea da, lehiakortasuna irabazte aldera, eta irabazi-asmorik gabeko entitate eta enpresa-elkarteen bidez gauzatzen da hori. Horretarako, ez da beharrezkoa entitate parte-hartzaileek bat egitea eta, era berean, ez da beharrezkoa programaren laguntzaren xede diren ekintzak gauzatzen dituzten langileak transferitzea. Esperientzia kontuan hartuz, eta klusterrei laguntzeko programaren xedea eraginkortasun handiagoz betetze aldera, «Klusterren entitate multzo dinamizatzailea» figura araudira gehitzeko beharra ikusi dugu. Entitate horiek, langileen lanarekin, programak sustatzen eta babesten dituen ekintzak antolatzeko eta garatzeko laguntza ematen dute. 2018ko deialdirako egin den araudiaren berrikusketan gehitu da hori.

"Lau espedientetan kanpo-gastuen justifikazio txikiagoa egin da, eta langile-gastuen kantitate handiagoarekin osatzen da justifikazio hori".

ALEGAZIOA

Kanpo- eta barne-gastuetarako aurreikusitako aurrekontuaren exekuzio zehatza hainbat faktore aldakorren mende dago. Faktore horiek aldatu egiten daitezke urtean zehar; ez daude erakunde dinamizatzaileen kontrolpean eta nekez aurreikusten dira: baldintza ekonomikoak, mundu-mailako estrategia geopolitiko eta komertzialak, herrialde-arriskuaren maila edo enpresek une zehatz batean erakutsi dezaketen interesa talde dinamizatzaileen azterketetatik eta lanetik sortzen diren gomendio edo proiektu-proposamenak lantzeko.

Europako antzeko laguntza-programen ohiko praktikak onargarritzat jotzen du aldaketen % 25era arteko marjina, gastu motari edo ekintza indibidualari dagokienez. Hala ere, desbideratzeak modu arrazoituan azaldu eta argudiatu beharko dira, eta helburua eta bitartekoak mantendu beharko dira ekimenaren aurrekontu osoan.

Aztertu diren AFM, BCLM, ENERGIA eta FMVAREN espedienteen desbideratzeak, konpentsazioak eta justifikazioak ohiko praktikaren marjinetan sartzen dira, Europako proiektu mota hauei dagokienez. Hori dela-eta, onargarritzat jotzen ditugu, helburua eta bitartekoak mantendu baitira ekimenen aurrekontu guztian.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“Lau espedientetan hainbat ekintzen justifikazioak onartu dira, nahiz eta, ebaluazio-organismoaren esleipen-proposamenaren arabera, ez zen horietarako diru-laguntzarik onetsi”.

ALEGAZIOA

Azalpenik eman ezean, ekintzen zerrendan erabiltzen diren eremuen, koloreen eta abarren terminologiarekin egin daitekeen interpretazioa okerra izan daiteke (ikusi adibidea 2. Eranskinean). Ebazpenak ez du halako xehetasunik ematen, baina esleitutako baliabide guztiak adierazten ditu.

Horri dagokionez, lehenago adierazitakoa hartu behar da kontuan: SPRIren zerbitzuek ekintza lehenetsien zerrenda xehetasunez azaldu zioten entitate onuradun bakoitzari bilera batean, laguntzen eta praktikan gauzatu beharreko Ekintza Planaren edukia ulertzen zutela bermatze aldera.

Ekintzak lehenetsunaren arabera aurkezten dira (handienetik txikienera) eta aurreikusitako gastu- eta finantzaketa-egituren arabera. Zerrendaren beheko zatian dauden ekintzak, programan hauta daitezkeen ekintza izan arren, finantzaketarik gabe gera daitezke a priori, lehenetsunaren arabera banatzen baita finantzazioa, handienetik txikienera. Horrek ez du esan nahi «bazertertuta» edo «ezeztatuta» geratzen direnik. Hautagarriak baldin badira, «erreserban» gera daitezke.

Lehenago adierazitakoaren arabera, urtean zehar izaten diren aldaketen eraginez, lehenetsun handiagoko zenbait ekintzek baliabide gutxiago erabil ditzakete, ekarpen handiagoak jaso, etab., eta horrenbestez, klusterrei laguntzeko programan aurreikusitako ekarpena baino txikiagoa kontsumitu dezakete. Lehenetsun handiena duten ekintzek klusterrei laguntzeko programaren ekarpen txikiagoa kontsumitzen dutenean, ekarpenaren aldea zerrendaren beheko aldeko ekintzei esleitzeko aukera dago, hautagarriak baldin badira. Hau da, «erreserban» geratzen diren ekintza horiek «erreskatatzeko» aukera dago, baldin eta, urtean zehar, lehenetsun handiagoko beste ekintza batzuen baliabideak askatzen badira, zerrendan a priori finantzatu gabeko ekintza gisa azaltzen diren arren. Aldaketa horiek onargarriak izan daitezke mota honetako programen ohiko praktikan, baldin eta arazoizko marjinen barruan mantentzen badira eta helburua eta bitartekoak ekimenen aurrekontu guztian mantentzen badira.

Beraz, lehenetsun gutxien duten ekintzak, hautagarriak baldin badira, erreserban daudela ulertzen dugu, eta lehenetsun handiagoko ekintzen exekuzio- edo baliabide-murriztapenak konpentsatu ditzaketela onartzen dugu. Horretarako, Europako proiektu mota hauen ohiko praktikaren marjinetan sartu beharko dira aldaketa horiek, eta helburua eta bitartekoak ekimenen aurrekontu guztian mantendu beharko dira. HKEEren txostenak aipatzen dituen 4 espedienteetan baldintza horiek aplikatu dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 KONTRATAZIOA

III.4.1 AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

ESP. ZK.: 1, 2, 3, 6 eta 8

F1 eta F2 gabeziak:

Lehenbizi, txostenak aipatzen dituen atzerapenak plataformaren onarpenerako, azken ziurtapenerako eta azken likidaziorako prozeduraren aplikazio eraginkorraren emaitza direla aipatu behar da. Prozedura hori IV. Eranskinean aurreikusten da, hots, «ADIFen jarduketa-prozedura proiektuak onartzeko eta obrak egikartzeko» agiriari buruzko eranskinean. 2006ko apirilaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioak (ADIF) sinatu zuten lankidetzeta-hitzarmenetik eratorri da agiri hori, eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke zenbait jarduketa agintzen ditu. Hala ere, 2017ko abenduaren 27an aldatu zen.

Aipatutako hitzarmen horren xedea da Sustapen Ministerioak eta ADIFek EAEko Administrazio Orokorrari eraikuntza-proiektuak idazteko, obrak zuzentzeko, obrak kontratatu eta gauzatzeko eta Trenbide Sare Berriaren Gipuzkoako adarrari dagozkion desjabetze-espeditenteak kudeatzeko emandako aginduaren baldintzak ezartzea.

Hitzarmen horren Hirugarren Klausulako 2. puntuan, plataformako obrak gauzatzeari dagokionez, hau xedatzen du: «Sustapen Ministerioa arduratuko da obrak onartzeaz». Eta Bosgarren Klausulak, Batzorde Teknikoa sortzekoak, batzordeari «proiektuak eta obrak egokitzeko proposamena prestatzea» egokituko zaiola xedatzen du, «Sustapen Ministerioak hori onar dezan».

Hala, onespren-proposamena egiteko eskumena zehaztu ondoren, baita obren ondorengo onarpena egiteko eskumena ere, aipatutako IV. Eranskinak, obren onarpenerako, azken ziurtapenerako eta azken likidaziorako prozedurari dagokionez, hau xedatzen du:

1. atala. Obra onartzea, «Obra hilabeteko epean onartu beharko da amaitzen denetik; horretarako, obra-zuzendaritzak amaitzeko eta obra-onarpena eskatzeko txostena egingo du (EL.00), D-4000 txostenarekin batera (EL.02). Horiekin batera dokumentazio tekniko eta administratibo gehigarria ere aurkeztuko dute».

Labur azalduta, ADIF erakundeak, Sustapen Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak, aurrez azaldutako obrak onartzeko, sekuentzia hau bete behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko espeditenteak izapidetzean:

1. Obra Zuzendaritzak amaitzeko txostena, obra-onarpenaren eskaera eta D-4000 txostena zein informazio gehigarria egitea.
2. Horiek KSIZLri igortzea berrikusi eta onar ditzan.
3. KSIZLek obra-onarpena baimentzeko txostena Eraikuntzako Zuzendaritza Laguntzaileari bidaltzea, Obra Zuzendaritzaren amaitzeko txostenarekin eta bildutako gainerako informazio tekniko eta administratiboarekin batera.



4. Aurreko dokumentazioa Sustapen Ministerioaren Zerbitzuak eta Obrak Ikuskatzeko Zuzendariordetza Nagusiari igortzea, ikuskatzailea eta onarpen-data esleitu ditzan.
5. Sustapen Ministerioak ikuskatzailea eta onarpen-data esleitzeko txostena bidaltzea Eraikuntzako Zuzendaritza Laguntzaileari, Sustapeneko ikuskatzaile nagusiak sinatuta.
6. Aurreko dokumentazio hori KSIZLri eta Obra Zuzendaritzari ere bidaltzea.
7. Obra-onarpena egitea administrazioa eta kontratista obran daudela, eta obra-onarpenaren akta egitea.

2. atala. Azken ziurtapena, «Hilabeteko epean, obra-onarpena egiten denetik zenbatuta, Obra Zuzendaritzak obren neurketa orokorra egingo du kontratista adjudikaziodunaren aurrean, eta egintza horren akta egingo du, bertaratutakoek sinatuko dutena. Neurketaren emaitza Kontratatari jakinaraziko zaio, eta bost egun baliodun izango ditu Obra Zuzendaritzari adostasuna edo eragozpenak idatziz adierazteko. Hilabeteko epearen buruan, obra-onarpenetik zenbatuta, Obra Zuzendaritzak dagokion zerrenda baloratua egingo du neurketa orokorraren emaitzari dagokionez. Hurrengo 10 egunetan, Obra Zuzendaritzak azken ziurtapena emango du dagokion justifikazio-txostenarekin batera...»

Labur azalduta, ADIF erakundeak, Sustapen Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak, aurrez azaldutako azken ziurtapena emateko, sekuentzia hau bete behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko espedienteak izapidetzean:

1. Obra Zuzendaritzak obren neurketa orokorra egitea kontratistaren aurrean, horren akta eginda.
2. Kontratatistak 5 eguneko epea du neurketa onartu edo eragozpenak jartzeko.
3. Hilabeteko epearen buruan, obra-onarpenetik zenbatuta, Obra Zuzendaritzak dagokion zerrenda baloratua egingo du neurketa orokorraren emaitzari dagokionez.
4. Hurrengo 10 egunetan, Obra Zuzendaritzak azken ziurtapena emango du dagokion justifikazio-txostenarekin batera.
5. Aurreko dokumentazioa Garraio eta Herri Lan Saileko organo eskudunari edo ETSari igorriko zaio, espedientea eta azken ziurtapenaren gastua onartzeko.
6. Horrekin batera, Obra Zuzendaritzak benetan gauzatutako obra guztien Proiektu Eraikia eskuratuko du Obren Kontrolerako Laguntzaren aldetik.
7. Obra Zuzendaritzak KSIZLri igorriko dio Proiektu Eraiki hori, azken ziurtapenaren kopiarekin batera, hark berrikusi eta normalizatu dezan.
8. KSIZLek azken ziurtapen horren ikuskapen-txostena egingo du Eraikuntzako zuzendari laguntzailearen oniritziarekin batera, eta dokumentu horiek ETSera igorriko ditu.

Eskumen-esparruak eta deskribatutako prozedurek agerian uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, kontratazio-espedienteen kontratazio-organo den aldetik, ezin



duela bermatu kontratazio publikoari buruzko araudiak ezinbestean finkatzen dituen epeak betetzen direnik, guri dagokigun kasuan, obraren onarpen-fasean eta azken ziurtapenean.

Hitzarmen eta prozedurako egoera atipiko hori administrazioaren kontrol bikoitzaren adierazle dela uler daiteke, berme handiagokoa, administrazio batek baino gehiagok parte hartzen baitu proiektuak eta obrak berak ikuskatzen; egoera horrek, ordea, luzatu egiten ditu izapidetze-epeak. Izan ere, zeregin ugari egin behar izaten dira, ohiko tramitazio batean eta zentzu hertsian egin behar izaten diren izapideen aldean. Hori horrela izanda, kontratazio-organoak ezin du bermatu SPKLTBko 234.4 artikulua (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 217.4 artikulua) arautzen dituen nahitaezko epeak beteko dituenik, harengandik kanpoko beste administrazio batek egin beharreko gestioek baldintzatuta jarduten baitu.

Euskal Trenbide Sareak, obra-zuzendaritzen arduraduna den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzak, obren gomendio bidezko sustatzailea den aldetik, behin eta berriz idatzi diote ADIF Alta Velocidad-eko Ikuskapen, Kalitate, Segurtasun eta Osasun zuzendariordeari, Sustapen Ministerioiko Plangintza eta Proiektuen zuzendariorde orokorrari eta Sustapen Ministerioiko Azpiegituren idazkari orokorrari, hitzarmenean adierazten diren izapideei eta baimenei lehentasuna eman eta haiek arin ditzaten, SPKLTBko 234.4 artikulua arautzen duena betetzeko. Eskaera horiek, era berean, hitzarmeneko batzorde teknikoaren bileretara eta hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeen bileretara eramanez, baina, orain bitartean Sustapen Ministerioak eta ADIF erakundeak ez dute mekanismorik jarri abian, erreferentziatzeko lege-xedapen horrek arautzen dituen epeak beteko direla ziurtatzeko.

F3 gabezia

Aldaketei dagokionez, Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Trenbide Azpiegitura Administrazioa erakundearen (ADIF) artean Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eraikitzeke zenbait jarduketaren gomendiorako 2006ko apirilaren 24an sinatutako lankidetzak-hitzarmenak (2017ko abenduaren 27an aldatu zen) hau xedatzen du:

Bigarren Klausula, 4. puntua: «Eraikuntza-proiektuak eta horien aldaketak gainbegiratu eta onartzea Sustapen Ministerioiko organo eskudunari dagokio».

Bigarren Klausula, 5. puntua: «Sustapen Ministerioaren organo eskudunak onetsi beharko ditu EAEk idatzitako eraikuntza-proiektuak eta horien aldaketak».

Eta ondore horietarako eskumenak dituen organo jakinari dagokionez, hots, ADIF organoari dagokionez, hitzarmeneko azalpenetan bertan, Azpiegituren eta Plangintzaren Estatu idazkariaren 2005eko apirilaren 14ko Ebazpena aipatzen da. Horren bidez, ADIFeko lehendakariaren esku utzi ziren GIFi agindutako trenbide-azpiegituretarako proiektuak onartu eta aldatzeko eskumenak, besteak beste, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko trenbidea eraikitzeke proiektuak idaztea eta Iparra/Ipar-mendebaldea korridorearen barruan Euskal Autonomia Erkidegoko abiadura handiko trenbidea eraiki eta administratzea.

Beraz, EAEko Administrazio Orokorrak Euskal Trenbide Sare Berriaren obrak kontratatzen dituen administrazio modura jarduten badu ere, Sustapen Ministerioak



kudeaketarako emandako gomendioak haren jarduna mugatzen du, Sustapen Ministerioarena baita eskumena. Euskal administrazioaren eskumena lankidetzahitzarmenen eta horien bidez emandako kudeaketarako gomendioen arabera da. Hitzarmen eta gomendio horiek osatzen dute esku hartzen duten administrazioen arteko akordioa gauzatzeko oinarriko esparrua. Zehatzago esateko, euskal administrazioak ezin ditu eraikuntza-proiektuak onetsi, ezta horien aldaketak ere, Sustapen Ministerioa arduratzen baita horiek onesteaz.

ESP. ZK.: 14

F5 gabezia

Hileroko azken ziurtapenean, ez da esleipen-zenbatekoaren guztizkoa gauzatu; izan ere, zenbait partida ez ziren oso-osorik ziurtatu, hau da, gauzatutako neurketak kontratatutakoak baino gutxiago izan ziren. Bestalde, azken ziurtapenean, beste partida batzuetako gehiegizko neurketak gehitu ziren; izan ere, beste partida horietan egindako neurketak kontratatutakoak baino gehiago izan ziren; beraz, azken ziurtapenean ez da gauzatutako obrarik jasotzen.

ESP. ZK.: 15

F1 eta F2 gabeziak

- F1 gabeziari dagokionez, obren onarpenak jasandako atzerapena aipatzen da. Legeriaren arabera, administrazioak amaierako edo adostasunezko ekintza formal eta positiboa eskatuko du, obra amaitu edo kontratuaren xedea bete eta hurrengo hilabetearen zehar. Hala ere, epe hori ez da bete; izan ere, obra amaitutzat eman zenetik hautemandako gabezia guztiak zuzendu ziren arte, ezin izan zen obraren txosten positiborik igorri eta obraren onarpen formalik egin, eta kasu honetan, obra gauzatzen duen enpresak gabezia horiek zuzentzeko erabilitako epea adierazitako epea baino luzeagoa izan da.
- F2 gabeziari dagokionez, legeriak hau adierazten du: obrak onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak. Eraikuntza-zerbitzutik ezin da azken ziurtapena onetsi Zuzendaritza Fakultatiboak azken likidazioa onesten duen ziurtagiria bidaltzen duen arte, obra gauzatzen duen enpresaren adostasunarekin. Kasu horretan, bien neurketen arteko aldean ondorioz, aipatutako epea luzatu behar izan zen.

ESP. ZK.: 16

F2 gabezia

Legeriak adierazten duenez, obrak onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, gauzatutako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak. Eraikuntza-zerbitzutik ezin da azken ziurtapena onetsi Zuzendaritza Fakultatiboak azken likidazioa onesten duen ziurtagiria bidaltzen duen arte, obra gauzatzen duen enpresaren adostasunarekin. Kasu horretan, bien neurketen arteko aldean ondorioz, aipatutako epea luzatu behar izan dugu.

III.4.2 2016AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

ESP. ZK.: 28

C1 gabezia

Aipatutako espedientearen esparruan, jarduketa hauek egin ziren:

- Orduko Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu zuzendariaren Ebazpenaren bidez, hauek onetsi ziren: kontratazio-espedita, administrazio-klausula partikularren agiria eta obraren administrazio-kontratuaren gastua. Azken horrek Santurtziko (Bizkaiko) San Juan de Rompeolasen AOR 403 ekipamendu-lurzatiko EU 2 egikaritze unitatean 58 zuzkidura-bizitoki eraikitzea du helburu. Horrez gain, kontratua esleitzeko prozedura ireki zen.
- Lizitazio-iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eman zen argitara 2015eko otsailaren 23an. Egun horretan bertan argitaratu zen kontratatzailearen profilean.
- Lizitazio-iragarkian adierazten zen bezala, eskaintzak aurkezteko epea 2015eko apirilaren 7an amaitzen zen, 10:00etan. Iragarkian adierazitako lizitazio-eparearen barnean, 22 enpresaren eskaintzak jaso ziren. Lizitazio-iragarkian adierazitako epea igaro ondoren, LURGOIEN, SAUren eskaintza jaso zen.
- 2015eko apirilaren 30ean egindako bilkuran, LURGOIEN SAU aipatutako kontratu-prozesutik baztertua adostu zuen kontratazio-mahaiak. Bazterketa hori 2015eko maiatzaren 4an jakinarazi zitzaion entitateari.
- 2015eko maiatzaren 6an, Kontratazio Batzorde Nagusiak C gutun-azalak ireki zituen – balio-judizioaren bidez aplikatzekoak diren irizpideen arabera balioetsi behar zen dokumentazioari zegozkionak–, eta balorazio-txosten teknikoak egiteko eskatu zion kontratazioa gauzatzeko zuzendariari.
- Data horretan bertan, LURGOIEN SAUk gora jotzeko errekurtoa jarri zuen 2015eko apirilaren 30eko bazterte-erabakiaren aurka.
- Ogasun eta Finantza Saileko Administrazioa eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordearen 2015eko maiatzaren 22ko Ebazpenaren bidez, lizitazio-prozeduratik bazterteagatik LURGOIEN SAUk jarritako errekurtoa ezetsi zen, eta 2015eko maiatzaren 29an jakinarazi zitzaion enpresari.
- 2015eko azaroaren 5ean, kontratazioa gauzatzeko zuzendariak balorazio-txostena igorri zuen.
- Kontratazio Batzorde Nagusiak, 2015eko azaroaren 18an egindako bilkuran, balorazio-txostena onetsi zuen eta eskaintza bakoitzari emandako puntuazioaren berri eman zien bertaratutakoiei.
- Bilkura berebean, Kontratazio Batzorde Nagusiak B gutun-azalean zeuden eskaintzak ireki eta irakurri zituen. Era berean, enpresa lizitatzailerako lauk aurkeztu zituzten eskaintzek balio neurrigabeak edo anormalak zituztela ikusirik, bost egun balioduneko epean –SPKLTBko 152. artikuluan aurreikusten den bezala– egokitzea jotzen zutena alegatzeko eskatu zitzaion.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 2015eko abenduaren 16an, akordioaren jakinarazpena bidali zen, txosten teknikoaren kopiarekin batera.
- Emandako epearen barnean, lau lizitatzailleek dokumentazioa aurkeztu zuten beren eskaintzen bideragarritasuna justifikatze aldera.
- Emandako dokumentazioa aztertu ondoren, kontratazioa gauzatu zuen zerbitzuak txosten bat egin zuen 2016ko otsailaren 10ean, eta lau lizitatzailleek emandako dokumentazioa eskaintza ekonomikoen bideragarritasuna behar bezala justifikatzeko nahikoa ez zela ondorioztatu zuen.
- 2016ko otsailaren 19an egindako bilkuran, lau lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak baztertzea adostu zuen Kontratazio Batzorde Nagusiak eta, jarraian, eskaintza ebaluagarrietako alderdien balorazioa egin zuen, matematika-formulak aplikatuz, administrazio-klausula partikularren agiriaren karatulan adierazten den bezala.
- 2016ko martxoaren 18an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak fiskalizazio-txostena igorri zuen.
- Kontratuaren enpresa esleipendunari dokumentazioa eskatu zitzaion, SPKLTBko 151.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta enpresa lizitatzailleak behar bezala eman zuen, eskakizuna jaso eta hurrengo 10 egun baliodunen barnean.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu zuzendariaren 2016ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez, obren administrazio-kontratua esleitu zen «Santurtziko San Juan de Rompeolasen AOR 403 ekipamendu-lurzatiko EU 2 egikaritze unitatean 58 zuzkidura-bizitoki» eraikitzeke. Administrazio-kontratu hori 2016ko ekainaren 6an formalizatu zen.

Aurrekoarekin bat etorritik, kontratuaren esleipenaren atzerapena ezin zaio egotzi organo honen jarduketari; izan ere, eskaintzak 2015eko ekitaldian ireki ziren arren, data horretatik aurrera egoera desberdinak eman ziren, besteak beste, entitate lizitatzailleek errekurtsuak aurkeztu zituzten kontratazio-organismoaren akordioaren aurka, edo balio neurrigabeak edo anormalak zituzten eskaintzak egon ziren. Horrenbestez, jarduketa gehigarriak eragin zituzten prozeduran. Jarduketa horiek gauzatzeko, administrazio publikoaren gainerako jarduketak bezala, kontratazio publikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete behar da, pertsona juridiko guztien eskubideak bermatze aldera. Izan ere, pertsona horien interesetan eragina izan dezakete, eta interes horien defentsan beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartzeko aukera izango dute.

ESP. ZK.: 41 eta 42

D2 eta E2 gabeziak

I.- Obrak hasteko epea ez-betetzeari dagokionez, SPKLTBko 113.1.e) artikulua hau xedatzen du bi espedienteetan:



“Prestazioak gauzatzen hasteko epea ez da hilabetekoa baino luzeagoa izango, a) letran aurreikusitako akordioa hartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, prestazio horiek kontratatzeke, prozedura arrunta izapidetu beharko da”.

Zumaiako portuko kanpo-dikearen horma sendotzearen eta konpontzearen espedienteak:

- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Zerbitzu zuzendariaren 2016ko otsailaren 18ko Ebazpenaren a) letraren arabera, obrak premiazko izaerarekin gauzatzea agindu zen.
- b) letraren arabera, 2016ko martxoaren 11n, prestazioen gauzatzeari hasiera eman zion Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak. Horretarako, Typsa, Técnica y Proyectos enpresaren esku utzi zen premiazko eraikuntza-proiektua idazteko asistentzia teknikoa.

Bermeoko portuko kanpo-dikearen horma sendotzearen eta konpontzearen espedienteak.

- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Zerbitzu zuzendariaren 2016ko otsailaren 19ko Ebazpenaren a) letraren arabera, obrak premia izaerarekin gauzatzea agindu zen.
- b) letraren arabera, 2016ko martxoaren 11n, prestazioen gauzatzeari hasiera eman zion Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak. Horretarako, Typsa, Técnica y Proyectos enpresaren esku utzi zen premiazko eraikuntza-proiektua idazteko asistentzia teknikoa.

Araudi aplikagarria bi espedienteetan bete egin zen; izan ere, araudiak ez du «obren» hasiera zehatz-mehatz aipatzen, «prestazioen gauzatzearen» hasiera baizik. Premiazko obra baten gauzatzeari lotuta daude prestazio horiek, eta obra zentzu hertsian gauzatu aurretik eskatu daitezke, hizpide ditugun kasuetan, obra-inguruneak eta -baldintzek hala eskatuta.

II.- Bigarrenik, Gobernu Kontseiluari jakinarazpena emateko izapidea –epeaz kanpo egin dela erreklamatzeko da– beharrezkoa ez dela alegatu behar da, SPKLTBko 113.1.b) artikulua arabera; izan ere, hitzez hitz, Ministro Kontseiluari eman behar zaio jakinarazpena, eta «Estatuko Administrazio Orokorrak, horren Erakunde Autonomoek, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek eta zerbitzu komunek edo Estatuko gainerako entitate publikoek egin badute kontratua,... gehienez hirurogei eguneko epean». Hizpide dugun espedienteak, noski, ez da azken kasu horretan sartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 3.2.b) artikulua arabera, Gobernu Kontseiluari dagokio, administrazio publikotzat jotzen diren botere esleitzzaileek gauzatzen dituzten kontratuei dagokienez, premiazko izaerarekin izapidetutako kontratuen betearazpen-erabakiak kontuan hartzea. Aipatutako izapidea betetzeko, ez dute inolako eperik izango.

Bete beharreko izapidearen esparru juridikoa definitu ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak Gobernu Kontseiluari bi espedienteen berri eman ziola adierazi behar da, 2016ko azaroaren 2ko bilkuran.

ESP. ZK.: 47

A2 gabezia

Prezio-irizpidea balioesteko formula kontu oso eztabaidatua eta eztabaidagarria da, abantaila ekonomiko gehien dituen eskaintzaren hautaketan izan ditzakeen efektuak direla-eta.

Hala, kontratuen administrazio-legeria ez da sekula ausartu formula-eredu bat ezartzera, baina ez du sekula ukatu formulak erabiltzeko aukera. Formulak kontratu-prestazioen ezaugarrietara moldatzeko beharrak, hain zuzen, bilakatzen ditu formulak baliozko eta efikaz.

Zehazki, espediente honi dagokionez, ekonomikoki baxuena den eskaintza esleitu zela adierazi behar da. Gainera, balio-judizioaren bidez aplikatzekoak diren irizpideen balorazioari dagokionez, kasik berdina zen. Horrenbestez, balio ekonomikoaren nagusitasuna egiaztatzen da lizitazio honetan.

ESP. ZK.: 48

A2, A5 eta A6 gabeziak

Kasu honetan, berriz ere, 47. espedientean formulatutako alegazioa aipatu behar dugu, hots, prezio-irizpidea balioesteko formulak, kontu oso eztabaidatua eta eztabaidagarria, abantaila ekonomiko gehien dituen eskaintzaren hautaketan izan ditzakeen efektuak direla-eta.

Hala, kontratuen administrazio-legeria ez da sekula ausartu formula-eredu bat ezartzera, baina ez du sekula ukatu formulak erabiltzeko aukera. Formulak kontratu-prestazioen ezaugarrietara moldatzeko beharrak, hain zuzen, bilakatzen ditu formulak baliozko eta efikaz.

Aipatutako espedienteari dagokionez, ekonomikoki baxuena den eskaintza esleitzen dela adierazi behar da. Horrenbestez, eskaintzaren elementu ekonomikoak erabakitzen du azken balorazio totala.

HKEEK adierazitako eragozpenari dagokionez –hau da, luzapenaren xedea zehatza ez dela–, «kontratu-luzapenari» buruz karatulan jasotzen den atalari jarraituko zaiola adierazi behar da. Ezaugarri berezi hau aipatzen da bertan: luzapenean barne hartzen diren ibilgailuen kopurua baldintza bereziengatik murriztu daiteke, besteak beste, erabateko hondamentzat jotzen diren istripuen ondorioz gertatzen diren automobil-bajengatik (ezin zuten bestela izan).

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ohartarazi duenez, espediente honetan ez dira argi eta garbi zehaztu proposatutako aldaketa erabili ahal izateko baldintzak, SPKLTBaren 106. artikulua eskatzen duen moduan. Espediente honetan, administrazio-klausula partikularren agiriaren karatulan, 18. atalean, argi eta garbi zehaztu dira aldaketak erabili ahal izateko baldintzak, kuantifikatzeko modua eta kontratuaren aldaketaren edo hurrengo aldaketen gehieneko ehunekoa. 18. ataleko testua jasoko dugu jarraian:

18.- Kontratuaren xedeko prestazioari buruzko klausula gehigarriak (bai/ez): Bai.



18.1.- Kontratua aldatzea: Administrazio kontratatzaileak unitateak zabaldu edo murriztu ahal izango ditu interes publikoko arrazoiak direla-eta.

Aldaketa horiek, ordea, ezingo dute gainditu adjudikazioaren gehieneko aurrekontuaren %20.

Kontratazio-organoak hartzen duen erabakia aldebiko administrazio-dokumentu batean jasoko da.

ESP. ZK.: 49

A6 gabezia

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ohartarazi duenez, ez dira argi eta garbi zehaztu proposatutako aldaketa erabili ahal izateko baldintzak, SPKLTBaren 106. artikulua zehazten duen moduan. Espediente honetan, administrazio-klausula partikularren agiriaren karatulan, 18. atalean, argi eta garbi zehaztu dira aldaketak erabili ahal izateko baldintzak, kuantifikatzeko modua eta kontratuaren aldaketaren edo hurrengo aldaketan gehieneko ehunekoak. 18. ataleko testua jasoko dugu jarraian:

18.- Kontratuaren xedeko prestazioari buruzko klausula gehigarriak (bai/ez): Bai, badaude.

Kontratuaren indarraldiaren baitan ikusten bada esleipen-ahalmena duenaren benetako premiak hasieran kalkulaturakoa baino handiagoak izango direla, onartutako gehieneko aurrekontua gaindituz, kontratua aldatu egin ahal izango da, administrazio-klausula zehatzen agiriaren 39.3 klausulan ezarritako prozeduraren arabera. Gainera, honako zenbaterainokoak eta mugak izango ditu:

- a) Aldaketa hau egin ahal izango da: kontratuan banaka zehaztutako ondasun edo prestazio guztien edo batzuen unitate kopurua areagotu.
- b) Aldaketa horrek, ordea, ezingo du gainditu adjudikazioaren gehieneko aurrekontuaren % 20.
- c) Kontratazio-organoak hartzen duen erabakia aldebiko administrazio-dokumentu batean jasoko da, hasierako gehieneko aurrekontua agortu aurretik».

ESP. ZK.: 51

A2 gabezia

Prezio-irizpidearen eragozpenari dagokionez, 47. eta 48. espedienteetan adierazitakoari eusten diogu.

III.4.3 KONTRATU TXIKIAK

- 116.559. oharra

Kontratu mota desberdina da (zerbitzua/hornidura) 116.561. eta 116.562. oharrei dagokienez.



Herri Administrazio eta Justizia Saila

- 167.639., 167.643., 167.661., 167.663., 356.074., 356.075. eta 356.080, oharrak.

Telekomunikazio zerbitzuen lizitazio- eta esleipen-prozesuaren ondoriozko kontratuak beranduago jarri ziren indarrean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administraziooko hainbat eraikinen kasuan; izan ere, hainbat errekurtsio berezi jarri ziren EAEko Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren aurrean.

Kontratuaren xedeko prestazioak eskaintzen jarraitu behar ziren, funtsezko zerbitzu publikoei lotuta zeudenez, eta ezin ziren eten zerbitzu horien funtzionamendua biziki aldatu gabe. Ondorioz, ordura arte prestazioak ematen jardundako zituzten enpresen kargu utzi behar izan zen zerbitzuen prestazioa. Horrenbestez, kontratuak indarrean sartu arte zerbitzuak eman zituzten enpresei ordaindu zitzaizkien fakturak.

Bestalde, operadore-aldaketa bat balego, Preskripzio Teknikoen Orriak zerbitzuen migrazioarako epea jasotzen zuela hartu behar da kontuan. Hala, zerbitzuen migrazio-epean zehar, lehenago zerbitzuak ematen zituen enpresaren fakturekin batera, esleitzailer berriaren fakturak ere egon ziren. Hori dela-eta, aurreko esleitzailer egindako fakturak ordaindu behar izan ziren, zerbitzuen migrazio erabatekoa lortu arte.

Segurtasun Saila

- 117.124. oharra

Ohar hau lur orotako ibilgailuen errentamenduari buruzko kontratuaren fakturari dagokio, S-398/2007 espedienteari, apirilera, maiatzerako eta ekainerako. Denbora-tarte hori zehatz adierazi eta onesten da Barne Sailburuaren Aginduan, 2007ko azaroaren 26koan.

- 443.647. oharra

Ohar hau lur orotako 11 ibilgailuren errentamenduari dagokio, S-119/2016 espedienteari. Publiko egin beharrik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu da, azarorako eta abendurako, 2016ko azaroaren 28ko Ebazpenak jasotzen duen denbora-tartearen arabera.

- 435.540. eta 435.548. oharrak

Eskuratze horietako bakoitzak xede desberdina du.

III.5 BERMEAK

Eskatzaileek ez dituzte urteko kontuak horrekin lotutako gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu behar 2012ko uztailaren 12ko hitzarmenaren arabera; nolana ere, enpresa eskatzaileei dokumentazio hori bai eskatu eta *de facto* eskatzen zaiela Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak egindako izapideen fasean (normalean amaitutako azken bi ekitaldiei dagokienez), dela merkataritza-erregistroan inskribatutako urteko kontuak, dela sozietateen gaineko zerga likidatzeko dagokion foru-ogasunera bidalitakoak igor ditzaten eskatuz.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Informazio horren bidez eskabideak onartzea arlo finantzarioaren ikuspegitik arrazoizkoa den baloratzen da, eta, hala badagokio, informazio gehigarria ere eskatzen da aurkeztutako datuak aintzat hartuta eskatzailearen bat ETE den zalantzarik balego ere.



ABREVIATURAS

CG	Acuerdo de Consejo de Gobierno.
BEI	Banco Europeo de Inversiones.
BOPV	Boletín Oficial del País Vasco.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CMCE	Comisión Mixta del Concierto Económico.
COJUA	Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.
CVFP	Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
ETS	Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCEC	Ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
LOEPSF	Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.
NRFPV	Nueva Red Ferroviaria del País Vasco.
OCE	Oficina de Control Económico.
PCPCAE	Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del Consejero de Economía y Hacienda.
PIB	Producto Interior Bruto.
PYME	Pequeña y Mediana Empresa.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.
TRRPE	Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, Refundido de las disposiciones legales vigentes del presupuesto de Euskadi y se regula el régimen de las Fundaciones y Consorcios del sector público de Euskadi.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
VIRESA	Sociedad Pública Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, conforme a lo establecido en la Ley 1/1988, reguladora del mismo y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado este informe de fiscalización de la Cuenta de la Administración General de la CAPV para el ejercicio 2016.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica de la Administración General de la CAPV.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La cuenta de la liquidación del ejercicio presupuestario 2016 se ha presentado de acuerdo con la estructura departamental aprobada por los decretos del Lehendakari 20/2012, de 15 de diciembre, 8/2013, de 1 de marzo, y 34/2013 de 2 de diciembre, aunque al cierre del ejercicio se encontraba en vigor el Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la CAPV y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que derogaba los anteriores.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1.- La certificación final del expediente número 12, realizada por 1,5 millones de euros, supera el 10% del precio primitivo del contrato, adjudicado por 6,1 millones de euros, incumpliendo el artículo 217 de la LCSP. El gasto objeto de esta certificación final, que corresponde a un modificado ejecutado sin realizarse el procedimiento correspondiente, fue convalidado por ACG de 27.07.2016 (deficiencia F4) (Ver A.18).

2.- En la utilización del procedimiento negociado sin publicidad para la licitación del expediente número 49, adjudicado por 4 millones de euros, no se ha justificado de forma suficiente la exención de concurrencia, de acuerdo con los artículos 173.c) y 170.d) del TRLCSP (ver A.18, deficiencia B1).

3.- En la revisión de 126 adquisiciones de bienes y servicios, por un importe total de 4,1 millones de euros, correspondientes a los departamentos de Administración Pública y Justicia (8), Hacienda y Finanzas (29), Seguridad (5) y Educación, Política Lingüística y Cultura (84), hemos detectado que no se han tramitado los correspondientes procedimientos de contratación, incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia.

4.- Los Consejos de Gobierno de 22 de marzo de 2016, de 27 de julio de 2016, de 15 de noviembre de 2016 y de 25 de abril de 2017, mediante el procedimiento excepcional previsto en el artículo 24.4 de la LCEC, han asumido la fiscalización jurídico-económica favorable de gastos del ejercicio 2016 cuyo importe, al margen de los expedientes revisados por este TVCP, asciende a 53,4 millones de euros, que fueron informados negativamente por la OCE. Estos gastos corresponden a 66 contratos de servicios por 51,2 millones de euros, 3 contratos de suministros por 0,5 millones de euros y 3 contratos de obra por 1,7 millones de euros. Los principales incumplimientos han sido realizar las prestaciones sin tramitar el oportuno expediente contractual y sin observar los principios de publicidad y concurrencia que hubieran correspondido conforme a lo establecido en el TRLCSP (Ver A.18).

En nuestra opinión, excepto por las salvedades anteriormente descritas, la Administración General de la CAPV ha cumplido razonablemente, en el ejercicio 2016, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 OPINIÓN SOBRE LA CUENTA DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL

En nuestra opinión y considerando lo expuesto en las Notas 1 a 4 recogidas en la Liquidación del Presupuesto de 2016, las cuentas adjuntas de la Administración General de la CAPV expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio 2016, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2016, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

Este apartado recoge tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD

3.1.1.- Los anticipos de tesorería concedidos a la sociedad pública VISESA, han sido registrados extrapresupuestariamente por un importe total de 22,9 millones de euros cuyo destino es la financiación transitoria de la sede de la sociedad y de las existencias de viviendas de protección oficial pendientes de venta. Estos anticipos se concedieron en el ejercicio 2011 y se vienen renovando anualmente.

La permanencia de estos anticipos pone de manifiesto la existencia de una financiación a largo plazo, por lo que la Administración debería registrar presupuestariamente las obligaciones derivadas de estas operaciones.

3.1.2.- El Balance de Situación no dispone de un detalle individualizado de todos los bienes que componen una serie de partidas de inmovilizado, tales como instalaciones técnicas, equipos informáticos, maquinaria, utillaje y mobiliario, aplicaciones informáticas, etc. Los elementos se registran de forma agrupada por año de adquisición. El importe total registrado de esta forma asciende a 183,3 millones de euros.

3.1.3.- La información contenida en la liquidación de los Presupuestos Generales y Cuentas Anuales del Sector Público de la CAPV, recoge la información requerida con carácter de mínima por el artículo 8 de la LCEC y por el artículo 124 del TRRPE. Sería recomendable la inclusión de estados consolidados que muestren la situación económica, financiera y patrimonial, el resultado de las operaciones y la liquidación de presupuestos, del conjunto de entidades integrantes del sector público de la CAPV.



III.2 GASTOS DE PERSONAL

3.2.1.- Las Relaciones de Puestos de Trabajo vigentes no incluyen 1.188 plazas que tenían dotación presupuestaria en el ejercicio 2016, de acuerdo con el siguiente detalle:

TIPO DE PERSONAL	Nº PLAZAS
Personal de Justicia	1.025
Personal del Departamento de Educación	97
Personal laboral procedente de Cámaras Agrarias y de la Propiedad.....	2
Personal de diversos departamentos	55
Personal farmacéutico sanitario local y procedente de Osakidetza	9
TOTAL	1.188

Las plazas del personal de Justicia corresponden a las oficinas judiciales de Bilbao y Donostia – San Sebastián. La aprobación de las Relaciones de Puestos de Trabajo de este personal corresponde a la Administración General de la CAPV, previo informe favorable del Consejo General del Poder Judicial, en virtud de lo dispuesto en el artículo 522 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

3.2.2.- Mediante la Orden de 1 de junio de 2016 de la Consejera de Seguridad se autorizó compensar económicamente al personal de la Ertzaintza por los permisos no disfrutados de hasta 4 y 5 días de los ejercicios 2015 y 2016, respectivamente. El acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza limita a un máximo de 3 los días que pueden ser compensados. El gasto incurrido que excede del límite de 3 días correspondiente a 2015 y 2016, ascendió a 1,5 millones de euros y fue abonado en la nómina de septiembre de 2016.

III.3 SUBVENCIONES

Subvenciones directas

